XIII. IDAZLAN KOADERNOA
DBH/BATXILERGOA
GERNIKA-LUMO

gernika-lumoko euskara zerbitzua

GERNIKA LUMO

2014

ARGITARATZAILEA:

GERNIKA-LUMOKO EUSKARA ZERBITZUA ETA HEZKUNTZA SAILA

LAGUNTZAILEAK:

BARRUTIALDE INSTITUTUA

GERNIKA-LUMOKO INSTITUTUA

MERTZEDE IKASTETXEA

SAN FIDEL IKASTOLA

SEBER ALTUBE IKASTOLA

HHI GERNIKA-LUMO

AZALAREN EGILEA:

ANGELA BORCHERS PASCUAL

(BATX. 1. MAILAKO IKASLEA)

BABESLEAK:

EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA SAILA (HPS)

BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO KULTURA SAILA

(EUSKERA ZUZENDARITZA)

INPRIMAKETA:

LIZASO GRAFIKAK (ZORNOTZA)

2014KO EDIZIOA.

HITZAURREA

Idaztea gizonok eta andreok milaka urtetan garatu ditugun gaitasunetan konplexuenetakoa dela esan genezake.
Santimamiñeko lezezuloan gure arbasoek haitzak lurrez tintatu zituztenean imajinatuko al zuketen geroak gure leinuari irekiko zizkion ahalbideak?

Haiek ez zuketen, ez, sekula imajinatuko euren lekukoa hartuko zenuketenik zuok, hitzaurre xume honekin omendu nahi zaituztegun idazle gazteok.
Eurek bezala, zuen aztarna utziko zenuketenik, eta are gutxiago imajinatuko zuketen harria baino euskarri sofistikatuagoetan geratuko zenik, gerorako gordeta.

Hementxe gaude, ordea, IDAZLAN KOADERNOEN XIII. *edizioari sarrera ematen.*
Agian, etorkizunean, koaderno hitza bazterrean geratuko zaigu, fosil bezala, hizkuntza bizitik desagertu ohi diren beste hitz asko legez. Izan ere, idazlanen bizia luzeago izango da, seguruenik, koadernoena baino. Eta hala bedi! Ezer desagertzekotan, desager dadila euskarria izendatzen duen hitza, teknologiak ziztu bizian garatuko b aititu euskarri berriak eta eurentzako izenak, baina iraun dezala funtsezkoak, idazleak berak.
Idaztea izan dadila per seculam, betirako, pertsonok egunero eragin dezakegun miraria.

Bitartean, jarrai dezagun liburu berrien usainez gozatzen, koadernoen azalak lagunen sinadurez eta bihotz-geziez apaintzen.
Jarrai dezagun, baita, sormenak loretzen dituen idazlanok goraipatzen udaberriro.
Eta hori hala izan dadin eragiten duzuen guztioi eskerrik beroenak ematen.

2014ko martxoan
EUSKARA ZINEGOTZIA

Esperanza Uriarte Erdaide

AURKIBIDEA

IZENA	MAILA	IDAZLANA
Mikel Gabiola	DBH 1.	*"Pilotu famatua"*
Maria Amezaga	DBH 1.	*"Azken urtea aitxitxerekin"*
Ander Leginetxe Zaldunbide	DBH 1.	*"Arrosa kanpotik, beltza barrutik"*
Maider Bengoetxea Regatos	DBH 2.	*"Tutankamonen hilobia"*
Amaia Iruskieta Apraiz	DBH 2.	*"Saharatik Saharara"*
Eñaut Totorikaguena Murgialdai	DBH 2.	*"Londereseko noria"*
Mirian Nita	DBH 2.	*"Sendia beti bat eginda"*
Eneritz Torrontegi	DBH 2.	*"Mamiaren irrifarrea"*
Janire Iturbe	DBH 2.	*"Bi bizitzen arteko zubia"*
Nerea Zenigaonaindia Narbaiza	DBH 2.	*"Zoritxarraren giltza"*
Shanna Jane Basterretxea Chertudi	DBH 3.	*"Gogoratzen zara…?"*
Georgina Cozcu	DBH 3.	*"Egun berezia"*
Beñat Uriarte	DBH 3.	*"Amildegiaren hertzean"*
Xabier Zarrabeitia De la Fuente	DBH 3.	*"Arrantzan"*
Beñat Bilbao Landa	DBH 3.	*"Begirada"*
Nahia Ying Larrinaga	DBH 4.	*"Nire aitonaren istorioa"*
Amaia Dean Galarza	BDH 4.	*"Ihesik gabe"*
Irantzu Barandika Urrutia	DBH 4.	*"More, gorri eta zuriak"*
Eneko Fuentes	DBH 4.	*"Egunkari maitea*
Xabier Ojanguren Asua	DBH 4.	*"Amona"*
Malen Akordagoitia Madariaga	BATX. 1.	*"Txokolatezko tarta"*
Koldo Gezuraga Seijido	BATX. 1.	*"Su eta ni" eta "Heriomena"*
Oier Orue Basterretxea	BATX. 1.	*"Etorkizuneko Basajaun"*
Koldo Muñiz Aldamizetxebarrria	BATX. 1.	*"Iragana, oraina…"*
Andere Aginaga Urrengoetxea	BATX. 2.	*"Bizi berri bat"*
Asier Galartza Garai	BATX. 2.	*"Ateko gotorlekutik"*
Maddi Ametzaga Arriaga	BATX. 2.	*"Loturetan aske"*
Nile Petralanda Undabarrena	BATX. 2.	*"Zer da aberatsa izatea?"*
Pablo Calleja Felipe	BATX. 2.	*"6. solairuraino"*
Luis Alegre	HHI/EPA	*"Urdaibai"*

XIII. IDAZLAN KOADERNOA
DBH / BATXILERGOA
GERNIKA-LUMO

2014

Mikel Gabiola
DBH 1. maila
"Bizikletan ibiltzea eta lagunekin jolastea gustatzen zait"

PILOTU FAMATUA

Istorio hau orain dela 50 urte gutxi gorabehera gertatu zen.

Bazen neska bat, Amets, 19 urte zituena eta Irlandako herri txiki batean bizi zena. Nahiz eta bere familia eta lagunekin oso pozik bizi, bere ametsik handiena, hegazkin bat gidatzea zen, hau da pilotu izatea. Horregatik, maleta egin eta pilotu ikastaroak egitera joan zen Ameriketara, Irlanda utzita. Kaliforniara joan zen hain zuzen eta bertan oso pozik zegoen. Toki desberdinak ikusi eta gainera hegazkinak gidatzen zituen. Zer gehiago behar zuen? Bere gelako neska bakarra zen eta oso famatua egin zen.

Urteak pasa ziren eta Amets, pilotua zen eta jende asko harrituta gelditzen zen neska pilotu bat ikusten zutenean, normalean neskak azafatak izaten zirelako. Bidaia asko egiten zituen, Europara, Afrikara, Hego Ameriketara... eta baita inoiz bere Irlanda maitera ere. Bidaia horretan familia bisitatzeko aukera izaten zuen eta baita bere lagunekin egoteko.

Horrela, urteak pasa ziren eta Amets bere pilotu lanarekin ez zuen ia denborarik irteteko ere.

Arratsalde batean, eguraldi zoragarria zegoen, eta egun librea zuen. Zer egin?
Halako batean, pentsatu zuen abioneta txiki bat hartu eta buelta bat ematen joatea.
Han joan zen Amets, zerutik paisai zoragarriak ikusten eta nahiko urrundu zen Kaliforniatik.

Bat-batean zerua iluntzen hasi zen, hodei beltzak ikusten ziren eta gainera tximistak ere zerua argitzen zuten. Eguraldi beldurgarria zegoen eta Ametsek buelta ematea erabaki zuen, baina abioneta txikiak arazoak zituen, ez zebilen ondo eta ez zeukan irratirik inori deitzeko laguntza eske. Ez zekien ondo non zegoen, baina ordu batzuk pasatu zirenez, Kaliforniatik urrun zegoela bazekien.

Lurreratzen saiatu zen, baina hegazkin txikia matxuratuta zegoen. Han erori zen goitik behera Amets, abioneta eta guzti. Sekulako kolpea hartu zuen. Baina izugarrizko zortea izan zuen eta mirari bat gertatu zen, hau da hegazkina zuhaitzetako erramen artean erori zen eta Amets bizirik irten zen, kolpe askorekin baina bizirik.

Amets hegazkinetik irten eta ingurua aztertzen hasi zen. Ez zekien non zegoen. Oihan antzeko toki bat zen eta asko ibili ondoren, hondartza batetara iritsi zen. Zoragarria zen, palmondo handiak, itsaso urdin berdea eta hondarra zuri-zuria. Baina zer gertatzen zen? Beltzen tribu bat ikusi zuen, pelikuletakoak bezalakoa, ia erdi biluzik, salto eta algaraka, sutondo baten inguruan. Amets ikaratu egin zen, ez zekielako nola erantzungo zuten pertsonaia berezi haiek. Hondartzan bertan, jai bat ospatzen ari ziren.
Halako batean Amets ikusi zuten eta beregana hurbiltzen hasi ziren astiro-astiro. Bera dardarka zegoen, ikaratuta. Ametsek ez zuen ezer ulertzen. Nortzuk ote ziren pertsonaia xelebre horiek?

Beltzak beregana hurbildu zirenean, Kuban zegoela esan zioten eta hondartza hartan, film bat grabatzen ari zirela, zuzendari famatu batekin. Zuzendaria ere hurbildu zen neskarengana eta baita kamerak... eta bertan inguruan zeuden guztiak.

Ametsek lasaitasun handia hartu zuen. Bere burua salbu ikusi zuen eta gainera bere istorioa kontatu ondoren denek lagundu zioten hegazkina zegoen tokira eta zuzendariak ideia bat izan zuen. Hegazkina horrela ikusi zuenean, bertan pelikulako eszena batzuk grabatzea eta gainera Ametsek pelikulan parte hartzea bururatu zitzaion.
Filma oso famatua egin zen eta Amerika eta Europako zinemetan arrakasta handia izan zuen.

Irlandako lagunek eta familiak ez zekiten pelikula baten parte hartu zuela eta behin bertara joan zenean, denak gonbidatu zituen zinemara bere filma ikustera. Denak harrituta gelditu ziren, ez zuten espero lagun famatu bat izatea.

Honela gure pilotua, zinemako aktore bihurtu zen. Baina Amets, nahiz eta oso pozik egon bere pelikularekin, eta kalean jendeak ezagutu, autografoak eskatu eta beste aukera batzuk ere izan, bere benetako ametsa zeruan ibiltzea zen, hegazkinetan eta bertatik mundu osoa ezagutu.

Horregatik, azkenean , pelikulen mundua uztea erabaki zuen eta bere betiko bizimoduarekin jarraitzea. Hori bai, famatua egin zenetik, denek nahi izaten zuten Ametsekin hegan egin eta horregatik beste pilotuek baino lan gehiago izaten zuen. Bidaiako prezioan, Ametsekin argazki bat ateratzeko aukera izaten zuten.

Halako bidaia baten, bere gaur eguneko senarra aurkitu zuen. Hegazkinean sartu zen mutila eta pilotua ezagutu nahi zuela esan zuen. Mutil hau Jon deitzen zen eta abeslaria da, nahiz eta ez izan oso ezaguna.

Amets ikusi zuenean, berarekin bidai bat egiteko gogoa zuela esan zion, berari buruz gauza zoragarriak entzun zituelako eta gainera sekretu bat kontatu zion.Abesti bat idatzi zuen pilotuaren istorioari buruzkoa eta berak entzutea nahi zuen.

Amets harrituta zegoen. Inoiz ez zuen pentsatuko berari buruzko abesti bat egingo zutenik.

Ez zuen ezagutzen mutil hura baina bere abestia entzun nahi zuen eta entzundakoan , abesti harekin maitemindu zen. Oso polita zen eta maitasun handiz eginda. Gainera bere bizitza osoa kontatzen zuen.

Handik denbora gutxira Jon eta Amets, ia egunero ikusten ziren eta baita egunero bueltatxo bat ematen zuten hegazkinean, batzuetan nahiko luzeak eta beste batzuetan laburragoak izaten ziren bidaia horiek.

Jon, hegazkinekin eta bidaiekin maitemindu zen eta Amets oso pozik zegoen eta gainera Jonek berari idatzitako abestia irratietan eta entzuten hasi zen .

Neska hau, pilotu, aktore moduan eta orain abesti baten bidez famatua egin zen eta hori berak ezer planifikatu gabe.

Maria Amezaga
DBH 1. maila
"Dantzan egitea, musika entzutea, Athletic-en partidak ikustea, lagunekin egotea eta bidaiatzea gustuko dut"

AZKEN URTEA AITXITXEREKIN

2012ko abenduaren 24a zen eta Gabon Gaua ospatzen geunden, mahai handiaren inguruan eserita, afariari itxaroten. Hantxe geunden amama-aitonak, izeba-osabak, lehengusu-lehengusinak, ama, aita, nire ahizpa eta ni. Pozik geunden, alde batetik, Gabonak zirelako; baina, beste alde batetik, gau tristea zen, pertsona bat falta zelako, aitxitxe Jose. Bai, nire aitona hilda zegoen, izan ere, urte horretako uztaiaren 12an zendu zen eta lehenengo Gabonak ziren bera gabe.

Dena hasi zen 2011ko urtarrilean, nik 10 urte nituenean. Goiz batean, aitxitxe Josek bulto txikitxo bat nabaritu zuen besapean, baina ez zion jaramonik egin. Denborarekin, bulto hori hazten joan zen eta orduan, nire amumak medikuarenera eraman zuen, nahiz eta nire aitonak ezer ez zekien. Proba asko egin ondoren, denok susmatzen zutena baieztatu zuen.
- *Sentitzen dut hau esan beharra Jose, baina egia esan behar dizut, kantzerra duzu.*

Hauek izan ziren medikuaren hitzak. Jakina, ni ez nintzen hor egon baina aitonak berak esan zidan. Lehenengoetan ez nekien zer zen minbizia eta amari galdetu nion.
- *Ama, zer da minbizia?*
- *Aitonak esan dizu minbizia duela, ezta?* - galdetu zidan amak.
- *Bai* - erantzun nion.
- *Ai ama! Aitonak ez daki ahoa itxita edukitzen!.*
- *Beno, ama, erantzungo didazu ala ez?.*
- *Begira, laztana, minbizia oso gaixotasun txarra da, baina egon zaitez trankil, aitonak gainditu egingo du eta.*

Orduantxe gogoratu nuen minbizia, telebistan aipatzen zuten gaixotasun txar bat zela eta esaten zutenez, jende asko hiltzen zuela.

Lehenengo bi hilabeteetan, aitonak ez zuen minik nabaritzen, operatu egin baitzuten, baina bost hilabete pasatu eta gero, dena hasi zen okertzen. Medikuek ziotenez, tumorea berpiztu egin zen eta oraingoan, bihotzetik hurbil.
- *Orduan, ezin daiteke operatu?* - galdetu zion amumak medikuari.
- *Sentitzen dut, baina ez. Oraingoan, tumorea bihotzetik hurbil dago eta operatuz gero,*

Jose hil egin daiteke.

Amumak burua jaitsi zuen eta ausardiarekin, hauxe galdetu zuen:
-*Zenbat denbora geratzen zaio?*

Medikuak, arnasa ondo hartu zuen eta erantzun zion:
- *Urte bat, gutxi gorabehera, baina kontuan izan, azken hilabeteetan gehiago egingo duela txarrera, beraz, aprobetxatu berarekin geratzen zaizuen denbora guztia.*

Azken informazio hau nagusiek bakarrik zekiten, baina nik banekien aitxitxek denbora gutxian utzi egingo gintuela.

2011ko Gabonak ere, ez ziren oso politak izan, aitxitxe oso txarto zebilelako eta ezin zuelako gurekin afaldu, ohean egon behar zuen eta. Hala eta guztiz ere, aitxitxek beti mantentzen zuen irribarrea.

Egun batean, bere ohera hurbildu nintzen eta galdetu nion:
- *Aitxitxe, hil egingo zara?*

Esan eta gero konturatu nintzen galdera hori ez zela egokia.
- *Ai, laztan, ez dakit, baina ez ezazu horretan pentsatu* - esan eta hasperen bat bota zuen-.
- *Maria, hori bizi-zikloa da; lehenengo jaio, ondoren, hazi eta azkenik, hil.*
- *Eta, jaio eta hazi ostean, zergatik ezin du jendeak bizitzen jarraitu?*
- *Bestela, jende larregi egongo zelako munduan eta jaiotakoek ez zuten lekurik izango.*

Aitxitxeren azalpena entzun ondoren, konturatu nintzen nire ordua ere tokatuko zitzaidala, baina pentsamendu horiek burutik kendu nituen, horretarako denbora asko faltatzen zen eta.

2012ko maiatzean, medikuak esan bezala, aitxitxe txarragotu egin zen eta irribarrea galdu zuen. Bisita egiterakoan ere, gero eta gutxiago egiten zuen hitz eta egiten zuenean, oso apal eta baxu egiten zuen.

Bizirik ikusi nuen azken eguna uztailaren 11n izan zen. Goiz hartan, amak esan zidan aitxitxe azkeneko aldiz bisitatzera joango ginela, medikuaren arabera, egun batzuk barru utzi egingo gintuela. Aitxitxe agurtzen nengoen bitartean, negarrez hasi nintzen, ez nuelako galdu nahi, baina berak, bere ahots apalarekin hauxe esan zidan:
- *Egon zaitez lasai, egunen batean berriro elkartuko garelako zeruan.*

Eta heldu zen eguna, Uztailaren 12a. Goizeko zortziak ziren eta ohean geunden denak, aita izan ezik, lanera joanda zegoen eta. Bat-batean, telefonoak jo zuen. Ohetik altxatu nintzen eta hartu egin nuen.
- *Bai?* - galdetu nuen.
- *Egun on, Maria, izeko Amaia naiz, ama zurekin dago?*
- *Lotan dago, baina oraintxe esnatuko dut.*

Jarraian, ama esnatu nuen eta telefonoa eman nion. Ohera bueltatzeko esan zidan eta horixe egin nuen. Bederatzietan, berriro esnatu nintzenean, amak negar egin zuela nabaritu nuen.
- *Zer gertatzen da, ama?* - galdetu nion.

- *Ezer ez, Maria, aita etortzen denean kontatuko dizut.*

Hirurak bueltan, aita heldu zen eta jaten geundela, amak aitxitxe Jose hil egin zela esan zidan. Ezin nuen sinetsi Aitxitxe Jose hil egin zenik. Negarrez hasi nintzen, baina aitxitxek esandako hitzak etorri zitzaizkidan burura eta horrek lasaitu egin ninduen. Bostetan, aita eta ama tanatoriora joan ziren eta ni, auzoko Edurnerekin geratu nintzen. Gurasoak bueltatzerakoan, eskerrak eman eta hileta noiz izango zen esan zioten Edurneri.
- *Ama, joan naiteke hiletara?* - galdetu nion.
- *Laztana, hiletak oso tristeak izaten dira eta Aitxitxe askotan etorri zaizu burura. Ziur joan nahi duzula?*

Baietz esan nion eta hurrengo egunean, denak geunden elizan; amuma Mari, aita eta ama, izeba-osabak, … Denak zeuden oso triste, izan ere, ez nituen ikusi hainbeste negar egiten nire bizitza osoan eta, noski, horrek pena ematen zidan. Jakina, nik ere negar egin nuen, baina ez nintzen damutu hiletara joateagatik, aitxitxeri azkenengo agurra eman nahi nion eta.

Lehenengo astea aitxitxe gabe oso gogorra izan zen, askotan faltan botatzen nuelako, baina hurrengo hilabeteetan desagertzen joan zen, Gabonak heldu arte.

Data hauetan, gehiago etortzen dira burura falta diren pertsonak eta niri, gau horretan, abenduaren 24ko gauean, aitxitxe Jose etorri zitzaidan gogora. Gainera, bera jesartzen zen aulkia utzik zegoen eta horrek mina handiagotzen zuen. Baina, nahiz eta bere gorputza bizirik ez egon, bere oroitzapena beti egongo da bizirik nire bihotzean.

Ander Leginetxe Zaldunbide
DBH 1. maila
"Amets bat dut, amets bakarra: amesten jarraitzea!"

ARROSA KANPOTIK, BELTZA BARRUTIK

Bazen behin mutiko bat Peio deitzen zena. Begi urdin txikiak zituen, belarri handiak eta aho zabala. Bere lagunik onena Unax deitzen zen, hau, mutil polita, altua eta gihartsua zen eta emakume guztiak atzetik zituen. Beraien ustez detektibe talde ona egiten zuten, gaiztoak eta ausartak baitziren. Peiok 17 urte zituen; Unaxek, aldiz, 18. Euskal Herriko herri txiki batean bizi ziren, Ermuan hain zuzen.

Behin, biak Peioren etxean zeudela, gurasoen aldizkaria hartu eta berri hau ikusi zuten: *"Frank izeneko, 38 urteko, gizona hil egin dute Miamiko auzo batean."*

Berri hau hainbat aldiz irakurrita, Miamira joatea erabaki zuten, zer gertatu zer aztertzeko.

Plan hori ezkutuan zutela, maletak egin, gordeta zuten dirua hartu eta aireporturantz abiatu ziren. Peiok gurasoei mahai gainean nota bat utzi zien hau esanez: "Unaxekin Miamira noa bertan gertatu izan den heriotzaren berri izatera".

Loiuko aireportura heldu bezain pronto, dirua falta zutela konturatu ziren, beraz alboan zihoan agure zahar eta dotore bati poltsa lapurtzea erabaki zuten. Hau, aireportuko kafetegian zegoela, Peiok komuna non zegoen galdetu eta bitartean bertatik ibiltzen zihoalarik Unaxek poltsa hartu zion.

Hegazkinean zeudela, Peio larritu egin zen egin zutenaz konturatzean, baina bere begiek izugarrizko distira zuten Miamira zihoazen eta.

Bertara heldu eta bi izarreko hotel batera abiatu ziren aireportuak jarritako autobus batean. Hotela, bi izarretakoa zenez, ez zen beste munduko ezer, baina bi mutilak leherturik zeudenez zeruan egongo baziren bezala hartu zuten bertako ohea.

Hurrengo egunean goizetik izartu eta gosarian zeudela elkarrizketa bat izan zuten egunean zehar egingo zutenari buruz. Peiok koaderno txiki eta boligrafo bat hartuz lehenbiziko apunteak hartzen hasi zen. Guztia ondo zihoan, Unaxek hauxe esan arte:
-*Baina zer egingo dugu detektibe txartel bat eduki gabe?*

Ziztu bizian denda merke bat aurkitu eta hainbat erosketa egin zituzten, itxura guztiz aldatu ahal izateko. Lehenbizi, Peiok txamarra luze eta marroi bat hartu zuen, Unaxek, berriz, zuri kolorekoa. Gero Peiok betaurreko beltz eta handi batzuk hartu zituen aurpegia pixka bat estaldu ahal izateko. Unaxek aldiz "cowboy" itxurako txapel berde ilun bat aurkitu zuen. Jarraian bien artean lupa eta linterna handi batzuk erosi zituzten eta erosketa hauek eginda hotelera bueltatu ziren beraien itxura fisikoa aldatzeko.

Bertan zeudela artazi batzuekin Peiok ilea guztiz moztu zuen eta Unaxek bizarra era berezi batean moztu zuen. Dotore zeuden, gizon itxura baitzuten, baina lanean jartzeko, txartel berezi hura falta zitzaien. Hoteleko ordenagailu gelara joan eta hainbat "kopia-pega" eginik txartel famatu horiek atera zituzten inprimagailutik. Dena prest zegoen beraien ametsa bete ahal izateko. Gelara bueltatzen zihoazela, hoteleko harreragilearengana joan ziren hau esanez:
-*Arratsalde on andrea! 23 gelako beste giltza batzuen bila gatoz* -esan zion Unaxek arreta guztia ipinita.
-*Zertarako behar dituzue beste pare batzuk jauna?* -galdetu zion andere liluragarri hark.

Unaxek hasiera batean Peiori begiratu eta neskatxa hura gustatu zitzaiola esan zion begirada batez. Neskak begi berde-berdeak zituen eta ile luze marroi argia; oso polita zen eta galdera horri uko eginez Unaxek zera galdetu zion:
-*Zelan deitzen zara polit hori?*

Neskatxa, galdera zuzen horren aurrean tomatea baino gorriago jarri zen zer erantzun ez zekielarik:
-*Ba, ba … ni Kate naiz. Eta zuek zelan deitzen zarete?*- Unaxek hainbat tximeleta zituenez sabelean Peiok erantzun behar izan zion.
-*Ni Peio naiz eta nirekin dagoen mutiko hau Unax da. Baina barkatu Kate eman ahalko zenizkiguke giltzak mesedez?*

Kate, Unaxi begira egon zen hainbat segundoz, baina mutila ez zenez amets hartatik jaikitzen, neskatxak Peiori beste giltza pareak eman zizkion. Hauek hartuta, mutilak hoteletik irten eta heriotza hura gertatu zen lekura abiatu ziren. Hurbil zegoenez, tipi-tapa oinez joan ziren. Lekura heldurik, bertako poliziei detektibe txartela erakutsi eta barrura sartu ziren zelan hil zuten aztertzeko asmoz.

Hainbat orduz pistak aurkitzen egonez, izkinako kantoi batean arrosa koloreko pluma bat aurkitu zuten. Mutikoek poltsatxo bat atera eta pluma gorde egin behar zela erabaki zuten. Polizientzako tontakeria bat zen, baina Peiok objektu hura garrantzitsua izango zela esaten zuen behin eta berriz.

Zerua iluntzen zegoenez, hotelera bueltatzea pentsatu zuten deskantsatzeko asmoz.

Hurrengo egunean, hilik zegoen gorputza ikustera joan ziren, gutxi gora- behera zelan hil zen jakiteko. Heldu eta segituan, hilketa, labana batekin izan zela frogatu zuten, bular behean labanaren marka luze bat baitzuen. Pista hauek jakinda, hotelera joan ziren, egun hartan zerbait arraroa gertatu izan bazen Kateri galdetzera. Honek bera lanean zegoela esan zien eta jarraian hoteleko beste pertsona batzuengana joan ziren berdina galdetzera, baina inork ez zekien ezer. Sukaldariarengana ere joan ziren eta elkarrizketa arraro samarra izan zuten, egun hartan bere txakurrarekin parkean zegoela esan baitzuen. Mutilek ez zioten sukaldariari sinetsi, erantzuna oso zabala baitzen.

Unax eta Peio hotelaren inguruan hainbat orduz bueltaka zenbiltzala, zakarrontzi batean laban handi baten punta ikusi zuten. Peiok eskularruak ipini eta labana poliki-poliki hartu zuen bi eskuen laguntzaz.

Hura ere poltsatxo batean sartu eta analizatzera abiatu ziren. Hiru orduz aztertzen egon eta gero, Frank erailtzeko erabilitako labana zela ohartu ziren.

Labanan, ez zegoen esku oinatzik eta, orduan, konturatu ziren hiltzaileak eskularruak erabili zituela Frank hiltzeko.

Hainbat informazio eskuan, hotelera sartu eta Kate agurtu bezain pronto belarritako bat falta zitzaiola ohartu ziren. Hura, pluma arrosa bat zen eta bi mutilak ikaratuta geratu ziren.

Ezer esan gabe, gelara abiatu ziren aho zabalik. Ez zuten ezer ere sinesten, dena zen arraroa.

Guztia zegoen beraien esku, hau da, dena zekiten, baina Unax txora-txora eginda zegoenez neskatxarekin, ezkutuan gordeko zutela erabaki zuten. Hainbat minutuz gelan egonda, Katerengana joan ziren eta Peiok guztia aitortzeko eskatu zion. Kateri berehala globo itxurako malkoa erori zitzaion. Dena kontatzen ahalegindu bazen ere, ez zitzaion ezer ulertzen. Behin eta berriz, mehatxatua izan zela esaten zuen, eta bere malkoek egia zela adierazten zuten.

Bi mutilak logelara igo eta Peiok, galdera hau egin zion Unaxi: ***"Unax, nork mehatxatuko zuen Kate?"***

Maider Bengoetxea Regatos
DBH 2. maila
"Gau eta egun euskaraz bizi nahi dut eta gauza bera egin dezakezu zuk"!

TUTANKAMONEN HILOBIA

EGIPTOKO MISTERIOA – 1922ko apirilak 9

Egipton bada oraindik misterio bat, k.a. 1323 Tutankamon izeneko faraoi bat hil zenean, piramide baten barruan enterratu zuten, eta lapurrek haren altxorra ez lapurtzeko milaka tranpa mortal jarri zituztela esaten da. Baina larriena ez da hori, Tutankamonen hilobia irekitzen duen pertsonari madarikazio bat eroriko zaio eta faraoiaren lekuan jarriko da, beste hau bere tokian jarriz.

- *A ze gezurra! Hau ez dago nork sinetsi! Ze madarikazio eta ze madarikazio ondo!* - Esan zuen Howard Carter arkeologoak haserre egunkariko atal hau irakurri zuenean.
- *Ez dakizu egia edo gezurra den eta ez duzu inoiz jakingo* - Esan zion bere lagunak oso konbentzituta.
-*Ezetz? Ikusiko duzu!*

Honela erabaki zuen Howardek Egiptora joatea eta Tutankamonen hilobia bilatzea. Howard oso arkeologo bitxia zen, berak ongi zekien egiten eta esaten zuena, baina inork ez zion sinesten. Bere ametsa Tutankamonen hilobia aurkitzea eta horrela ospetsu egitea zen, baina inork ez zuen berarengan sinesten, ezta bere lagunek ere.

Eta horrela apirileko goiz argitsu batean Howardek itsasontzi bat hartu eta Ingalaterratik Egiptora joan zen. Itsasontzian oso gaizki pasatu zuen, zorabioak izan baitzituen.

Horrela bost egun igaro zituen, zorabio eta botaka artean. Baina azkenik iritsi zen Egipto handira! Liluraturik gelditu zen, bere lehenengo aldia bai zen Egipton zegoela eta! Itsasontzitik jaitsi eta lehendabizi egin zuen gauza Hotel batera joatea izan zen, hain zegoen nekatuta ez zeukala gogorik ezertarako, hurrengo goizean lanean hastea erabaki zuen, baina ordura arte deskantsatzea erabaki zuen.

Hurrengo goizean Howard Hoteleko jangelara joan zen gosaltzera. Kafe bat eta kruasan bat gosaltzen zegoela, bere ondoan mutil gazte bat eseri zen. Mutilak arkeologo itxura zuen, arropagatik eta zeramatzan tresnengatik. Howard mutilarekin hizketan hasi zen. Mutila Lord Carnarvor deitzen zen eta arkeologoa zen. Hizketan jarraitu zuten biek denbora luzez eta konturatu ziren gauza berdina egitera joan zirela hara. Orduan, Lordek Howardi honela esan zion:
- *Nahi ahal duzu biok batera egitea espedizioa?*

Howard pentsatzen gelditu zen momentu batez, baina gero irribarretsu erantzun zion mutilari:
- *Noski baietz! Inoiz ez dator gaizki beste arkeologo baten laguntza!* -Eta horrela biak batera atera ziren jangelako ate nagusitik.

Kalean zeudela, hilobia bilatzeko modu egokia zein zen pentsatzen zeudela Lordek esan zuen Egiptoko liburutegi zaharrera joan ahal zirela eta agian han zerbait aurkituko zutela, eta hala egin zuten.

Hogei bat minutuan liburutegi barruan zeuden liburu zahar artean murgildurik. Bat batean Howardek zerbait aurkitu zuenaren keinu bat egin zion Lordi eta hau isil isilik bestearengana joan zen.
- *Zer da?* - Galdetu zion mutilak interesaturik.
- *Ez dakit, baina Tutankamon da liburu honen izenburua, seguru zerbait aurkitzen dugula* - Beraz, Howardek liburua ireki eta irakurtzen hasi zen. Ordu batzuk eman zituzten liburu zahar hura irakurtzen eta jada amore emateko gogoa sartu zitzaien, baina bat batean liburuaren atzeko aldean zerbait arraroa ikusi zuten, poster antzerako bat.

Orduan Lordek tira egin eta hara nolako sorpresa hartu zuten biek. Tutankamonen hilobia bilatzeko mapa zen. Mapa hartu, motxilan sartu eta ziztu bizian atera ziren liburutegitik. Kanpoan zirela beraien tripa hotsak entzun zituzten eta gosea asetzeko jatetxe batera joatea erabaki zuten eta bide batez mapa aztertu ahalko zuten.

Bazkaria jaten zeudela, Howard mapa aztertzen hasi zen eta segituan asmatu zuen ze tokitakoa zen, Egiptoko herri eta hiri guztiak zehatz-mehatz aztertuta zituelako.
- *Mapa hau Luxar hiriaren aurrealdean dagoen Erregeen Haranekoa da* - Esan zion bere lagunari.

Biak jarri ziren mapari begira. Bazekiten hilobirako bidea tranpaz josita zegoela eta oso lan zaila izango zela haietan ez erortzea, baina bazuten konfiantza beraiengan eta bazekiten lortuko zutela. Beraz, bazkaria bukatu ondoren, Luxarrerantz abiatu ziren autobus txiki batetan. Erregeen Haranera heldu zirenean mapa motxilatik atera zuten eta beraien planari ekin zioten.

Lehendabizi hilobirako sarrera bilatu zuten. Maparen arabera gurutze itxurako eskultura batean zegoen. Haranaren erdian gurutze bat ikusi zuten eta bertara hurbildu ziren. Han inskripzio arraro batzuk ikusi zituzten eta ez zuten ezer ulertzen hau izan ezik: Neb-jeperu-Ra Tut-anj-Amón. Izen horrekin Tutankamonen hilobirako sarrera izan behar zuen bai edo bai! Baina arazo bat zegoen, ez zekiten nola ireki sarrera. Pentsatzen zeudela, Lord inskripzioen gainean jarri zen eta konturatu gabe ate txiki bat ireki zen bere ondoan. Barrura sartu ziren bitan pentsatu gabe eta bat batean atea danbada batez itxi zen beraien begi bistatik desagertuz! Larritu egin ziren, baina aurrera jarraitzea erabaki zuten. Baina, buelta ematean, beraien aurrean oso gauza arraro eta beldurgarri bat ikusi zuten, argi gorri batzuk beraiengana hurbiltzen zeuden eta oso zarata arraroak entzun zituzten, beldurtuta korrika ihes egin zuten.

Hortik aurrera, dena misterio bat da, ez dakigu zer gertatu zen Howardekin eta Lordekin. Ni ere bi hauek bezala arkeologo bat naiz. Orain dela aste batzuk Howarden eta Lorden desagerpenaren berri eman zidaten eta poliziarekin Egiptora joan nintzen haien bila. Beraien pausoak jarraitzea erabaki nuen eta Tutankamonen hilobia bilatzea beraiek aurkitzeko. Hilobia aurkitu nuen bai, baina Lord eta Howardez arrastorik ere ez. Eta lehen kontatu dudana nola dakidan galdetuko diozue zuen buruari. Bada, hilobiko atetik sartu nintzenean eguneroko bat aurkitu nuen, Howarden egunerokoa eta honek den dena han idatzita zeukan. Jendeak dio arkeologo biak Tutankamonen madarikazioan erori zirela, beste batzuek diote tranpa mortaletan hil zirela, baina nik ez dut hori uste. Nik dakidan bakarra da hilobia aurkitu nuenean momia baino ez zegoela han, ez altxorrik, ez dirurik ez ezer! Eta nire susmoa zera da, bi alproja horiek hilobia aurkitu zutela, eta inori ezer esan gabe aberastasun guztiekin alde egin zutela urrunera! Baina hau guztia misterio bat da eta ez dut inoiz jakingo egia ala gezurra den. Beraz, egin dudan lanarekin pozik egotea besterik ez dut!

Amaia Iruskieta Apraiz
DBH 2. maila
"Merezi dabenengaitik, gora kopak!"

SAHARATIK SAHARARA

Goizean goiz esnatu nintzen egun hartan. Uda hasi berri zegoen, eta nola ez, bidai batekin hastea zen modurik onena. Ez zen bidaia bat gehiago izango, garrantzitsua zen eta horrek ni garrantzitsu sentiarazten ninduen. Hilabete eta erdi igaroko nituen Saharan, bertako premiadun jendea laguntzen. Banekien ez zela bidaia turistiko edo atseden hartzekoa. Lanean arituko nintzen, seguruenik gau eta egun, jo eta ke. Medikua nintzen, eta gaixoak sendatzea zen nire helburua.

Aireportura eraman ninduen amak eta agurtu ondoren hegazkinera igo nintzen. Ordu batzuen ostean heldu nintzen. Amir jauna zain nuen han, mediku burua zen. Nire etxea izango zen kanpamentura eraman ninduen eta han gainerako mediku eta erizain boluntarioak aurkeztu zizkidan. Munduko toki desberdinetakoak ginen denok, New York, Erroma, Sidney, adibidez. Gehienak egun bat baino gehiago zeramaten bertan. Arratsaldean ezagutu nituen herritarrak. Oso jende behartsua zen, oso gutxirekin bizi ziren baina ala ere harrigarriak ziren. Bat batean neskatxo bat hurbildu zitzaidan, sei bat urtekoa esango nuke nik. Zamira zuen izena, ederra zen benetan. Orduan eskutik hartu eta hareatzara atera ninduen eta ezer esan gabe zeruko izarrei begira geratu zen, hipnotizatu egin balute bezala. Egia esan paisai hori ikaragarri ederra zen, inoiz ez nuen huraxe bezain gau ederrik ikusi.

Hurrengo egunak oso gogorrak izan ziren. Emakume haurdun bat gaixotu egin zen eta erditzen zihoala hil egin zen. Umeak bizirik jarraitzen zuen eta ateratzea lortu behar nuen. Sabela zabaldu behar izan nion eta konturatu nintzenerako umetxoa hilda zegoen, amaren gaixotasunaz. Ezin izan nuen irudi hori burutik kendu ezta bizipen hori ahaztu. Soberan nekien gauza krudelak ikusiko nituela.

Horrez gain ez zen bizipen desatzeginena izan. Egun batzuk ondoren kanpamentu aurrean gizon zauritu bat agertu zen laguntza eskatuz. Zutitu egin genuen eta mahai baten jarri genuen. Aztertzera nindoala, alkandora zabaldu nion. Orduan ikusi nuena deskriba ezina zen. Gorputza tiroz betea zuen. Kanpamentu aurrean fusilatu zutela zirudien. Nire begien aurrean hiltzen ikusi nuen bigarren pertsona zen. Horrek nire buruan gorroto jasanezina sortzen zidan.

Gauean lo nengoela Zamira hurbildu zitzaidan eta nirekin sartu zen ohera. Oso gogor eutsi ninduen, ihes egingo nuela pentsatuko balu moduan. Herrixkako jendea lanean zebilen gau eta egun, gizon, emakume eta umeak. Eskolarik ez zutenez Sarak eta nik irakasten genien herriko umeei. Garrantzitsuena irakatsi genien, zenbatzen, irakurtzen eta idazten. Lan atsegina iruditu zitzaidan hura, oso ondo pasatzen nuen Sara eta umeekin. Baina banekien oso azkar bukatzen zirela barre algara eta irribarre horiek. Gaixoak sendatzea lortu genuen eta oso harro sentitzen ginen guztiak, baina hildakoen kopurua askozaz ere handiagoa zen. Ez genituen sendagai ez egoera onenak gure lana behar bezain ondo betetzeko.

Izugarrizko iskanbila sortu zen lo geundela. Etxebizitza bat erre zen eta familia osoa geratu zen egur eta harrien artean. Umetxo batek hanka harrapatuta zuen eta ezin genion atera. Aukera bakarra hanka ebakitzea zen, bestela minaz hilko zen. Zerra eskuetan hartu, umea lotarazi eta hanka ebakitzeari ekin nion. Ez nuen inoiz hainbeste odol ikusi. Hankarekin bukatu nuenean Sarari laguntzen joan nintzen. Emakume nagusi bati laguntzea tokatu zitzaion. Sute guztia itzalitakoan atseden hartzera joan ginen biok. Mutiko batek esnatu ninduen orduan. Hanka ebaki nion mutikoa zen eta begiak zabaltzea lortu baino lehen, eztarritik eutsi ninduen gogor-gogor eta musu gozo bat eman zidan. Nire aurpegian irten zen irribarrearen neurria izugarria zen, ume horren eskerrak zoriontsu egiten ninduen. Herriko emakume nagusienek Sara eta ni kanpamentutik atera eta beraiekin eraman gintuzten. Ez genekien nora gindoazen. Orduan, geratu egin ginen, zapiak kendu zizkiguten begietatik eta kartel erraldoi bat ikusi nuen. “*Mila esker bihotz-bihotzetik*” jartzen zuen. Orduan ume guzti haiek gureganantz abiatu ziren korrika batean eta besarkatu egin gintuzten. Guztien artean hanka ebaki nion mutikoa eta noski, Zamira zeuden. Ilusio handia egin zidan jakiteak, jende hark zenbat eskertzen zuen gure lana. Emakumeek esker moduan beraientzat oso garrantzitsu eta esanguratsua zen “genna” izeneko tatuaia egin ziguten. Izugarri hunkitu gintuen xehetasun horrek.

Sara eta niri hiru egun baino ez zitzaizkigun geratzen herrixkan, etxera bueltatzeko ordua zen. Denbora guzti hartan oso harreman onak egin genituen elkarrekin, baita Zamirarekin. Azken eguna zen. Jende guztia agurtu eta aireportura abiatu nintzen. Ordu batzuen ostean heldu nintzen etxera. Gauero balkoira ateratzen nintzen zerura begira. Momentu horietan nire Saharako egonaldiaz gogoratzen nintzen.

Urte bat geroago… Saharara bidean nengoen. Oraingo honetan aireportutik kanpamentura gamelu gainean nindoan. Iristean, han ikusi nituen Sara eta Zamira. Korrika joan nintzen beraiengana, eta izugarrizko besarkada eman genion elkarri. Gogo handia neukan nire lagun guztiak ikusteko. Konturatu nintzenerako gaua zen. Zerura begira eman nuen hainbat denbora. Harrigarria zen. Izarrak askoz ere ederrago ikusten nituen Saharan nengoenean. Milioika eta milioika zeuden. Zenbatzen hastea zoramen hutsa iruditzen zitzaidan. Agian toki magikoa izango zen. Ez dakit. Edo burua galtzen hasia nintzen. Begira eta begira azkenean lotan geratu nintzen. Ez zegoen modu hobeagorik izarrei begiratzen lotan geratzea baino.

Eñaut Totorikaguena Murgialdai
DBH 2. maila
"Musika bandan aritzea, futbolean ibiltzea eta lagunekin egotea asko gustatzen zait"

LONDRESEKO NORIA

Udako oporrak hasi berriak ziren. Londres hirian beroa sumatu eta uda giroa nabaritzen zen. Turistaz beteta zegoen batik-bat Big Ben ingurua eta Picadilly Center. Kaleak bete beteak zeuden, jendea alai, pozik eta musika joleak non nahi kaleak girotzen. Arthur eta Bryan iritsi berriak ziren. Aspalditik planeatuta zuten bidaia gauzatzeko asmoz. Dena ondo lotuta zuten eta Londreseko bazter guztiak miatuko zituzten goitik behera. Bakoitzak bere bizkarrean motxila galanta zeraman eta apur bat okertuta zihoazen. Bat batean Big Ben inguruan aurkitu ziren. Izugarria zen, ederra, irudietan agertzen zen bezalakoa, baina beraien atentzioa inguruan zegoen noria erraldoirantz desbideratu zen. Bira eta bira, beti erritmo berdina jarraituz. Izugarrizko mundu bola zirudien.

- *Goazen, igo gaitezan, nik buelta bat eman nahi dot. Ziur hor goitik Londres osoa ikusten dala. Bizkor Bryan mugi zaitez!*
- *Orain?* -ihardetsi eban Arthurrek-. *Ezin dogu utzi hori beste egun baterako? Orain izan behar dau derrigorrez? Gaua gainean dugu eta.*
- *Bai, orain edo inoiz ez!*

Han joan ziren biak txartelen bila. Ilara itzela zegoen eta ordu erdi bat bota zuten bertan txartelak eskuratu baino lehen. Hura bai zirrara! Hura bai emozioa! Ezin zituzten begiak noriatik kendu. Txanda bat itxaron eta ondoren kabinara sartu ziren salto eginez. Pixkanaka-pixkanaka gorantz zihoazen, astiro baina etenik gabe. Beraien bihotzak indartsu entzun zitezkeen, arin. Suzko bola baten barruan zeudela zirudien.

Noria bueltaka hasi zen eta Arthurrek zerbait sumatu zuen, nahiz eta zer zen jakin ez.
- *Bryan, ez jatzu iruditzen noria oso arin doala?*
- *Bai, nik ere hori uste dot. Zer gertatuko ete da?*

Noriaren kabinen argiek bat ziren eta argi izpi biribil izugarri bat osatzen zuten. Bi lagunak lurrera erori ziren eta han lepoko misteriotsu bat aurkitu zuten.
- *Zer da hau Arthur?*
- *Ez dakit baina beste mundu batekoa dirudi*

Borobila zen, berde urdin kolorekoa. Mutilak itsututa zeuden eta ezin zioten begirada kendu. Arthurrek lepokoa jarri eta hiru buelta eman zizkion. Beraien aurrean argi zuri bat agertu zen. Ezin zuten begiratzeari utzi, buruak eztanda egingo zien. Bat batean argiak irentsi egin zituen eta irla batean agertu ziren. Irla oihan bat zen, oihan basati bat. Zuhaitz garaiak zeuden, landare zabalak eta erreka gardenak. Airea garbia zen eta arnasten zutenheinean indartsuago sentitzen ziren.

Oraindik zorabiatuta zeuden, zer gertatzen zen ohartu gabe eta aurrean gizaki bitxi bat agertu zitzaien. Gizaki gorputza zuen, ile luzehoria, begi berde handiak eta belarri zorrotz puntadunak. Baina bere gauzarik bitxiena hegoak ziren.Gorputzera itsatsita zeuden, matxinsaltoak bezala eta zabaltzerakoan, ingurua kolorez betetzen zuten. Bere atzean bera bezalako ehunka gizaki agertu ziren.

- *Zuek zarete gure salbatzaileak? Zuek etorri zarete guri laguntzera?*
- *Gu?, Gu? Gu Londres bisitatzen etorri gara.*

Segundo batez, gizakia isilik gelditu zen, etsituta egongo balitz bezala eta berarekin batera atzeko guztiak. Arnasa sakon hartuz indarrak berritu zituen eta bere burua aurkeztu zuen:

- Ni Ikateled naiz. Orain Naved-en zaudete eta zuen laguntza behar dugu. Kondairak dio Idunekoa gure eskuetara dakarrenek eta aztia menderatzen duenak, gure herria salbatuko duela.
- Baina guk ez dakigu ezer.
- Betidanik Dram, gure aztia izan da, idunaren eramailea, baina egun batean iduna desagertu zitzaion eta hortik aurrera gaiztotzen hasi zen (dena bere menpe dago, dena kontrolatzen du eta horrela ezin gara bizi). Lagun iezaguzue! Baina berarekin borrokatzeko ondo prestatu behar duzue.

Hurrengo bi asteetan Ikataledekin aritu ziren entrenatzen. Oihanetik korrika aritzen ziren, igerian, eta makila bezalako lantza luze bat erabiltzen ikasi zuten. Azkenean prest zeuden. Aztia irlaren beste muturrean zegoela esan zien eta orduan Arthur Bryan eta beren lagunak azti maltzurra garaitzera joan ziren.

Aztiak bazekien etorriko zirela. Bi mutilak ikusi zituenean, harrituta gelditu zen eta bere lurraldera sartu zirenean, elkarren arteko borroka hasi zen. Edonondik animalia bitxiak agertu ziren, munstro ikaragarriak. Momentu egokia aurkitu zutenean, Arthurrek eta Brianek eraso egin zuten, beraien lagun berriak atzetik zetozela. Erasoa gogorra eta luzea izan zen, denak lur jota zeuden baina azkenean bi mutikoek aztiaren gaztelura sartzea lortu zuten.

Gaztelua ondo gordeta zegoen, ondo babestuta eta nekez heldu ziren aztiaren gordelekura. Bertan ere gerlariak zeuden eta borrokan hasi ziren:
- *Hil horrek bixek!*- oihukatzen zuen aztiak.

Borroka latz baten ondoren, mutilek aztiaren gudariak garaitu zituzten. Aztia gelditzen zen bakarrik:
- Azkenean, nigana heltzea lortu dozue. Ni nire gerlariak gabe oso ahula naz baina ez dekot bihotzik eta horregaitik ezin nozue hil. Oraindik ez da ni hiltzeko armarik asmatu baina ni menderatzeko aukera bat bakarrik dago: ni garaitzeko hiru enigma asmatu beharko dituzue:

1- *.Nik Dram aztiak diot, nire erlojuak funtzionatzen uzten duenean, mundua amaituko dela.*
- *Ummm!* -pentsakor Arthurrek-*.Erraza da. Eguzki erlojua da eta egia da esaten duzuna. Itzaltzen denean,mundua amaituko da.*
- ZUZENA.

2.*- Zer da goitik eta behetik ileak dituena eta erdian itxi Eta zabaltzen den zirrikitu bat duena.*
- Badakit, erantzun zuen jarraian Bryanek. Begia. Hori da begia.
- ZUZENA.

3.*- Eta azken galdera. Atzo Atxondora nindoala, zazpi atsorekin gurutzatu nintzen. Bakoitzak zazpi zaku zeramatzan eta zaku bakoitzean zazpi ardi. Zenbat atso eta ardi zihoazen Atxondora?*
- Badakigu!- oihukatu zuten aho batez bi mutilek.
- Zein da erantzuna?
- Bat ere ez. Zu izan zinen Atxondora joan zinen bakarra.
- ZUZENA.

Aztia bere onera itzuli zen eta mutilek lepokoa jarri bezain laster, Londreseko norian agertu ziren jiraka. Berriro ikusi zituzten argiak eta Big Ben famatua. Horrenbeste zorabiatu gara? Pentsatu zuten biek.

Mirian Nita
DBH 2. maila
"Saskibaloira jolastea, igeri egin, filmak ikusi, marraztea eta teknologia ditut gustuko "

SENDIA BETI BAT EGINDA

2012ko abenduaren 12a zen. Egun hartan gauza oso arraroak gertatu zitzaizkidan. Adibidez … nire gurasoak ez zeuden eztabaidatzen!

Nire gurasoak orain dela bost urte beti zeuden eztabaidatzen, goiz-goizetik, gaua heldu arte. Inoiz ez ziren ados jartzen gauza bat egin nahi zutenean. Baina, hurrengo egunean, aitak esan zidan nirekin hitz egin nahi zuela. Orduan etxeko egongela txikira joan ginen, bertan patxadaz hitz egiteko.

Egongela txikia esaten diogu, atetik sartzen zarenean, gela erdian mahai txiki bat ikusten da eta, kartetara jolasteko oso aproposa dena. Mahaiaren alboan sofa luze eta txiki bat dago; nik gehienetan, bertan irakurtzen nuen, oso erosoa baitzen. Gainera, beste alde batetik, gela ikusi bezain laster, leiho bakarretik ateratzen den argian arreta jartzen duzu. Nire ustez gelak, poza, lasaitasuna eta bakea adierazten du. Hori kontuan hartuta, lasai-lasai hitz egiten hasi ginen.

Aita, galderak egiten hasi zen; nola nenbilen eskolan eta abar. Nik banekien, galderak egiten bazizkidan, gero gauza txarren bat esango zidala.

Arrazoia nuen, momentu baten isildu zen eta bat-batean esan zidan, ama eta berak dibortziatuko zirela. Orduan ez nuen ezertxo ere esan, eta berehala nire logelara joan nintzen.

Asteak pasa eta gero, nire gurasoak dibortziatuta zeuden eta bi etxetan bizitzen ari nintzen. Aste bat amarekin pasatzen nuen eta beste bat aitarekin. Lehenengo astea amarekin tokatu zitzaidan. Amak etxe berri bat erosi zuen eta aita bestearekin gelditu zen berarena baitzen. Amak erosi zuen etxea oso handia zen, lan garrantzitsu bat zuenez, oso ondo ordaintzen zioten. Etxe berria ikusi nuen lehen egunean oso iluna eta tristea iruditu zitzaidan. Saloi etxearen erdian zegoen kokatuta eta erdian mahai handi bat zuen, egurrezko aulkiak inguruan. Tximinia txiki bat ere zuen. Oso ondo zegoen dekoratuta egongela; koadroa, jorraiak eta abarrekin. Gelak eta sukaldea ere asko gustatu zitzaizkidan. Baina, nire ustez, etxe horri zerbait falta zitzaion, momentu hartan

zen zen ez nekien arren. Aitarekin joan behar nuen astean konturatu nintzen zer falta zitzaion amarenari. Amak erosi zuen etxe hartan ez zeuden ni umetan bizi izan nituen momentuen oroitzapenik eta gainera nire aita ez zegoen bertan. Baina, aitarekin nengoen asteetan ama faltan sumatzen nuen.

Hilabete bat pasa eta gero, nire lagunek gomendatu zidaten nire gurasoak berriro elkartzea. Baina niri ezinezkoa iruditu zitzaidan momentu hartan. Egunak pasatzen joan ziren eta azkenean laguntza eskatu nien lagunei, nire gurasoak elkartzeko plana antolatzeko. Egun guztietan eskola amaitu eta gero gelditzen ginen pentsatzen plan batean. Egun batean ideia bat bururatu zitzaidan eta nire lagunei kontatu bezain laster, plana antolatzen hasi ginen.

Lehenik, nire amari gutun bat idatzi genion ordenagailuz. Gutunean gonbidapen bat zegoen. Lanpostu berri bat eman nahi ziotela, eta otsailaren hamalauan bere erantzuna eman behar zuela. Eta egun hartan jatetxe batean elkartuko zirela erantzuna bertan emateko. Beste alde batetik, aitari beste gutun bat idatzi genion bere lagun min baten partez. Eta lagun horrek gutunean, aitari gonbidatzen zion jatetxe batera, beran hitz egiteko. Gutuna prest eduki bezain laster, bidali genituen. Planaren lehenengo zatia oso ondo irten zen, baina bakarrik falta zen aita eta ama jatetxera joatea. Otsailaren hamalaua heldu zen eta zorionez nire gurasoak gonbidapena onartu zuten eta jatetxera Joan ziren. Jatetxera heldu bezain laster, sarreran ikusi ziren, eta bata besteari galderak egiten hasi ziren. Gero jatetxera sartu ziren eta mahai berdinean zeudela konturatu zirenean, beraiek elkartzeko nik dena antolatu nuela aditu zuten. Orduan, aitak esan zion amari afaltzen gelditzeko, azken batean han zeuden biak eta baina amak ezetz esan zion pixka bat pentsatu eta gero. Momentu horretan konturatu nintzen aitak amari begiratzen ziola denbora guztian eta berehala galdetu nion oraindik ama maite bazuen, baina ez zidan erantzunik eman. Baina nik banekien, bere isiltasunarengatik ama maite zuela. Orduan pentsatu nuen beste aukera bat nuela beraiek elkartzeko. Azken batean aitak oraindik ama maite zuen.

Ni eta nire lagunak eskola amaitu eta gero, ideiak pentsatzen gelditzen ginen. Baina ez zen hain erraza, aurreko planak huts egin baitzuen eta ama ez zelako berriro tranpa berdinean eroriko.

Egunak pasatzen joan ziren eta ez zitzaidan ideiarik bururatzen. Baina egun euritsu batean, etxera nindoala nire lagunekin ordu eta erdi egon eta gero, lagun batekin topo egin nuen. Elkarri gauzak kontatzen hasi ginen, baina ikusi nuenean, berandu zela konturatu nintzen eta nire laguna agurtu eta gero joan egin nintzen. Baina errepide bat pasatzera joan nintzenean istripu bat eduki nuen bizikleta batekin. Orduan, berehala ospitalera eraman ninduten, buruan kolpe oso txar bat hartu nuelako. Poliziak nire amari deitu zion, aste horretan berarekin nengoelako. Ama ospitalera heldu zenean medikoarengana joan zen nitaz galdezka. Medikuak amari azaldu zion zer gertatu zitzaidan, eta kolpe txar batengatik odol asko galdu nuela. Horren ondorioz odola norbaitek eman behar zidala. Ama hori entzundakoan analisiak egitera joan zen, odol berdina bagenuen ikusteko. Ordu batzuk geroago, analisien emaitzak heldu ziren. Amak, odol desberdina genuela ikusi zuenean oso urduri jarri zen baina medikuak lasaitzeko esan zion; beste pertsona batek nire odol berdina izan ahal zuelako. Orduan ama, aitaz gogoratu zen. Berehala mobila hartu zuen eta aitari deitu zion. Aitak gertatutakoa entzun zuenean, ospitalera etorri zen eta analisiak egin zituen. Emaitzak zorionez onak ziren; aitak ni bezalako odola zuen.

Hurrengo egunean hobeto nengoen, nire gurasoak logelara etorri ziren ni ikustera. Orduan aprobetxatu nuen eta mesedez eskatu nien elkarrekin berriro egoteko. Hala ere, amak pentsatuko zuela esan zidan. Bi aste geroago, ni aitarekin nengoen eta bat-batean ama etorri zen. Ama aitarekin hitz egitera joan zen saloi txikira. Geroago etorri zirenean, esan zidaten berriro saiatuko ginela familia bat izaten.

Azkenean, bi etxetan bizitzen jarraitu nuen, baina nire gurasoak nirekin batera. Gainera etxe berriak nire bizitzako epe berriarekin bat egiten hasi zen.

Azken batean, nire gurasoak berriro elkartzeko egin nituen ahaleginak balio izan zuten.

Eneritz Torrontegi
DBH 2. maila
"Animaliak izugarri gustatzen zaizkit,
batez ere zaldiz ibiltzea"

MAMIAREN IRRIFARREA

Ekaina heltzean, Loiuko aireportua barrez, negarrez eta zarataz betetzen da. Saharatik datozen umeak eta eurei itxaroten dauden familien ilusio algarak dira. Batzuk, lehenengo aldiz datoz eta urduri daude, ez dira oso pozik agertzen, Beste batzuen begiek, ordea, dir-dir egiten dute aurreko urteko familiekin bat egiterakoan.

Bertoko familien egoera antzekoa izaten da. Lehenengo aldiz haur bat etxera dakartenak zalantzaz beterik daude: nolakoa izango da? Ondo moldatuko al gara? Gustura egongo ote da gurekin? Elkar ulertuko al gara?. Berriz, "euren umea" itxaroten daudenak pozik agertzen dira, begiak ilusioz beteak, besoak besarkadaz beteak...

.....

Orain dela hiru urte Mamia Mohamed Lamin etorri zen gure etxera, gure bizitzetara. Tindufen dauden kanpamenduetatik heldu zen . Inoiz etxetik irten barik zegoen eta asko kostatu zitzaion basamortua uztea. 9 urte zituen eta neska polita eta alaia zen. Ile luzea eta kiribildua zuen eta bere begi marroiek Saharako hondarraren kolorea zuten. Irrifarre egiten zuenean hortz zuri-zuriak ikusten zitzaizkion, inoiz ikusi gabeko itsasoaren bits zuriaren parekoak.

Oso isila zen Mamia eta gure hizkuntza ez zekienez, oraindik isilago egoten zen. Bere eskolan, Madrasan, erderaz pixka bat ikasten zuen baina oraindik gaztetxoa zenez, ez zekien askorik, berba solte batzuk baino ez. Baina heldu eta egun gutxitara, konfiantza hartzen joan zenean, bere bizitzari buruzko hainbat gauza kontatu zigun.

Tindufeko kanpamenduetako egoera penagarria dela esan zigun. Bizi baldintzak oso gogorrak dira, bero izugarria egiten du, uztailean eta abuztuan 50º egon daitezke eta ez dute urik ez argi indarrik euren etxeetan. Janaria eskasa da eta bertako familiek egunean behin jaten dute. Haima-tan bizi dira, kanpain-denda moduko batzutan. Baina, dagoena denen artean banatzen da.

Uda aurrera zihoan eta gure neskatoa, egunak pasa ahala, gero eta pozago ikusten genuen. Oraindik gogoratzen dut bere harridura sukaldean geundela uraren txorrota zabaldu genuenean, edo komunera joan eta ur ponpa bota genuenean. Botoi bateri eman eta argia izatea ulertezina zen berarentzat.

Dena den, esperientziarik inpaktanteena izan zen lehen aldiz hondartzara joan ginenean. Ezin zuen ulertu horrenbeste ur egotea eta itsasoari begira geratu zen luzaroan. Uretara sartu zenean beldurra izan zuen baina gero ezinezkoa egiten zitzaigun bertatik ateratzea. Urteak pasa ahala, uger egiten ere ikasi zuen.

Bi hilabete horietan, Haimak osasun errebisioa ere egin zuen. Saharako basamortuan bizi diren ume hauek elikadura arazoak izaten dituzte eta, gainera, basamortuko eguzkiaren indarra hain gogorra denez, ikusmen arazoak ere izaten dituzte. Zorionez, ez zuen garrantzi handiko ezer eta bere gurasoek oso pozik hartu zuten notizia, azken finean, gugana bidaltzen dituztenean, batez ere horretarako izaten da, osasuntsuago eta indartsuago bueltatzeko.

Eta horrela, azken hiru urteotan Maima behin eta berriro bueltatu da udan gure etxera. Guretzat esperientzia aberasgarria izan da bera eta bere bizimodua ezagutzea. Badakigu 13 urte betetzen dituenean, oso zaila izango dela berriz ikustea. Seguraski, beste haur bati utzi beharko dio lekua baina gure bihotzetan egongo da.

.....

Eta heldu da berriz ekaina eta hemen gaude , Loiuko aireportuan Mamiaren zain. Gure azkenengo uda izango da. Itxarongelan hainbat familia urduri. Batzuk mila galdera buruan, beste batzuk ezagunak diren haurrak berriz ikusteko gogoarekin.

Badator Mamia, bere irrifarrea ikusten dut.

Janire Iturbe
DBH 2. maila
“ Lagunekin egotea dut gustokoena”

BI BIZITZEN ARTEKO ZUBIA

Azkenean jo zuen txirrin madarikatuak**.** Hainbat ordu segidan ikastolan egon ondoren etxerantz nindoan Ane eta Leirerekin. Lagun minak ginen eta dena konpartitzen genuen. Ane neska isila eta oso argia zen, Leire, berriz, oso berritsua eta ikasketetan kaskarra. Lander, nire neba, gurekin zetorren, amak ez baitzion uzten Bilboko alde zaharra bakarrik zeharkatzen, berarentzat oraindik txikia zen eta (gurasoentzat beti gara txikiak)

Pisu zahar eta txiki batean bizi ginen eta nire neba eta biok logela berdinean geunden. Etxera heldu ginenerako, jada han zegoen ama. Arraroa egin zitzaidan oraindik garbitzaile arropekin ikustea, hoteletik irten baino lehen kentzen baitzituen.

Etxeko giroan zerbait sumatzen zen; ez dakit zelan azaldu baina horrela zen. Ama egongelan zegoen eserita baina ezin nion aurpegia ikusi. Hurbildu nintzenean konturatu nintzen negarrez zegoela. Zer gertatzen zitzaion galdetu nion.
- *Ama, ondo al zaude?*
- *Esaiozu Landerri etortzeko, hitz egin behar dugu eta*.- erantzun zidan.

Lander bere logelan zegoen entrenamendurako poltsa prestatzen. Etortzeko esan nion. Hirurok egongelan egon ginenean zerbait esan behar zigula esan zuen amak.
- *Gaur goizean aitak auto istripua izan du, oso larria izan da eta ez da heldu hospitalera. Anbulantzian zihoala hil da.*

Gure ama ez zen izan gai ezer gehiago esateko, behintzat nik ez nion ulertu. Hori izan zen dena. Aita hil da. Kitto. Akabo. Lur jota geratu ginen. Negarrez. Galdera asko genituen baina amak bakarrik uzteko eskatu zigun eta gure logelara joan ginen. Ane eta Leireri telefonoz deitu nien eta… Zelan diren gauzak! Bazekiten berria. Une horretan ari zitzaien gurasoak kontatzen.

Ez genuen ezer afaldu eta oso arin joan ginen ohera. Hurrengo egunean amak hainbat tramite egin behar izan zituen hiletaren inguruan eta amona etorriko zen etxera

gugaz egotera. Ezin nuen lorik egin eta mila buelta eman nituen. Neure buruari galdetzen nion zergatik gertatu behar zitzaion halakorik gure familiari eta amak kontatutakoari zerbait arraro nabaritzen nion. Zer egiten zuen aitak lan egiten zuen egun batean autoarekin errepide horretan bere taberna etxe ondoan bazegoen? Ezin nuen ulertu.

Hurrengo eguna larunbata zen; ohetik jaiki eta sukaldera joan nintzen. Han zeuden suhiltzaileek autotik ateratako aitaren mobila eta beste gauza batzuk. Ama ez zegoen etxean. Enkargu batzuk egin eta zenbait dokumentu sinatu behar zituen. Eta Lander oraindik lo zegoen. Aitaren segapotoa hartu nuen. Oraindik martxan zegoen. Bi mezu zituen: *"Kaixo Jokin, Santurtziko Santa Eulalia kalean gera gaitezke. Zure zain egongo naiz" eta bigarrena "Ordu erdi daramat zure zain. Etorriko zinela esan zenidan. Tratu bat egin genuen eta betetzen ez baduzu ondorioak izango ditu"*.

Harrituta geratu nintzen. Zer zen hura? Zer ezkutatzen zuen aitak? Zein arazotan zegoen sartuta? Drogak ote ziren? Erotzen hasia nintzen. Aitak ez zeukan zenbakia gordeta eta ezin jakin norena zen.

Bazkal ostean Ane etorri zitzaidan bisita egitera eta aitaren mezuena kontatu nionean, telefono horretara deitu behar genuela esan zidan. Horrela egin nuen eta zenbakia markatu bezain pronto eta nik ezer esateko astirik izan gabe, emakume ahots batek esan zuen:
- *Jokin, non sartu zinen atzo? Zure zain egon ginen Aitor eta biok.*

Ezer esaten utzi baino arinago erantzun nion:
- *Ez naiz Jokin, bere alaba naiz, Malen.*

Hainbat segundotako isilunea tartekatu zen gure artean. Emakumeak esan zidan:
- *Malen, badakit ez nauzula ezagutzen baina… Ondo al dago Jokin?*
- *Ez dakit nor zaren baina, ez, aita ez dago ondo-* erantzun nion-. *Atzo auto istripua izan zuen eta errepidean hil zen.*

Isiltasuna. Ezereza. Hutsa.

- *Malen, gera gaitezke gu biok arratsaldez?-* emakumeak.
- *Ongi da. Non?* – nik erantzun.
- *Santzurtzin bizi naiz, Santa Eulalia kalean. Hor dagoen kafetegian ikus gaitezke. Bostetan.*
- *Nola ezagutuko zaitut?* – erantzuten diot.
- *Zu lasai, nik ezagutzen zaitut. Agur.*
- *Adio.*

Autobusa hartu eta bostak aldera Santurtzira heldu nintzen. Geratutako kalera iritsi nintzenean nire izena entzun nuen eta nire aurrean agertu zen 38 urte inguruko emakume bat. Burua lekutik atera behar zitzaidan. Ez nuen ezer ulertzen. Zertan nenbilen? Akaso arriskutsua izan zitekeen egiten ari nintzena. Zer erlazio zuen emakume horrek nire aitarekin?
- *Kaixo Malen, Lorea naiz eta nolabait esateko zure aitaren bikotekidea.*

Hortik aurrera entzun nuen guztia amets bat bezala gogoratzen dut. Orain dela lau urte ezagutu zuela aita… Aitaren tabernara joaten zela eta han ezagutu zuela… Haurdun geratu zela baina berak ez zekiela beste familia bat zuenik… Horren ondorioz euren harremana apurtu egin zela… Nire neba Aitor deitzen zela eta ia lau urte zituela… Gure aita bere kargu egin zela eta astero bisitatzen zuela….

Alde egin nuen. Ihes egin nuen . Desagertu nahi nuen. Amesgaizto baten barruan nengoen. Nor zen nire aita? Ezagutzen al nuen?. Ezin nuen sinetsi nire aitak hori egitea. Barrutik hutsik sentitzen nintzen.

Autobusa hartu eta etxera bueltatu nintzen. Oso zaila egin zitzaion Landerri anaia berriarena ulertzea. Galdera asko geneukan baina ez zuten erantzunik izango. Uste dut gure amak zerbait bazekiela. Agian hasieratik jakingo zuen baina horrela bazen ez zigun inoiz ezer esan.

Egunak, asteak eta hileak igaro ziren eta azkenean, amak bultzatuta, Aitor ezagutzeko pausua eman genuen eta apurkan-apurkan bizitzak bere lana egin zuen eta elkartu egin gintuen.

Bi bizitzen arteko zubia zeharkatzea oso gogorra izan den arren, aitaren heriotzak batu egin gaitu.

Nerea Zenigaonaindia Narbaiza
DBH 2. maila
"Bizitzaren menpe edo bizitza gure menpe?"

ZORITXARRAREN GILTZA

Mirari 18 urteko neska tolosarra da. Guraso eta ahizpa Maiterekin bizi da. Neska jatorra, alaia, kirolaria eta etxekoekin harreman oso ona duena. Amarekin batez ere oso harreman estua du, gertatzen zaion guztia kontatzen dio.

Baina, azkeneko hiru hilabeteetan, amak Mirari arraro samar ikusten du, urduri dago, umore txarrez eta irribarrea aurpegitik desagertu egin zaio. Ahizparekin ere egunero eztabaidatzen ari da, eta aitari kristorenak esaten dizkio. Denek dakite zerbait gertatzen zaiola, ez da betiko Mirari eta, beraz, erabakitzen dute Mirariren lagun onenari, Zuriñeri, galdetzea ea zer gertatzen zaion, berak seguruenik jakingo duela eta.

Ama erosketak egiten dagoela, Zuriñe ikusten du txakurrarekin paseatzen, eta korrika berarengana joaten da.
- Zuriñe! Itxoin! Galdera bat egin behar dizut!
- Kaixo Itziar! Niri galdera bat? Esan ba!
- Zera … Mirari, azkeneko hiru hilabete hauetan oso arraro dabil, urduri dago, beti dago norbaitekin eztabaidatzen … eta zera, ba pentsatu dut zuk jakingo duzula zer gertatzen zaion, lagunik onenak zarete eta.
- Sentitzen dut Itziar, baina nik hori ezin dizut esan, beraren kontua da, eta enteratzen bada kontatu egin dizudala, nirekin haserretuko da, eta nik hori ez dut nahi.
- Baina Zuriñe, ulertu egin behar duzu, beraren ama naiz eta oso arduratuta nabil, ez dakit zer egin, saiatzen naiz konbentzitzen kontatzeko zer gertatzen den, bera ez dela horrelakoa, baina aurpegi txarra jarri, oihuka ezer ez zaiola gertatzen esan eta joan egiten da. Ni oso txarto nago pasatzen eta horregatik etorri naiz zuregana, jakiteko zer gertatzen zaion eta berari laguntzeko.
- Beno, kontatuko dizut, baina beste egun batean, orain joan beharra dut eta. SMS bat bidaliko dizut jakiteko noiz geratu, non, eta zer ordutan, bai? Beno orain joan beharra daukat, agur!
- Ongi da, agur! Eta eskerrik asko Zuriñe!

Ama lasaiago etxera joaten da. Etxean sartu eta senarra sukaldean egunkaria irakurtzen dagoela ikusten du. Emazteak, Zuriñe ikusi eta berarekin hitz egiten egon dela esaten dio, eta are lasaiago esaten dio laster jakingo duela zer gertatzen zaion alabari. Senarrak ez du ezer ulertzen:
- *Baina zer nahi duzu esan horrekin?*
- *Ba … deituko didala hitz egiteko esan dit Zuriñek.*

Bi ordu pasa ondoren, Zuriñeren SMS bat heltzen zaio.
- *Oraintxe bertan Zuriñeren SMS bat heldu zait.*
- *Eta zer dio?*
- *Bihar goizeko hamarretan Zuri-beltz kafetegian ikusiko garela.*

Gurasoek euren zereginetan igarotzen dute eguna. Hurrengo eguna heltzerakoan ama prestatu eta ordurako kafetegian dago, bertan sartzerakoan, Zuriñe mahai batean ikusi eta berarengana hurbiltzen da:
- *Egun on Itziar, zer nahi duzu hartu?*
- *Egun on Zuriñe, ezer ez eskerrik asko. Urduri nago, beraz, lehenbailehen kontatzea eskertuko nizuke*
- *Zera … ez dakit nola esan. Ez da erraza … Mirarik drogak hartzen dituen susmoa dut. Azkeneko lagunen arteko afarian hartzen ikusi nuen eta, ordutik, ostiral guztietan drogak saltzen diren taberna batetara joaten da. Ez esan berari nik esan dizudanik.*
- *Lasai horregatik Zuriñe, nire susmoak egiaztatu egin dituzu. Eskerrik asko laguntzeagatik. Egongo gara.*

Gau horretan ama Mirariren gelan sartu eta alabarekin solasaldi labur bat izaten du. Alabak isil-isilik entzuten ditu amaren hitzak, eta esaten dion esaldi bat burutik kendu ezinik dago: *"zuk bakarrik duzu zoritxarraren giltza"*. Hitz horiek Mirariri barru-barruraino heldu zaizkio; jakin badaki amak arrazoia duela eta berarentzat onena nahi duela.

Inork ezer esan gabe, Mirari desintoxikazio zentro batean sartzen da eta gurasoak lehengo egunetik gauzak aldatzen ari direla ikusten dute. Alaba berreskuratzen ari dira eta etxeko giroa apurka-apurka hobetzen doa.

Mirarik berriz amari dena kontatzen dio, Maitek eta Mirarik elkarrekin lehen baino denbora gehiago pasatzen dute elkarrekin eta aitarekin joaten da kirola egiten larunbat guztietan.

Gaur egun Mirarik, Euskal Herriko ikastola, ikastetxe, institutu eta unibertsitate guztietan drogari buruzko hitzaldiak ematen ditu, eta hitzaldi guztiak hitz hauekin amaitzen ditu: *"Argi izan ezazue, zuen eskuetan dagoela zoritxarraren giltza"*

Shanna Jane Basterretxea Chertudi
DBH 3. maila
"Burua altxa eta segi beti aurrera bizitzan"

GOGORATZEN ZARA…?

"Aitxitxe", nik beti deitu dizut horrela. Baina orain inoiz gertatuko ez zela pentsatzen genuen gauza bat gertatu ondoren, zuretzako "aitxitxe " hitza, nik bihotzez esaten dizudan hitz hori, zure belarritik sartu eta burura heldutakoan honek ezagutuko ez balu bezala beste belarritik bultzatu du. Jarraian, ezezagun zoro bat banintz bezala begiratu nauzu.

Orduan nire oroitzapen eta pentsamenduetan murgildu naiz udako egun bero hura gogoratuz, ahaztezina. Amaren aurpegia ikusita jakin nuen zerbait zeukala bere barnean lasai egoten uzten ez ziona, egonezin hori sortzen zion zerbait.Ama apur bat lasaitu zenean jesarri eta ama guztiek bezala hitz egiten hasi zen bere hitzak leunduz, nire bizitzatik alde ilunak uxatu nahian: *"Shanna zuk badakizu bizitzan gauza onak eta txarrak pasetan direla ta oin momentuen aitxitxe bizitzako alde txarretik pasetan dabil. Bere ipuin propiuen dau sartunde ta geuk lagundu ein biertzagu bertatik urtetan. Baia trankil egoizez ziurdanik"*

-1-

"Ondiñiko be geugez akordeko da ta, asko maitte gaittulako…" Amak pentsatzen zuen ni ez nintzela konturatzen gertatzen ari zenaz eta dena hitz politekin apaintzen zuen. Baina ni nahiko nagusia nintzen zerbait larria gertatzen zitzaizula jakiteko. Gainera pasa den maiatzean baserrira bisita bat egitera joan nintzenean zerbait arraroa susmatu nuen zure izaeran. Gauzak non jarrita zeuden ahazten zenuen. Zure etxean!!! Hori bai zela arraroa. Horregatik apur bat errudun sentitzen naiz. Agian familiartekoei komentatu izan banie zu orain ez zinateke mundu honetan hain … galduta sentituko. Beraz ama serio-serio hurbildu zitzaidanean banekien zeri buruz hitz egitera zetorren, baina ez nuen ziurtasunez jakin zer gertatzen zitzaizun, amak alzheimer hitza aipatu zuen arte. Ez nuena jakin da une hartan nire munduak 360 graduko bira emango zuenik.

Nire oroitzapenetatik bueltan begiak malkoz bete dira, buruan eta bihotzean ditudan pentsamendu ezkor eta tristeak eraginda. Erraietan min handia sentituz, ia arnas gabe erantzunaren beldur galdetu dizut: *"Ez doztazu ezautzen ala ?"*. Eta zu nire galderagatik harrituta esan didazu: *" Ba … ez"* . Zuk esandako bi hitz horiek, guztira lau letradun bi hitz horiek entzutean, nire burua noraezean geratu da, zer erantzun jakin ezinik.

Momentu honetan nire burutik igarotzen den gauza bakarra zure irudia da, iraganeko oroitzapenetan gordeta. Azken urte hauek galdera ikur handi batez irudikatzen dituzun bitartean, inoiz existituko ez balira bezala.

-2-

Desesperatuta, argazki albumak hartu ditut zuri momentu hunkigarri horiek gogorarazi nahian. Argazkiei begiratzean faltan botatzen ditudan gauza horiek gogoratu ditut; nola biok batera igandero sardinak oliba olioan ogiarekin jaten genituen eta zenbaitetan, zu kortan behiak jezten egoten zinen bitartean, ni baserrian zure zain geratzen nintzen esanez: *"Noiz etorriko da aitxitxe? Amaiketakoa jan bigu ta!*. Zu eta ni traktorean joaten ginenean zenbait lan egin behar zenituelako eta nola bitartean auzokoari sagar bana osten zenizkion, nola baserrian biok txapa ondoan jarritako eserlekuetan eserita telebistan eskupilota ikusten genuen, nola zenbaitetan biok batera esnea poltsetan sartzen genuen, zuk idiak entrenatzen zenituen bitartean ni idiek eramaten zuten gurpil handian esertzen nintzen eta barraka batean nenbilela imajinatzen nuen, nola beti jotzen ninduzun ipurdian eta beti zuri muxuka nenbilenean zuk gurata nazka aurpegia jartzen zenuen esanez: *"Zu sobona ostize zara gero"*, Baina zure begietan beti zegoen niganako maitasunaren dirdira.

Beranduago amona etxean sartu da eta zu berarengana zoaz bi muxu ematera eta faltan botatzen zenuela esan diozu. Orduan nire aurpegian bat – bateko irribarrea irudikatu da, behintzat amona ezagutu duzula jakinda . Hori ikustean amona eta zu nola ezagutu eta maitemindu zineten gogoratu dut. Istorio hori egunean lau aldiz kontatzen zenidalako: Zu Euskal Herritik kanpora joan zinen bere familiarentzako lan egitera eta urte batzuk igarota ezkondu eta

-3-

Bi alaba izan zenituen, gero Euskal Herrira bueltatu zinen betiko hemen geratzeko … eta familia guztiz osatzeko beste bi seme-alaba izan zenituzten. Ez nintzen inoiz aspertzen zure istorioak entzuten. Gainera istorio hori kontatu ostean beti abesten zenidan "Itsasontzi baten" abestia zure ahots grabe baina dultzearekin. Zure abesti gogokoena zen, gaztea zinen garaira gogorarazten zizulako.

Gero hirurak batera aire freskoa hartzeko baserri inguruari buelta bat ematera atera gara, abere guztiei txundituta begiratzen geratzen zara lehen aldiz ikusiko bazenitu bezala. Gero, sagarrondoko sagar bat hartu eta ondo dastatu nahi izango bazenu bezala astiro-astiro egiten diozu haginka. Bukatutakoan landara abiatu zara ahalik eta arinen, bertan etzateko. Zerura begiratuz arnasa sakon hartu duzu belar

usain hori zure sudur hobietatik ondo sartzeko. Momentu hartan konturatu naiz aske eta bakean sentitzen zarela. Ez ospitalean zeunden bezala, preso, kartzela baten barruan bazeunden bezala, bertatik irteteko irrikaz, oihuka, negarrez, … sufritzen inoiz egunsentiko argia berriz ikusteko esperantzak galduta.

Egun guzti hauetan, elkar konpartitzen genituen oroitzapen horiek berreskura ezinak direla konturatzean, gure bizitzako kapitulu horiek itxi eta beti bezala, biok batera, beste kapitulu berri batzuk zabalduko ditugu.

-4-

Hauek dira nire buruan dauden oroitzapen guztiak egun batean zure burutik irten eta haizeak eraman zituenak.

Georgina Cozcu
DBH 3. maila
"Dantzan egitea, lagunekin egotea, irakurtzea eta filmak ikustea.

EGUN BEREZIA

Gelan sartu nintzenean 44 begi zeuden nire mugimendu guztiak aztertzen. Banekien buru haietatik pentsamendu asko sortzen ari zirela. Gauza horien artean seguruenik hauek zeuden: *"Nor da hau? Zer egiten du hemen? Ezaguna dut?"* eta ziur zeunden gehienek hau pentsatuko zutela: *"Falta zena, badator beste bat drogei buruz hitz egitera! Hitzaldi aspergarri bat botatzera dator..."*. Ondo arnastu eta aurrera jarraitu nuen. Haien maistraren ondoan jarri nintzen eta, honek, aurkeztu egin ninduen.

- Ea, ea... isiltasuna mesedez… Hemen dugu Omar Shiran jauna. New Yorketik datorren mediku bat da, baina jatorriz Senegalekoa. Bizitza gogorra izan du eta zuei kontatzeko prest dago. Nik entzunda daukat bere istorioa eta zuek beharbada ere, telebistan eman dute eta. Beno, ni hemen egongo naiz, baina berak emango du klasea eta maisu bezala hartu ezazue. Azkeneko gauza bat: oso inportantea da adi egotea, istorioa oso-oso polita delako eta gainera zuek inspiratzeko balioko du. Omar jaunak euskaraz egingo du, nahiz eta orain dela gutxi ikasi. Orduan, zerbait ulertzen ez baduzue galdetu. Euren arreta duzu!

Maistrak bere aurkezpena amaitu zuenean, nire txanda zen. Nire istorioa kontatu behar nien, baina gustatuko zien? Egia da telebistan kontatu nuela baina 15 urteko umeen aurrean ez... Azkeneko arnas sakona hartu eta hasi egin nintzen:

- Kaixo lagunok! Zuen maistrak esan dizuen bezala Omar Sirhan dut izena. Afrikarra naiz, Senegalekoa konkretuki. Hasi baino lehen, esan behar dizuedana hau da: guztiok momentu txarretatik pasatu ahal garela, baina inoiz ezin dugu esperantza galdu. Bizitza zaila da eta batzuetan espero ez dugunean kolpe bat eman ahal digu, baina ala ere beti aurrera jarraitu behar dugu. Momentu txarrak biziko ditugu, baina horrela momentu onak baloratzen jakingo dugu. Gogoratu beti: "Bizitza opari bat da eta zaindu egin behar dugu!".

- Bai klaru! Ez da hain erraza. Guztia pikutara doanean, esperantza edukitzeak ez digu ezertarako balio.-entzun nuen bat-batean.

Hitz horiek min egin zidaten.

- Nik ere pentsatzen nuen horrela baina bizitzak erakutsi dit inoiz ez gaudela bakarrik. Ez zarete konturatzen? Anaia-arrebak, gurasoak, lagunak, senideak, jainkoa eta beste hainbat pertsona dituzue alboan eta beti-beti izango duzue baten bat zuekin.
- Beno, bai hori egia da... baina hala ere, batzuetan bizitzeko gogorik ez daukazu.
- Ados nago horrekin. Baina bizitzeko arrazoiak beti egongo dira. Eta orain, nire istorioa kontatuko dizuet denboraz justu gaude eta. Lehen esan dizuedanez Senegalekoa naiz. Hango herri baten bizi nintzen nire gurasoekin eta nire 5 anaia eta 6 arrebekin. Etxe txiki batean bizi ginen; 2 gela eta sukalde bat zituen. Ez pentsatu sukaldea oraingoak modukoa zela; kaxa baten gainean platerak eta janaria, haren alboan urez betetako bidoi bat eta sua egiteko makina zahar bat zegoen. Hala ere, inoiz ez nintzen kexatu horretaz. Banekien dirua ez zegoen lekuan pobrezia bakarrik zegoela. Ura hartzeko 10 km egin behar genituen egunero. Gure etxe ondotik ibai txiki-txiki bat pasatzen zen baina ur hori ez zen edangarria. Hantxe bainatu egiten ginen. Txarrena da nik eskolara joan nahi nuela baina eskolara aberatsak bakarrik joaten ziren. Askotan nire gurasoei eskolara joateko eskatu nien eta horregatik baten baino gehiagotan jipoi ederra hartu nuen.

11 urte nituenean nire aita gure herri ondoko hiri batera joan zen lan bila, baina inoiz ez zen bueltatu. Tiroteo batean hil zela kontatu zidan amak, baina nik gezurra zela pentsatu nuen. Hala ere, ez nuen gehiago ikusi.

13 urterekin aitak egiten zituen lan guztiak egin nituen. Gainera nire anai arrebak zaindu behar nituen. Urte horretan 2 anaia eta arreba bat hil egin ziren malariaren erruz. Ezin nuen sinetsi. Momentu horretan nik ere pentsatu nuen bizitza ez zuela merezi eta 3 hile geroago gertatu zenarekin burumakur geratu nintzen: nire ama SIDA izeneko gaixotasun batengatik hil egin zen. Esperantza galduta neukan baina zer egin ahal nuen? Nire gainerako anai-arrebak zaindu behar nituen. Zer egingo zuten nire laguntza gabe? Azkenean nire amonaren etxera joatea erabaki nuen, nik bakarrik, 9 ume zaindu ezin nituelako. Nire amona beste herri batean bizi zen.

Han maitasuna aurkitu nuen lehen aldiz, 17 urterekin. Dhina deitzen zen eta neska izugarri polita zen. Bere aita herriko medikua zen eta horregatik berarekin egotea debekatu zidan. Ez nuen ulertu momentu hartan hori egiteko arrazoiak, baina geroago konturatu nintzen jarrera honetan zenbat diskriminazio zegoen. Eta zuek jakiteko, herrialde azpigaratuetan ere jendea elkarren artean diskriminatzen dela. Gauza da, Dhinarekin egotea debekatu zidatenean eskolara joateko gogoa berriro etorri zitzaidala. Horrela nik ere lan on bat edukiko nuen eta Dhinarekin ezkondu ahal izango nintzen. Baina nire ilusio guztiak desagertu ziren amona hil egin zenean. Orain bai, bakarrik nengoen, 9 ume zaindu behar nituen. Nire arreba txikiena 18 urte eduki arte, hau da, nik 32 urte eduki arte, herri horretan egon nintzen nire familia zaintzen eta egunero behar genuen jana irabazten. Nire anai-arreba gehienek ezkondu eta beste herri batera joan ziren bizitzera urte horietan. Gainera nik maite nuen emakumea 18 urte besterik ez zituenean ezkondu egin zen abokatu batekin. Horrek ikasteko gogoa handitu zidan. Imajinatzen duzue 32 urteko gizon bat idazten eta irakurtzen ez jakitea?

- *Egitan!... Orduan analfabetoa zinen?*
- *Bai. Momentu horretan bai. Egia esaten badizut, nire herrian 3 pertsonek bakarrik zekiten idazten eta irakurtzen. Baina, hala ere, nik pentsatzen nuen zenbat eta gauza gehiago jakin hobe zela. Esan behar dizuet, leku askotan baita nire herrian ere, jendeak pentsatzen du idaztea eta irakurtzea denbora galtze hutsa dela. Orduan analfabetoa izatea normala da. Niretzako hori lotsagarria da!*

35 urterekin itsasoa ikusi nuen lehen aldiz. Gauza magikoa iruditu zitzaidan. Itsasontsi bat hartu eta aukeren herrialdera abiatu nintzen, Estatu Batuetara. Estatu Batuetan lan bila aritu nintzen. Lehenengo diskoak saltzen kaletik, gero taberna batean komunak garbitzen, ondoren fabrika batean eta azkenik... -Drin-Drin-Drin!!- Txirrina jo zuten. Jolasaldiko ordua zen.
- *Ez! Amaitu istorioa mesedez!*
- *Bai! Mesedez...*

Hitz horiek goxoak izan ziren nire belarrientzako.
- Ondo da. Azkenik, eskola bateko patioko zaintzailea izan nintzen. Nahiko diru *aurreztu nuen unibertsitatean medikuntza ikasteko. Lehenengo aldiz, ez ninduten sartzen utzi, nire koloreagaitik. Baina berriro saiatu eta azkenean utzi zidaten. Ezin dizuet hitzen bidez azaldu sentitu nuen poza. Denbora pasata, 48 urterekin nire lehen bizia salbatu nuen. Handik aurrera telebistan agertu nintzen eta mediku "famatua" edo zerbait halakoa bihurtu nintzen. Badakizue zer? Ez dut ulertzen zergatik, nire lana egin nuen, besterik ez.*

50 urterekin nire emaztea aurkitu nuen. Gainera, umezurtz-etxe batean diru laguntzak ematen ditut, nire herrira hilero dirua bidaltzen dut eta sida eta malariaren aurkako organizazio batean nago.

Eta gizartearen onura nahi dudanez, diskriminazioaren aurkako beste organizazio bat sortzen ari naiz eta liburu bat idatziko dut. Guzti hau kontatu ostean erantzun galdera honi, mesedez: "Zer gertatuko zen esperantza galdu izan banu?"
- (Aho batez, denek) *Ez zinen izango momentu honetan zarena.*
- (Batek) *Eskerrik asko klase zoragarri honengaitik.*
- (Beste batek) *Mila esker. Ulertu dut zer den esperantza edukitzea eta zure ametsak betetzen saiatzea.*

Egun berezia izan da gaurkoa…

Beñat Uriarte
DBH 3. maila

““Dirua ez da dena. Daukaguna baloratu behar dugu”

AMILDEGIAREN ERTZEAN

Poliziaren furgonetan sartzen ari naiz, atxilotu egin naute. Kartzelarako bidean nago, bi poliziarekin eta ihes egiteko esperantza gabe.

Furgoneta Volkswagen beltz bat da, Guardia Zibilena eta oso ondo dago blindatuta, ezin dut ihes egin, akabo. Eskuetan bilurrak dauzkat eta polizia kankailua niri begiratzen dago disimulu gabe, aurpegi ilunaz. Bestea aldiz, gidatzen ari da eta gainera abiadura handian, igarri egiten dut inertzia.

Ustekabean, gidariak bat-bateko geldiarazia egin du eta kankailuak zutik jartzeko keinu egin dit, baina nik ez diot jaramonik egin. Orduan, ostiko ederra eman dit saihetsetan eserita nagoela. Berriro keinu egin eta berehala altxatu naiz. Furgonetatik irten eta izugarrizko beroa igarri dut nire masail aldean.Uste dut Espainiako hegoaldeko espetxe bateko sarreran nagoela.

Bi poliziekin batera eraikuntzaren barrura sartu naiz eta kartzela osoa berria dela konturatu naiz. Oso txukun eta argi dago dena, bertako langileak dotore jantzita doaz. Beste gehienak, aldiz, laranja kolorezko arropez eta eskuak katez lotuta ageri dira. Presoak dira nire moduan, haiek ere zerbait gaiztoa eta txarra egingo zuten nik bezala. Poliziek nire kaiolara sartu naute eta polizia bizardunak atea bortitz zarratu du. Aldi berean, kankailuak giltzapean utzi nau. Kaiolan kolore laranjadun arropa hura jarri dut eta orain bai sentitzen naiz benetan preso.

Bi ordu geroago, nire tripa zarataka hasi denean, gizon heldu batek bandeja batean janaria ekarri dit, purea eta arraina. Gizon hark ia aurpegi osoa ilez estalita dauka, baina irribarrea oso ondo islatua eta jatorra dela ematen du. Garaieraz nire altuerakoa da, baina askoz potoloagoa.

Eguna ezkutatu eta gaua agertu denean, oso ondo ikusten da kanpoaldea, argi ugari daukan hiri bat dagoelako. Zeru beltzean ilargia besterik ez dago. Orduan oheratu egin naiz.

Hotelean nengoen, nire gelan eta lapurreta egiteko prest. Oso ondo neukan planifikatuta eta landua. Ez nintzen ni bakarrik izango lapurretan parte hartuko zuena. Lagun bat egin nuen aurreko urtean. Lagun hura Madrildarra zen eta Caja Monetaria de Madrid, CMM-ko langilea zen. Berak lagunduko zidan irabaziaren bostena ematen banion. Julen nire adineko mutila zen eta oso teknologia aurreratuen jabe. Gai zen edozein trastu martxan jarri eta kontrolatzeko. Bere ama oso larri zegoen Bartzelonako ospitale batean eta garestia zen han egotea. Horregatik, Julenek dirua behar zuen, laster, eta gainera, nahiko.

Bera ez dute atxilotu eta ez dute atxilotuko, ez dutelako aurkitu. Ni aldiz, diruz betetako metalezko maletarekin harrapatu ninduten.

Hoteletik irten nintzen, beltzez jantzita gaueko bederatzietan. Motxila marroi bat neraman, barruan 10 metroko soka bat, eskalatzeko tresneria; botila bat ur, egarria kentzeko; pistola bat, badaezpada; eta produktu kimiko batzuk.

CMM-ren aurrean zegoen furgoneta berde batean geratuak ginen. Metroa hartu nuen haraino ailegatzeko eta ez neukalez dirurik ez nuen ordaindu trena. Heldu nintzenean Julenek esan zidan bezala han zegoen furgoneta. Automobilaren atzeko aldera joan nintzen eta atea ireki zidan. Bazekien ni nintzela.

Atea ireki zidanean, barrura sartu nintzen. Harri eta zur geratu nintzen ikusi nuenean hango teknologia guztia. Dena zegoen beteta, erdialdea eta sarrera izan ezik. Teknologoak, mikro bat jarri zidan belarrian eta nola funtzionatzen zuen ere erakutsi zidan. Apartekoa zen traste hura oso txikia iruditu zitzaidan. Oso ondo entzuten zen.

Denbora luze bat egon ginen tramankuluak probatzen eta taktika antolatzen. Nondik joan behar nuen, zer egin behar nuen, nola egin behar nuen, eta nondik ihes egin behar nuen.

Azkenean, “txapa” guztia entzun eta gero furgonetatik irten nintzen, Julenek zorte ona opa zidan. Zeruak beltz ilun kolorea zeukan eta bazter batean zegoen ilargi betea. Oso distiratsu zegoen, harribitxi handi bat bezala.

CMM-ra sartu nintzen eta Julen lehenengo unetik hasi zen aginduak ematen eta ni bere aginduak gauzatzen. Soka hartu, teilatuan engantxatu eta eskalatzeari ekin nion eraikuntzaren atzeko aldetik.

Gora heldu nintzenean, kamara bat ikusi nuen. Kameraren karkasa ireki eta produktu kimikoa bota nion. Bat-batean zirtak atera zitzaizkion eta gero kea. Aurrera jarraitu nuen eta prozesu bera errepikatu nuen beste kamera batekin.

Teilatuaren erdialdean leiho handi bat zegoen. Kristalaren lodiera 3 zentimetrokoa zen eta parte batzuk altzairuz babestuta zeuzkan. Bizkarzorroan neukan leiho-ebakitzailea hartu nuen eta konpas haren punta bentosaduna leihoan itsatsi nuen. Beste aldean, aldiz, punta diamantez bukatzen zen, horregatik buelta batzuk eman eta bentosarekin tiratuz ebaki nuen kristala. Ebaketa biribil-biribila zen eta metro bateko diametroa zeukan. Lehen erabilitako soka berrerabili nuen, oraingoan igotzeko barik, bajatzeko.

Soka, metalezko puntan bukatzen zen eta punta hori hormako arrakala batean sartu nuen; arrakala ugari zeukan eraikuntza zahar hark. Eskalatzaileek ere erabiltzen zuten metodoa zen.

Sokatik behera nindoala, argi gorri batzuk ikusi nituen eta geldiarazi egin nituen. Julenek esan zidan motxilan neukan spray-a hartzeko eta botatzeko inguruan horrela denbora batez desaktibatuko nituen.

Erraza izan zen denak saihestea. Eskaileretan behera joateko agindu zidan Julenek. Bertan segurtasun-neurri handiagoak zeuden. Arinago ikusitako moduko argi gorriak zeuden, baina alde honetan mugitu egiten ziren, eskumatik ezkerrera, goitik behera, ezkerretik eskumara, behetik gora eta diagonalean ere.

Asko igartzen zen zailtasun-maila gora zihoala, baina oraingoan ere gainditu egin nuen. Julenek esan zidan lehenengo eskumara joateko, gero ezkerrera, ondoren berriro ezkerrera eta azkenik eskailerak igotzeko. Agindu guztiak bete nituen.

Gertu nengoen kaxa gotorretik, dirua usain nezakeen. Deskantsatzeko bost minutuko atsedenaldia egin nuen. Ur pixka bat edan eta barrita energetikoa jan nuen. Jaten nengoela urrats batzuk entzun nituen. Apur bat urduri jarri nintzen eta arnasa sakon hartu nuen. Gero eta hurbilago eta bortitzago entzuten nuen pausu hotsa. Alanbre zati bat nuen eskuetan. Bat-batean, nire albotik pasatu zen eta bizkarra eman zidanean arnas gabe utzi nuen eta bazter baten ezkutatu nintzen.

Aurrera jarraitu nuen eta dirua are gehiago usaintzen nuen. Julenek bidea argitu zidan eta berriro ekin nion ibilbideari.

Azkenengo froga gainditzea besterik ez zitzaidan falta kaxa gotorrera heltzeko, baina segurtasunaz arduratzen ziren bi gizon ikusi nituen. Bihotzaren taupadak bizkor-bizkor sentitzen nituen. Arnasa sakon hartu eta motxilatik pistola atera nuen. Pistolarekin zarata egin nuen horman joz. Haietako zaintzaile bat etortzea espero nuen. Eta hala izan zen. Euretako bat hurbildu zitzaidan ea zer gertatzen zen ikustera eta bi tiro eman nizkion bular aldean. Besteak nire tiroak entzutean niregana etorri zen eta ni bere bila joan nintzen. Hamar metroko distantzia zegoen gure artean eta aurrez-aurre geunden. Biok prest geunden tirokatzeko. Nik tirokatu nuen lehenengo, baina ez nion eman eta berak aldiz, izterrean eman zidan. Bigarren tiroan sabelaldean eman nion baina, balen aurkako txalekoa zeramanez, berak egin zuen azken tiroa. Beste hankako izterrean eman zidan .

Pistola lurrera erori zitzaidan, indar gabe geratu nintzelako. Segurtasunekoak ostikada eman zion. Konortea galtzen ari nintzen eta gizonak nire gainera jauzi egin eta eskuak lotu zizkidan bilurrez.

Nire burutik gauza asko pasatu ziren, asko eta arin. Nire begien aurrean zegoen helmuga eta botere guztia, aberatsa izateko amets hura. Dena amildegitik behera jausi zitzaidala hauteman nuen.

Eta orain hemen nago, kaiola zikin honetan, gertatu zitzaidana gogoratzen. Oso aspertuta nago. 16 urte besterik ez zaizkit falta hemendik ateratzeko. Dena diru berde eta mordo harengatik.

Xabier Zarrabeitia De la Fuente
DBH 3. maila
"Futbolera jolastea eta lagunekin egotea dut gustuko"

ARRANTZAN

- *Mikel! Gora! Jada zortziak puntuan dira-eta. Ez dugu egun osoa!* – esan zidan osabak begiak nagiz irekitzen nituen bitartean.

Ez nuen inoiz halako gogoa izan udan goiz jaikitzeko. Baina egun hura apartekoa zen. Nire osabarekin joatekoa nintzen arrantzan lehen aldiz eta oso pozik nengoen, baina baita urduri ere aldi berean.

Atoan jantzi nituen nire praka urdin kuttunak, nire jertse gorri lodia eta beroa eta *Gore-Tex*eko zapata zaharrak. Gosari ederra hartu nuen betiko *Cola-Cao*arekin. Pixka bat atondu eta prest nengoen arraintzarrak nire afarirako harrapatzeko.

Irteteko ginela etxetik, osabak galdetu zidan apur bat arduratuta:
- *Ziur zaude, ezta? Gero ezin izango zara-eta bueltatu gauera arte.*
- *Bai, noski!* – esan nion harro baino harroago joateko gogoz.
- *Ongi da.* – irribarre batez begiratu zidan eta etxetik irten ginen.

Bermeo ez zen oso handia eta orduan erraz eta arin heldu ginen portura. Han sekulako luxuzko itsasontzia ikusi nuen.Yate bat! Izugarria zen: handia, ederra, zuri-zuria, arina, sekulako motorrarekin. Hotel bat zen!

Osabak ikusi nindunean, esan zidan yatearen ezkerrean zegoena zela gurea. Ikusi eta lur jota geratu nintzen. Aurreko itsasontzia altxor bat zen eta gurea, haren aldean, hauts hutsa. Txalupa ziztrin bat baino ez zen: txikia, erdi herdoildua, behealdean goroldioaz, kolore guztia ia galduta, oso zaharra, errez puxka zitekeenetarikoa... Beno, ez dut jarraituko bestela zeuek ere lur jota geratuko zarete-eta.

Isildu barik ekinean, baina azkenean taula kurbatu kaxkar multzo haren gainean joatea beste erremediorik ez genuen izan. Portutik irten bezain laster itsasontzitxoa dilin-dalan zihoa alde batetik bestera eta osabari esan nion beldurturik:

- *Hau segurua da, ezta?*
- *Ez da izango, ba?* – odaiertzerantz begira.
- *Buff...* – nire sustoa ezerezean geratu zen.
- *Baina noizbehinka oreka galtzen du.*
- *Zer?!!* – inoiz izan dudan harridura aurpegi handienaz.
- *Bai, baten zure aitarekin joan nintzenean 100 metrotan bost-sei bider erori ginen.* – inportantziarik eman gabe arraunean jarraitzen zuen.

Ez nuen ezer esan momentu hartan, bost zentzuak galdu nituelako. Momentu hartatik aurrera bidaia guztia nindoan txalupari helduta. Egun osoa pasatu nuen horrela arratsaldeko tragediara arte. Bat-batean osaba arrantzatzen zegoela ekaitz ikaragarria zetorrela nabaritu zuen eta segituan hasi ginen gure indar guztiaz arraun egiten. Une hartan, osabak arrauna eskuan zuela oihuka hasi zitzaidan:

-*Irla hartara joan behar dugu babes bila!! Ezinezkoa litzateke portura heltzea!!*

Nik ez nuen ondo ulertu baina berak esan zidana egin nuen: arraun egin topera irla hartara. Irlara heldu eta ekaitza hasi zenean, ezustean, munduko zorte handienaz, koba bat topatu genuen. Txalupa botata utzi eta korrika egin genuen haitzulora.

Oso kobazulo iluna zen, zabala eta nahiko luzea. Ez genuen iluntasuna baino ezer gehiago ikusten eta gainera oso zikin zegoen lurra. Usain arraroa antzematen zen animalia batzuen gorotzak zeudelako. Nik pentsatu nuen animalia txiki batzuenak zirela ez zirelako oso handiak, baina gero eta gehiago topatu genituen eta azkenean gora begiratu eta... ehunka saguzar zeuden sabaitik zintzilik! Leku hartan egin behar genuen lo gau batez gutxienez, ekaitzak txalupa zapuztuta utziko zuelako, gure super txalupa, gure esperantza bakarra bueltatzeko.

Niri leku hura oso bitxia iruditzen zitzaidan ez saguzarrengatik bakarrik, baita gauean lo egiten geundela oso soinu bitxiak entzuten zirelako ere. Oso leku misteriotsua zen; hain zen sakona ezen ez zegoen modurik jakiteko non zegoen amaiera. Suposatu nuen koba haren bukaeran zerbait aurkituko genuela baina ez nekien zer. Haizpe hura ezkutapenez beteta zegoen.

Leku ilun hartan sartuta pasatu behar izan genuen arratsaldea atertu zuen arte. Jada iluntzen hasia zen eta osabak gorrotoz eta penaz hitz hauek askatu zizkidan nire erantzunaren beldur eskua buruaren atzealdera eramanez :

-*Mikel, zerbait esan behar dizut.* – erdi xuxurlaka.
-*Zer?* – intrigaz erantzun nion notizi on bat zelakoan. Etxera joateko irrikitan nengoen.
-*Zera... txalupa...*
-*Txalupa zer?* – apur bat harrituta.
-*Ba, ez dagoela ondo eta ezingo gara gaur etxera bueltatu eta gaua irlan pasatu beharko dugula.* – hori esan ostean atzerantz bota zuen bere burua.

Nik ezin nuen gehiago eta barruan nuen guztia askatu nuen.

- Zergatik etorri behar izan dut zu bezalako kokolo batekin arrantza egitera!! Ez dakizu ezer arrantzari buruz eta gainera munduko txalupa eskasenaz!! Inozo halakoa!! Joan zaitez popatik hartzera!!

Osabak horrelako erantzun bat espero zuen baina ez hain sumina eta orduan bera ere nirekin haserretu zen.

Ez genion hitz egin elkarri hurrengo egunera arte eta gauean bakoitzak kobazuloaren alde batean egin genuen lo. Oso izututa nengoen leku hura oso beldurgarria zelako: eta iluntasuna eta zikinkeria nagusi ziren. Baina beldurra ez zen kontu bakarra. Haserre ere banengoen eta barruan zerbait nuen: *"Gaiztoa izan zara zure osabarekin eta ez zinateke horrelakoa izan behar berak maite zaituelako eta ez duelako inolako errurik! Barkamena eskatu behar diozu!"*

Hasieran ez nion kasurik egin ahots hari baina han jarraitzen zuen tinko oihuka arreta bila. Azkenean, lo egitea lortu nuen. Ametsetan nengoela sorbalda batean aingeru bat agertu zitzaidan eta bestean deabru bat. Aingerua zeruko izar dirdiratsuena zen, Jainkoa zirudien eta deabrua aldiz, haserrezko suzko bola bat bezalakoa zen. Haiek eta nik elkarrizketa bat izan genuen:

- *Nortzuk zarete zuek?* – galdetu nuen txundituta.
- *Ni deabrua nauzu eta ergel hori, ukiezina, aingerua.* – erantzun zidan deabruak aingerua ironiaz mesprezatuz.
- *Zu isildu zaitez eta ez zaitez sartu inorekin, ez duzulako eskubiderik horretarako!* – ihardetsi zion aingeruak modu onez.
- *Niri ez esan isiltzeko inozo halakoa!* – pazientzia gabe intzirrikatu zion aurpegira.
- *Ez dizut hori esan.* – txilio egin gabe honek aldiz.
- *Ez didazula hori esan?! Ikusiko duzu mengel halakoa! Emango dizudan jipoiarekin...* – bere haserre guztiaz ukabila altxatu zuen.
- *Tira, tira... Zer gertatzen da? Ez zaitezte borrokatu!* – esku hartu nuen azkenean.
- *Konturatu naiz arazo bat duzula zure osabarekin, ez da horrela?* – galdetu zidan aingeruak.
- *Bai... Baina ez da zuen kontua.* – esan nion inportantzia eman gabe.
- *Badakit zer uste duzun eta arrazoi guztiaz. Zure osaba tentel hutsa dela eta ez duela ideiarik ere nola irten irla honetatik.* – konbentzitu nahian.
- *Bai, egia da.* – deabruarekin ados nengoen.
- *Baina zure osabak asko maite zaitu eta bererarekin arrantzan joateko gonbidatu zaitu. Zergatik uste duzu zu gonbidatu zaituela eta ez beste inor? Zu berarentzako bakarra zarelako eta zurekin ondo pasatzen duelako.*

Aingeruak esandakoaz pentsatu nuen apur bat eta egia zela iruditu zitzaidan, bera beti oso eskuzabala zelako nirekin eta nik ordainetan sekulako garrasiak bota nizkion. Oso gaizki sentitu nintzen momentu hartan nire buruarekin eta negarrez hasi nintzen osabari egindako guztiaz damututa.

Deabruak ikusi zuen bere helburua ez betetzeko zorian zegoela eta orduan parte hartu zuen:
- *Hori gezurra da! Aingeru hori oso gezurtia da! Zuk uste duzu osabak hainbeste maitatuko bazintu haserre egongo litzatekeela zurekin? Gainera uste duzu...*

-*Isildu!!* – moztu nion amorruz. – *Hemen gezurti bakarra zu zeu zara, deabru halakoa! Kanpora hemendik!*

Hau esaterakoan begietara begiratu nion eta nire amorrua nabaritu zuenean, desagertu egin zen magia balitz moduan. Orduan aingeruari aitortu nion:
-*Mila esker! Arrazoia zenuen; txarto jokatu dut, txarto. Osabak ez du errurik.*
-*Orain bete zure egitekoa.* – xuxurlatu zidan.
-*Bai.* – erreferatu nion.

Tupustean aingerua desagertu egin zen eta ni iratzarri egin nintzen. Izartzerakoan konturatu nintzen osaba ez zegoela eta bere kamiseta nire gorputzaren gainean jarrita nuela. Orduan pentsatu nuen osabak kamiseta utzi zidala niri gauean, hotz nintzelako. Hori ikusita oraindik pozago joan nintzen osabari eskerrak ematera.

Jada aldenduta zen ekaitza eta gure txalupa moduko bat zegoen, osabak eginda, baina osaba ez zegoen han. Gehiago hurbildu nintzen eta ikaragarrizko urratsak ikusi nituen. Urrats haiek ez ziren osabarenak ia irla erdi betetzen zutelako. Urrats haien bidea jarraitu eta azkenera heldu nintzenean ezkutatu egin nintzen landare batzuen artean. Han ikusi nuen osaba lurrean botata. Hilda zegoen. Negarrez hasi nintzen berriz ere eta zarata batzuk entzun nituen.

Une hartan piztitzar bat zetorren niregana korrika. Sekulako beldurra ematen zuen. Lau buruko herensuge bat zen. Hamabost metroko altuera zuen, bere azala burdina baino gogorragoa, haginak luzeak eta silexa baino zorrotzagoak, hego bakoitza aterpe bat zen... Eraso egin zidan eta ni ikaratuta, sokorruka hasi nintzen.

Gero nire etxeko ohean agertu nintzen garrasika eta jabetu nintzenean isildu egin nintzen. Ordura arteko guztia amets hutsa izan ote zen? Aingeruarena eta deabruarena ere? Buruari bueltak eta bueltak eman nizkion eta horretan nenbilela osabak logelako atea ireki zuen esanez:

- *Zer gertatzen da? Zarataka zabiltza hain goiz?*

Bere aurpegia ikustean ohetik altxa eta besarkada handi bat eman nion. Ez nion ametsari buruz ezer esan baina hurrengo hau bai:
- *Eskerrik asko osaba! Beti izan zara nire osaba kuttunena eta beti izango zara!*
- *Zer egin dut, bada?* – galdetu zion bere buruari- *Nahi al duzu arrantzan joan bihar?*
- *Zergatik ez?*

Beñat Bilbao Landa
DBH 3. maila
"Zure xilborretik haratau mundu bet dau"

BEGIRADA

Kerman naiz eta goizeko sei eta erdiak dira. Izugarrizko hotza dago, ezin naiz hemen geratu lotan, izoztuko naiz-eta bestela. Kalera noa egunero bezala nire karrotxoarekin buelta bat ematera, ea zerbait aurkitzen dudan. 58 urte ditut, amaitu dira nire gaztaroko egun haiek. Amaitu dira nire urrezko urteak. Amaitu dira norbaitek maitatzen ninduen une haiek.

Zaborrontzitik zaborrontzira noa, hara-hona, noraezean. Noizbait, telebista hautsiren bat, neumatiko zaharren bat edo jaberik ez duen bizikletaren bat aurkitu dut gero saltzeko. Baina gaur ez da egon zorterik eta eskean nabil berriz herriko plazan. Egun eguzkitsua da, abenduaren 24a da, txanponen bat lortuko dut agian. Oso gustuko dut nire karteltxoaren atzean eserita nagoela, nire aurretik pasatzen direnei begiratzea, eta amestea. Inoiz bizi ezingo ditudan sentimenduak eta bizipenak amestea. Debalde den gauza bakarra da gaur egun.

-*Mila esker!*- esan diot larruzko beroki erraldoi bat zeraman andre bati. Bost zentimo utzi ez dizkit ba! Lotsagabea! Horrek gehiago bazuen, ziur! Beno, hobe dagoenarekin konformatu.

Amesten hasi naiz. Nolakoa izango litzateke nire bizitza diru gehixeago banu? Duintasunezko etxe bat izango nuke, eta ez oraingo plastikozko txabola zahar hori. Auto bat ere erosiko nuke, deportiboa, urrez tindatutako gurpilekin. Arropa zarpail eta itsusi hauen ordez, elegante-elegante joango nintzateke jantzita, gorbata eta guzti.

- *Gaixoa!*- esan dit orduantxe trajedun gizon batek, ametsetatik atera eta bost euroko billete eder bat utziz. Aurpegian nabaritu diot ez zegoela zoriontsu. Konturatu naiz "el Corte Ingleseko" poltsatzar horien atzean tristura zuela. Beno, beno, diruak ez du inor zoriontsuago egiten. Hobe beste zerbait amestu.

Gaztarora bueltatu nahi nuke agian. Bai. Ez legoke gaizki 30 urte atzera egin eta zer gertatuko den jakinik, egindako akatsik berriro ez egitea. Gogoan ditut oraindik nire erruz galdu nituen lagunak. Ez ditut ahaztu, harroarena egitearren, burutu nituen tontakeriak. Ai! Eta nire bihotzeko Naroa! Nolatan egin nuen egin nuena? Zergatik izan nintzen horren nazkagarria?

24 urte nituen. Garai hartan ez nuen bizarrik, eta gurasoek utzitako diruarekin apartamentu txiki bat nuen. Ia egunero irteten nintzen lagunekin parrandara. Ez zitzaidan etorkizuna axola, egia esan, ez zitzaidan nire burua ezik, beste ezer edo inor axola. Beti errutina berdina nuen, eguerdian jaiki, gosaldu (agian bazkaldu esan beharko nuke), ni bezalako arduragabe batzuekin parrandan ibili, eta gaueko ordu txikietan etxera itzuli lotara. Baina, nire axolagabekeria momentu batean atzean utzi ahal izan nuen Naroa ezagutu nuenean.

Egunero bezala, herriko tabernan nengoen lagunekin, neska koadrila bat ikusi genuenean. Erdi mozkor nengoen, eta lotsarik gabe beraiengana hurbildu nintzen. Neska haietako bat begiz jota nuen. Berarekin hizketan hasi nintzen, hasieran kostatu zitzaion bera baino urte pare bat zaharragoa zen ezezagun bati aurrez aurre zuzentzea, baina, apurka-apurka gaua aurrera joan zen heinean, gusturago geunden elkarrekin. Esan zidan Naroa zuela izena eta unibertsitatean ikasten ari zela. Ile luze beltza zuen, ur jauzia bezala leporaino erortzen zitzaiona, begi marroixkak eta alaiak. Inoiz ikusi nuen pertsonarik ederrena zen. Hizketan aritu ginen hainbat ordutan. Konturatu orduko, taberna itxi behar zuten. Beraz, hurrengo egunerako geratu ginen.

Ahal genuen guztietan irtetzen ginen. Ezagun izatetik lagun izatera pasatu ginen. Konfiantza osoa genuen elkarrengan, maite izateraino. Jada ez nintzen lagunekin hainbeste egoten, nahiago nuen Naroarekin paseatu, zinera joan, edo besterik gabe, berarekin denbora pasa. Nire apartamentua, gure bihurtu zen, nirekin bizitzera etorri baitzen. Aldatu egin nintzen. Alkohola, parranda, arduragabekeria eta lagunak atzean utziz, Naroa zen nire bizitzaren ardatz.

Baina erlazio guztiek gorabeherak dituzte, gureak ere bai. Asko maite nuen Naroa. Gehiegi beharbada. Jeloskor bihurtu nintzen, nirekin ez zegoen bakoitzean estresatu egiten nintzen. Behar ez nituen eta gertatzen ez ziren gauzak imajinatzen nituen. Beste mutil batekin egongo zela bezalakoak. Bueltatzen zen bakoitzean, galdera zaparrada bat botatzen nion: *"norekin?" "zertan?" "zergatik?" "zenbat denbora?"*… Gero musu artean barkamena eskatzen nion, inozoa izan nintzela esanez. Baina berriz egiten nuen. Eta berriz, eta berriz, eta berriz… Bere lagunak niri buruz gaizkiesaka entzun nituen behin. Oso haserre nengoen, ez nintzen nire buruaren jabe. Orduan, egin behar ez nuena egin nuen, mozkortu egin nintzen.

Etxera itzuli nintzenean, Naroa itxaroten nuen. Izugarrizkoak bota nizkion, pozoindutako hitzek, negarra eragin zioten. Nire bizitza aldatuko zuen gauza bat egin nuen orduan, zaplazteko bat eman nion. Ez dakit alkoholarengatik, emozioagatik edo nazkagarri bat naizelako edo nintzelako egin nuen. Ez dut inoiz ere ahaztuko bota zidan

begirada hura. Ez zuen haserrea adierazten, gorrotoa ere ez. Uste dut pena ematen niola. Pena ematen niola, bazekielako ez nintzela horren mutil gaiztoa eta txarra, inozo xamarra izan arren. Zaplaztekoaren ostean, buelta eman eta koldarren modura ihes egin nuen. Hurrengo goizean, etxera joan nintzenean, ez zegoen Naroaren arrastorik. Bere gauza guztiak eraman zituen jada.

Malkoak isuri eta isuri egiten nituen etengabe. Nire penak alkoholetan utzi nahi nituen. Ez nintzen etxetik irteten. Beldur nintzen. Beldur nintzen geroaz, beldur iraganaz eta beldur nire buruaz. Ez ote nuen berriz beste deabrukeriaren bat egingo. Mutil alai eta jatorra, mutil hotz eta isila zen orain. Nire gurasoek, jada, ez zuten niri dirurik emateko beste eta etxetik joan behar izan nuen. Gazte nintzela parrandan xahututako dirua ezin zen itzuli. Lagunen etxetik etxera nenbilen, hauek ere bizkarra eman zidaten arte. Familia bat osatu nahi zutelako etxetik botatzen ninduten. Banan-banan maite ninduten guztiek alde egin zuten nire bizitzatik. Lehenengo lagunen egoskorkeria, gero nire gurasoen heriotza… Ematen zuen inori ez niola axola, edo agian hala zen. Hainbeste denbora pasa da garai haietatik. Baina ni ez naiz ia aldatu. Herritik joan nintzenetik, nik neuk egindako txabola nimiño batean bizi naiz. Bakarrik, alkohola besterik ez dut lagun.

Eta hementxe nago. Abenduaren 24a da, egun eguzkitsua eta eskean nabil norbaitek zerbait emango didan zain. Besterik ezin dut egin, besterik ez dakit egiten. Lortu dut diru apur bat, nire buruari opari bat egingo diota aspaldi da-eta nire etxera ez dela Olentzero etortzen. Hotz dago, baina dendak zabalik daude oraindik. Zer eros dezaket? Turroi zati bat agian? Gaileta batzuk?
- *Kerman…* - entzun dut atzean.

Buelta eman eta ile zuria duen andre bat ikusi dut. Baina bere begi marroixka horiek ezin ditut ezagutu. Ez dakit zer esan, zurbil-zurbil nagoela nabaritzen dut. Edozer da ezer ez baino hobe.
- *Sentitzen dut.*

Nire barrua hustu dut. Edanez bota ezin izan dudan min eta ezinegon guztia kanporatu dut. Badakit honek ez duela ezer aldatuko. Berak ni barkatzea baino, nik nire burua barkatzea izan da zailena. Inoiz eskatu ezin izan nion barkamen hori izan da.
- *Barkatzen dizut*

Nahikoa izan da hori niretzat. Agur huts bat eta alde egin dugu. Ez daukagu beste ezer esateko. Lau hitzek hizketaldi oso batek baino gehiago esan dezakete. Begirada batekin dena uler dezakezu. Hobeto sentitzen naiz.

Kerman naiz, inork existitzen den ere ez dakien gizon gizagaixoa. Eskean nagoela amek beraien semeei “ez begiratu!” esaten dioten hori. Munduak eta gizarteak ahaztua duten horietako bat. Baina guztia nire errua da; zaplazteko hori eman izan ez banio. Askotan amets egin dut lotan nagoela une horretan beste zerbait egin izan banu non egongo nintzatekeen orain; begirada hura bota izan ez balit nolakoa izango nintzatekeen pentsatzen, eta gero erreala ez dela ohartzean, malko bat irteten zait. Barkatu didan arren, badakit jaso dudan hau merezia dudala, baina aitortzen dut ez dudala horrelakorik berriz egingo. Inoiz ere ez.

Naia Ying Larrinaga
DBH 4. maila
“Saskibaloian jolastea gustatzen zait”

NIRE AITONAREN ISTORIOA

Hileko azken igandea zen eta beti bezala aitonaren etxera joatea tokatzen zen. Bertara joateko arropa beroak jantzi genituen familia osoak, beheko sua egongela bakarrik berotzeko gai zen. Amak amona Karmenek egindako bufanda lodia eramaten zuen beti: Oso itsusia izan arren, bertara joateko egokia zela esaten zidan beti, amonak maitasun osoz egiten zituelako.

Hainbeste gorroto nuen atera hurbildu bezain laster hartzen zen ke eta egur-erre usaina. Beste igande aspergarri baten hasiera esan nahi zuen hark. Betiko galdera berdinak eta elkarrizketa berdinak egiten ziren igandero: zenbat hasi zaren!, nola doakizu neskekin?, zer ikasi nahi duzu unibertsitatera zoazenean?… (nahiz eta ezer ikasteko esperantzarik ez izan, banekien aitonarentzat unibertsitatea oso garrantzitsua zela; beraz, igandero zerbait desberdina esaten nion). Lehenengo ordu aspergarria izaten zen hura, bigarren ordu aspergarria bazkaria zen. Gainera nik batu eta garbitu behar izaten nituen plater guztiak, amak aitona zaharrari lagundu behar niola esaten zidalako baina berak aise egiten zien ihes arreba txikia negarrez entzun zuela esanez. Zorionez, arratsaldeetan telebista nirea zen. Beste guztiek siesta botatzen zuten bitartean inork ez zidan zer egin esaten.

Anuntzioetan Aitonaren etxetik ibiltzea erabaki nuen. Amona hil zenetik etxe hura abandonatuta zegoela zirudien; lorategia sasiz eta asunez beterik zegoen eta etxeko altzairu gehienak hautsak janda zeuden, urteetan garbitu gabe egongo balira bezala. Halako batean aitona aurkitu nuen bere logelan argazki bati begira. Isilean hurbildu nintzaion bera konturatu gabe argazkikoa zer zen ikusteko gai izan nintzen arte. Bat batean aitonak atzera begiratu eta harrapatu egin ninduen, baina nik ere harrapatu nuen bera argazki horri begira. Argazki zahar bat zen, beltz eta zurizkoa, aitona gaztetan eta beste neskato bat ageri ziren bertan, hogei urte inguru izango zituztela pentsatu nuen gutxi gorabehera. Hasieran amona zela pentsatu nuen baina konturatu nintzen argazkiko neskak ile horia zeukala eta amonak ordea gaztaina kolorekoa izan zuen betidanik,

kantzerragatik burusoil geratu arte behintzat. Aitonak, horretaz konturatu nintzela nabaritu eta nor zen aitortu zidan nire isiltasunaren ordez. Bere ondoan eseri nintzen aitormena entzuten; bere maitearen benetako istorioa kontatu zidan arratsalde hartan, amona ez zen batena.

Aitona Gernika inguruko herrixka batean jaio zen 1939an eta Peio izena jarri zioten. Zazpi anaietatik hirugarrena izan zen, denetan bizkorrena. Gerra zibilaren amaiera zen eta beste familia askotan bezala ekonomia krisia zegoen Peiorenean ere. Handik hogeita bi urtera, jainkoak laguntza bat bidali izan balie bezala, aitak bi neskato ekarri zituen etxera udaberri-uda inguruan. Ahizpak ziren, Bartzelonako familia aberats batetik etorriak euskara ikastera. Karmen deitzen zen nagusia, Peioren adinekoa. Bere hanka luze eta ezpain gorriekin atzetik zeramatzan herriko gazte gehienak. Gazteenak Angela zuen izena eta hamasei urte zituen baina nagusiagoa zela zirudienez hamazortzi zituela esan zien guztiei. Bere ile horiaz eta graziaz maitemindu zen Peio lehenengo egunetik, baita Karmen ere Peiotaz. Neskato bi haien etorrera herriko albisterik garrantzitsuena eta hitzartuena izan zen egun haietan. Taberna, ile apaindegi, eskola edo etxe guztietan komentatzen zen neska eder bi haietaz, baita zazpi anaien borroka posibleetaz neskaren bat lortzeko asmoz.

Lehenengo astean dena oso arraroa zen, bainugela, logela eta egongela konpartitu behar zuten zazpi anaiek eta bi atzerritarrek. Aitak neskentzat eta mutilentzat ordutegia antolatu zuen komunera joateko, baita logelan arropak aldatzeko ere, bada ezpada. Ordurarte betidanik izan zen mutilen etxea eta neska haien etorrerak anaien ohiturak aldatu zituen, sarriago dutxatzea, gela txukunago uztea edota portaera egokiagoa izatea gehienez. Bigarren egunetik aurrera baserriko bizitza erakusten hasi ziren bi neskei. Hasieran ohituretara eta ordutegira moldatzea kosta zitzaien, baina laster hasi ziren herriko giro berdinera mugitzen.

Goiz batean, azokara joan ziren Peio eta Angela, herria eta jendea nolakoak ziren erakustera. Tomate, piper eta letxuga artean zeudenean, bat-batean Angelak eskua eman zion Peiori. Dendak ikusten zebiltzan bitartean haietako batera sartu eta Angelak praka, alkandora eta zapata berri batzuk erosi zizkion. Ordaintzen zebilela diru zorroan bere NAN txartela irakurri zuen. Izena: Angela Marti Ferrer, jaiotza data: 1945-7-19. Hau da, hamasei urte zituen. Etxera heltzean, bazkaldu baino lehen eskuak garbitzen zituzten bitartean, Angelak Peiogatik zerbait sentitzen zuela aitortu zion. Peiok ez zuen jakin zer esan eta mahaira joan ziren ezer gertatuko ez balitz bezala. Gau hartan, denak lo zeudela Angela Peioren ohean sartu eta bere aitormenaren erantzuna eskatu zion baina Peiok loarena egin zuen. Ez zekien zer egin, ume bat izango balitz bezala ikusten zuen bat batean; bere anaia txikiak ere hamasei urte egingo zituen, berataz maitemindu beharko litzateke, ez sei urte gehiago dituen batez. Gau osoa bota zuen lo egin ezinik Angelataz pentsatzen. Agian ez zen hain gaztea ere. Hamazortzi urte zituela esan eta denek sinestu zioten. Ez zuen jendeak pentsatuko zuenaz kezkatu behar. Agian bere errua zen Angelak bere sentimenduak aitortzea; lo egiten zuenean, edo hala zirudienean aurpegira minutu luzeetan begiratzeagatik, azokan denbora gehiegi eskutik eutsita ibiltzeagatik, nahi gabe egunero bere gorputza goitik behera aztertzeagatik… Hori pentsaturik, berak ere sentimendu nahaste bat sentitzen zuen sabelean. Maitasuna, beldurra edo zer, ez zekien seguru, baina zerbait bizia zela ziur zegoen. Hurrengo egunak izan ziren arraroenak. Ez zekien zer egin, biak bakarrik geratzen ziren bakoitzean isilune luze bat sortzen zen beraien artean. Baina txarrena etortzeko zegoen oraindik.

Peiok ez zekien nori ez nola kontatu Angelarekin gertatzen zitzaiona, beraz beste neska batekin hitz egitea izango zela onena erabaki eta Karmeni aholkua eskatzea pentsatu zuen, nor hobe bere ahizpa baino. Aitonak esan zidan bezala, “emakumeak ulertzea ezinezkoa da”. Arratsalde batean Karmeni angulak nola harrapatzen ziren erakustera joan nahi zuela esan eta biak Gernika inguruko baserrietatik irtenda zuhaitz arteetan murgildu ziren. Zoritxarrez, Karmenek gauzak txarto interpretatu zituen, Peio urduri egotea, irteerari buruz gezurra esatea, biak bakarrik joan nahi izana... Horregatik Peiok ezer esan gabe, musu luze bat eman zion ezpainetan. Peiok ez zekien zer egin, beldurra ematen zion berari buruz ez zuela ezer sentitzen esateak. Horregatik Karmenek erlazio baten hasiera zela pentsatu zuen, momentu hartatik aurrera mundu guztia enteratu zen gertatu zenaz, baita Angela ere. Peio benetan Karmenen laguna besterik izan nahi ez zuela azaltzen saiatu zen Angelari, baita Karmeni ere, arratsalde hartan gertatu zena gaizki ulertze bat besterik izan ez zela esanez. Baina ez batak ez besteak ez zioten kasurik egiten, beraien sentimenduetan itsuturik zeuden, gauza gehiegi zituzten amankomunean.

Egoera hartan ikusirik, Peiok soluzio bakarra ikusten zuen. Bere intentzioak hitzekin barik ekintzekin erakutsi behar zituen. Egun batean, biekin batera geratu zen etxe atzeko erreka ondoan inork ikus ez zitzan. Angelak bost minutu arinago heldu behar zuen. Peio geratutako orduan baino goizago joan zen, pentsatuta zeukan plana errepasatzeko. Angelari esango zion berak ere bihotzez maite zuela, eta honi ezer ez esateko denbora eman baino lehen musu emango zion. Hau dena bost minututan. Orduan, Karmen helduko zen Angela konturatu gabe eta bien arteko musua ikusita egiaz konturatu beharko zen. Ordua iritsi zenean, plana jarraitu eta denak ondo irten zuela zirudien. Angelarekin zegoen irteten eta Karmenek ez zuen istilurik sortu, ezta ezer esan ere ez.

Handik aste gutxitara herriko jaiak heldu ziren. Oraindik ere herritar guztiek Bartzelonako neskei buruz egiten zuten berba eta trapu zahar guztiak irten ziren agerira egun haietan. Herriko biztanle guztiek ikusi edo parte hartu zuten hiru jai egunetan pilota txapelketan, herri-kirolen lehiaketan edo ekintzen batean. Arratsaldeetan erromeria izaten zen eta dantza taldekoek trikitixak aprobetxatuz urtean zehar ikasitako dantzak egiten zituzten, mutikoek eta gizonek ordea neskak eta emakumekoak dantzatzera ateratzeko. Peiok momentu hau erabili zuen Angela dantzatzera ateratzeko. Une horretan jendeak Karmenekin utzi zuela argi ikusi zuen; bere ahizpa txikiarekin joatea nahiago zuela. Asteko berri nagusia izango zen hura, Peio heldugabe fama hartzen hasi zen. Momentu hartan Peiori ez zion asko inporta jendeak esaten zuena, eman beharreko pausoa emanda zeukan jada eta ez zen ezertaz damutzen. Gau hartan dantza eta dantza artean botila gehiegi edan zituzten eta azkenean mozkor-mozkor amaitu zuten biek. Hemendik aurrera gertatu zena amonak kontatu zion aitonari, benetan inoiz ez da gogoratu izan gertatu zenaz. Antza denez negarrez joan zitzaion Karmenengana, Angela musukatzea bere bizitzako akatsik larriena eta tontoena izan zela esanez eta berarekin bizi nahi zuela betirako, familia berri bat sortu eta etxe txiki bat erosi. Peioren egoera ikusiz biak etxera bueltatu ziren. Goizeko seietan esnatu zen Karmen ondoan zuela, ohe berean, biak erdi biluzik zeuden eta ez zekien zer gertatu zen. Etxeko ate zaharraren golpeak esnatu zuen; Angela eta hiru anai ziren festatik itzultzen. Korrika bizian, edozein pijama jantzi, beste ohe huts batean sartu eta loarena egin zuen. Lehenengo anaiak sartu ziren logelara, zeharo mozkorturik. Angela komunean zegoela entzun zuen, nesken gauzak egiten zela suposatu zuen baina handik

minutu batzuetara botaka zebilela iruditu zitzaion. Ohetik irten eta laguntza eskaintzera zihoanean Karmen aurreratu zitzaion. Kamisoi bat jartzen lagundu zion, gainean zeramanarekin ez zekielako non zegoen ere. Momentu hartan ikusi zuen lehenengo aldiz Angela biluzik. Une zoragarria litzateke Karmenek Peiorekin ohea konpartitu zuela esan ez balio.

Hurrengo goizean, edo eguerdi aldera ezer gertatu ez balitz bezala jokatu zuen baina arazo gehiago etortzeko ziren. Angela haserre bizian zuen eta ez zion hitzik ere esaten. Hilabete oso bat igaro zuten ezer esan gabe. Karmenek Peio berreskuratuta zuen eta, gainera, hilabete bat igaro eta ez zitzaion hilekoa jaitsi. Hasieran ez zion inori esan Peiori izan ezik eta ezkutuan medikuarengana joan ziren haurdun zegoen jakiteko. Lau asteko haurdunaldia zeukan eta gurasoei kontatu behar zien. Horrek mundu guztiak ere jakitea eragin zuen. Angelarekin itzultzea momentu hartan ezinezkoa litzateke, baita atzera egitea ere. Barkamena eskatu nahi zion Angelari, mozkortuta zegoela gertatu zela dena eta ez zela ezertaz gogoratzen. Hala ere, Baltzelonara bueltatu zen handik bi egunetara. Karmenek Peiorekin ezkondu nahi zuen eta gurasoak zoriontsu zeuden horregatik. Karmenen gurasoekin hitzartu zuten ezkontza eta handik hilabete batera herriko elizan ezkondu ziren. Gertaera honekin udako bikote famatuena bihurtu ziren Peio eta Karmen eta ezkontzara ia ehun pertsona joan ziren, baina haien artean ez zegoen Angela.

Eztei bidaiatik itzuli zirenean Angelari barkamen gutun bat bidali zion Bartzelonako etxera, inoiz ez zela berataz ahaztuko azaltzen zion, baita asko maite zuela ere. Handik zazpi-zortzi hilabetera jaio zen semea eta Angel izena jartzea erabaki zuten. Karmenek gutxienez beste bi seme-alaba nahi zituen, baina Peiok beste bost urte itxaronarazi zion Angelaren erantzuna itxaroten, baina hau ez zen inoiz heldu. Beste bi alaba eta hiru seme izan zituzten eta denborarekin Karmen maitatzen ikasi zuen. Karmenek 51 urte zituenean kantzerra zuela esan zien medikuek eta handik bost urtera hil zen. Funeralaren ondoren Karmenen gauzak batzen zebilela poltsa batean sobre bat aurkitu zuen. Barruan begiratu eta Angelaren erantzun gutuna aurkitu zuen, bien argazkiarekin batera. Gutuna Peiorena baino hilabete beranduago idatzia zegoen, baina heldu zenean Karmenek ezkutatu egingo zuen. Benetan maite bazuen, Bartzelonara ihes egiteko eta berarekin bizitzeko eskatzen zion. Hori eginez gero, barkatu eta beste aukera bat emango zion.

Gutun hori ez irakurtzeagatik aitona gaixoak bizitza osoa emakume okerrarekin bizi izan zuen. Istorio hau kontatu eta gero aho zabalik geratu nintzen, neska bi aitonaren atzetik ibiltzea ezinezkoa zela pentsatzen nuen. Aitonak oraindik ere Angela maite zuen ezkutuan. Beraz, ideia bat izan nuen. Niri esker aitonak benetan maite duen emakumearekin pasatuko ditu bizitzako azken urteak, gainera nik ere beste neska bat ezagutu nuen. Asteburua heldu zenean Bartzelonarako tren billete bi erosi genituen aitonak eta biok eta suerte apur batekin Angela aurkituko genuen. Zorionez etxe berdinean bizi zen umetatik, gurasoek pisua berari utzi baitzioten. “Gracia” kalera, Angelaren etxea zegoenera heltzeko herritar batzuei galdetu genien ea nola heltzen zen. Hiru lau aldiz galdu eta gero ailegatu ginen. Pisuko tinbrea jo eta nortzuk ginen esanda etxera sartzen utzi gintuen. Sarreran aurkitu genuen Angela Marti Ferrer andrea zegoen, baina ez bakarrik. Berak ere beste familia bat sortu zuen, Peiori itxaroten zebilen bitartean. Bertan zeuden haietako batzuk, ez dut oso ondo gogoratzen nortzuk, baina ziur nago bere biloba inoiz ikusi izan dudan neska ederrena dela. Angela, nortzuk ginen azaldu eta gero, aitonarekin joan zen buelta bat ematera. Kontu asko izango zituzten

konpartitzeko eta galdutako denbora gehiegi berreskuratzeko. Bitartean ni ezezagun artean utzi ninduten, benetan familiakoak ginela esanda, baina ez zidan asko axola, horri esker ezagutu bainuen Anna. Berarekin pasatu nuen goiz osoa eta lagun min bihurtu ginen. Gure arteko adiskidetasuna gero eta gogorragoa zen eta maitemindu egin ginen. Urte bereko Gabonetan aitona Bartzelonara joan zen amona Angelarekin (nik bakarrik deitzen nion horrela) betirako bizitzeko. Nik, bidaia hori aprobetxatu eta Annarekin berriz elkartu nintzen. Inoizko Gabonik onenak pasatu nituen bertan.

Aitona hil zenean amonak ere ez zuen askoz gehiago iraun eta bere etxea utzi zigun. Egun Annarekin ezkondurik nago eta bi urteko alaba dugu, Angela izenekoa, amonaren ohorez.

Amaia Dean Galarza
DBH 4. maila

"Bizitzaren errekan aurrera egiten, arinago edo astiroago, baina etenik gabe, beti aurrera inoiz ez atzera"

IHESIK GABE

Arin! Pausu bat bestearen atzetik gero eta arinago. Ihes egin eta zure benetako izaera ezkutatu. Beti berdina egiten duzu, Lagunak zuk eraikitako horma baten atzetik ikusten dituzu. Baina maskara hori azkenean apurtu egin da eta benetan nolakoa zaren denen aurrean erakutsi duzu. Orain zure arazoak atzean uzteko korrika egiten ari zara. Ez dakizu jarraitu egingo dizutela, horrela ez zarela beraietaz libratuko.

Ez dakizu nora zoazen, norbaitek edo zerbaitek gidatuko bazintu bezala zure gorputza aurrera doa, beti aurrera, inoiz ez duzu atzera begiratzen, bertan geratu zaren arren, besteengandik desberdina izateak bakardade eta min hau ekarri dizun momentuan. Bidean parke bat zeharkatzen duzu, eta bertako soinuak kristal baten atzean egongo bazina moduan entzuten dituzu. Lau ume barre algaraka, hiru txirristatik botatzen, bi bata bestearen atzetik korrika eta baten soinu eza.

Hau guztia gehiegi maitatzeagatik gertatu zaizu, pertsona okerra gehiegi maitatzeagatik. Beti buruan daukazu, Bere ilea, begiak, sudurra, ezpainak, gorputza, ahotsa, mugitzeko era … aurrean bazenu bezala ikusten duzu. Behin eta berriz berarekin amestu duzu, batzuetan oso amets politak, biak eskutik helduta hondartzatik ibiltzen, lasai, presarik gabe, ezer esan gabe, batak bestearen eskuarekin konforme, eta irribarre banarekin aurpegian. Beste batzuetan desioz betetako ametsak izaten dira. Hauetan gorputz guztia sentitzen duzu, usaina, bi azalen arteko laztanak, zure ahotik irteten diren kexu txikiak. Bere eskuekin zu ukitzen zaitu, ez beste inor, zu zeu. Baina gertatu dena ez zaizu inoiz gertatu, ezta izandako amesgaizto txarrenean ere. Nazka ematen diozu, berarekin maiteminduta egoteagatik, nazka ematen diozu, pentsatzen duzunagatik, nazka ematen diozu, musu bat emateagatik … Nazka ematen diozu.

Bakardadea, Mina, Gorrotoa, Maitasuna, Mesprezua … Denak zure buruan bueltak ematen, izugarrizko buruko mina eragiten dizuten ahala, hankak ezin dute

gehiago eta gorputzak atsedena eskatzen dizu, baina zure arazoak atzetik datoz, eta ezin zara gelditu, inoiz ere ez, beti aurrera, masailetatik malko beroak gero eta hotzagoak bilakatzen diren ahala irristatzen sentitzen dituzun bitartean, negarrez ari zaren bitartean.

Taberna batzuetatik pasatu eta soinuak berriz jotzen zaituzte. Hiru pertsona Sagardo bana dastatzen, bi lagun ardo edalontzi banarekin eta botila bat duten mozkor batzuk. Aurrera jarraitzen duzu, ezeri kasurik egin gabe zure bidea jarraitzen duzu. Denborak zu konturatu gabe aurrera jarraitzen du, ez dizu itxarongo, eta ez da zeure pausura moldatuko. Denborak bizitza bat du, izaera bat eta ez dator zurearekin ez inorenarekin bat.

Auzo bat zeharkatzen duzu, oraingoan ere soinuak zure belarrietarako bidea topatu dute. Bi familia afaltzen eta baten garrasiak. Aita datorkizu gogora, eta berehala beldurra sentitzen duzu, eta buruak, eztarriak, bularrak, urdailak eta hankak min izugarria ematen dizuten arren, arinago korrika egiten hasi zara. Jadanik ez duzu malkorik, bukatu egin dira, zure begietan lehortu dira, ez dira gehiago masailetatik irristatzen. Baina ez zara geldituko ez toki hartara heldu arte, leku hori zein den jakin ez arren, heldu egingo zara, erakarri egiten dizu, ezer egin gabe bertara helduko zara, eta iristen zarenean sentituko duzu.

Zeruan sua piztu balitz bezala, lehengo urdin iluna eta ilargia eta izarren argi hotza, sufrimendu koloreko hori, laranja, gorri eta arrosez trukatu dira. Zure pasioak su hartu duen bezalaxe, azkenean erre egin zaitu. Zergatik? Bidaia guztian zure buruari egiten diozun galdera. Zergatik egin dut? Zergatik momentu horretan? Zergatik dena txarto joan da?

Ezin duzu gehiago, hankak huts egiten dizute eta lurrera jausi zara. Min handia sentitzen duzu gorputz guztian, eta arnasa hartzea ere zaila egiten zaizu. Lurrean botata gelditzen zara, denbora aurrera doa, minutuak nekez pasatzen dira. Azkenean jaiki egiten zara. Oso astiro, zure gorputzak egiten dizun minari kasurik egin gabe alboko zubi batetik behera begiratzen duzu. Metro asko daude, eta behean ibai bat ikus dezakezu, arin, etengabe, indartsu eta boteretsu. Ura atsedenik gabe zure azpitik pasatzen da, bere norabidea eta helmuga jakinda.

Behetik begiratzen zaitut. Badakit bota egingo zarela eta ez dut ezer egingo. Ez naiz horretarako etorri, ez baita nire lana. Zure istorioa ezagutzen dut, eta badakit zer gertatuko den, zer egingo duzun. Hemendik aurrera nik gidatuko zaitut. Orain entzuten dudan soinu bakarra zuk sortzen duzu, zure arazoetatik ihes egin nahian nire besoetara jausten, gatazkak ahazteko azken itxaropena banintz bezala.

Irantzu Barandika Urrutia
DBH 4. maila

"Kontua ez da heriotzaren ostean bizitzarik ba ote den,
kontua da ea heriotzaren aurretik bizitzarik izan den"

MORE, GORRI ETA ZURIAK

Ezagutu ginen gaua nola ahaztu. Ostiralero bezala herriko tabernetatik gaua pasatzera joan nintzen lagunekin. Zigarroa esku batean eta potea bestean. Halako batean, Iñigo gerturatu zen haren begirada hori urruneko puntu batean finkatuta zuela. Beranduago ezagutuko nuen bere irribarre hura, sekretua zen niretzat oraindik. Edari izoztua nabaritu nuen lepotik behera irristatzen nire atzetik pasatzen zegoenean. Buelta erdi eman eta haren aurpegia ikusi nuen arduratuta. Ahots sakonez barkamena eskatu zidan mila aldiz lehenengo eta beste mila aldiz ondoren. Nik korrika ihes egin nuen eta komunean sartu nintzen. Atearen kolpe indartsuaren ondoren ahots sakona entzun nuen berriz ere. Irten nendila eskatu zidan, eta nire izena esan zuen behin. Birritan. Bere ahotik bazetorren nire izena gehiago gustatzen zitzaidala konturatu nintzen. Momentu horretan hartu nezakeen erabakirik onena hartu nuen. Atea ireki eta parez pare haren aurrean gelditu nintzen, lotsatuta. Eskutik heldu zidan eta hitz txikiena esan gabe tabernako atzeko atetik irten ginen, inork ikusten ez gintuela. Ez nekien zer egin, zer esan eta isilik geratzea onena zela pentsatu nuen. Ibiltzen jarraitu genuen kale kantoi batera iritsi arte. Kanpai hotsei esker ordu biak zirela ohartu nintzen. Iraileko gaua zen baina udako haize epelak betetzen zuen kale iluna. Eskailera batean eseri eta hitz egin zuen azkenean:

- *Barkaidazu Olaia, benetan. Anderrek bultza egin dit eta tragoaz goitik behera busti zaitut.*
-*Ez kezkatu, esango diot amari garbitzeko bihar goizean* -erantzun nuen.

Ni baino hiru urte zaharragoa zen mutil batekin nengoen hizketan. Askotan ikusten nuen herrian lagunekin eta ikusten nuen bakoitzean goitik behera begiratzen nion. Nork esango zidan niri hizketaldi labur bat harekin izateko aukera izango nuela ostiral gau hartan?

Ez dakit hortik aurrera nola gertatu ziren gauzak. Agian buruak ezabatu nahi izan ditu baina ziurrenik alkoholaren eraginez ahaztu nituen denak. Ez dut ahantzi, ordea, eskailera berean eserita geunden unea. Gertuago, gertuago eta are gertuago. Bihotza punpaka zihoan gero eta azkarrago gure gorputzak hurbiltzen ziren heinean.

Iñigok eskua luzatu, nire ilean korapilatu eta ezpainek bat egin zuten denbora luze baterako. Lehen muxua.

Hurrengo goizean burukomin handiz jaiki nintzen ohetik. Egun berria zen eta piano entsegua nuen hamabietan. Aurpegia garbitu, praka beltz estu eta kamiseta arrosa bat jantzi eta sukaldera jaitsi nintzen. Ogi xigortuaren, gurinaren eta kafe egin berriaren usaina zegoen baina presaka nenbilen eta izozkailutik laranja zukua hartzeko denbora besterik ez nuen izan. Bakarrik nengoen etxean eta ez nion inori bart berandu heltzearen arrazoirik eman behar izan. Kalera abiatu eta nire gauzetan pentsatzen hasi nintzen.

Musika eskolara iritsi bezain laster ikusi nuen. Zertan zebilen Iñigo hor? Hamar urte neramatzan pianoa jotzen eta ez nuen inoiz kale hori zapaltzen ikusi. Beregana hurbiltzeko keinu bat egin zidan eta ez nuen beste erremediorik izan. Eta horrekin batera harekin joateko eskaera, piano entsegua alde batera utzi eta harekin joateko proposamen erakargarria. Horri ere ezin ezetzik esan. Goiz ezin hobea izan nuen hura ere. Hartan, bigarren muxua. Hirugarrena. Laugarrena …

Gure arteko harremana sendotzen joan zen egun hartatik aurrera. Mezuen bitartez hitz egiten hasi ginen. Pare bat hasieran, orduak hizketan geroago. Dena zen perfektua. Pelikula baten izarra nintzela zirudien, ez nuen sinesten gertatzen ari zitzaidana. Etxekoek ere pozago ikusten ninduten eta zer esan koadrilakoek esaten zizkidaten txantxez.

Azaroaren 18a. Berriz ikusi genuen elkar eta aukera bat eman genion gure lagun arteko harremana zerbait gehiago bilakatzeari. Zenbat une on izan genituen hortik aurrera. Arratsaldeak parkean izozkiak elkarbanatzen, nire ahizpa txikia zaindu beharreko goizak udaletxe aurrean, eta bere etxean ematen nituen gauak. Hark eta nik bakarrik dakizkigun gau horiek. Bitartean ni maitemintzen hasia nintzen.

Maiatza. Uda giroa inoiz baino azkarrago iritsi zen. Eguzkiak jada gogor jotzen zuen Euskal Herriko lurretan eta txoriak haien bidaia luzea egin ondoren, itzultzen ikusten nituen zeru urdinean. Haize freskoa zebilen hemendik hara eta handik hona dena ikusi eta ezagutu nahiko balu bezala. Zuhaitzak loretzen hasiak ziren eta usain goxoa uzten zuten Gernikako parke, kale eta plazetan. Lore more, gorri eta zuriak Gernikako txokoetan.

Maiatzaren 7a, igandea. Igande gogorra aurretik nuena. Azterketa eta lanekin beteriko astea nuen hurrengoa eta ez nintzen hasi ere egin ikasgai bakar batekin ere ez. Motxila ireki eta liburuei begira gelditu nintzen nondik hasi ere ez nekiela. Orduan iritsi zen nire salbazioa, edo hori uste nuen. Gatiburen *Bixotza suten*-en lehen notek logelako isiltasuna apurtu zuten. Mugikorra hartu eta uste bezala Iratiren deia zela ikusi nuen.
- Zer Irati? Aspertuta etxean ala? Zer ordutan joan zineten etxera atzo azkenean?
- Olaia, hitz egin beharra daukagu.
- Zer da ba? Ondo zaude? Entzuten ari natzaizu, hitz egizu.
- Utz nazazu bukatzen eta gero esango duzu esan beharreko guztia.
- Ondo.
- Badakizu Iñigo aspalditik ezagutzen dudala eta azken denboraldi honetan oso harreman estua izan dugula. Bada, behin telefonoz deitu zidan eta harekin geratzeko eskatu zidan, nirekin hitz egin beharra zuelakoan. Baietza eman nion kezkatuta zegoela

zirudielako. Arraro egin zitzaidan arazoa niri kontatu nahi izana bere lagunei baino, baina mutilen artean haien arazoak kontatzen ez direla pentsatu nuen. Institutu aurrean gelditu ginen eta heldu bezain pronto berria eman zidan. Azkar, zehatz: minbizia daukat. Horiek izan ziren esan zituen bi hitzak. Begiak malkoz bustiak zituen, sudurra gorri xamar eta ezin izan zuen guzti hura gehiago jasan. Masailetik behera malko bat erori zitzaion lehenengo eta pare bat segundo ondoren negarrari ekin zion hamar minutu luzez. Baretu zenean hitz egiteko ordua zela pentsatu nuen. Lehengo eta behin zuk berria zenekien galdetu nion eta ezetz esan zidan. Ez zuela zuen artekoa apurtu nahi eta zuri ezer kontatzea debekatu zidan. Badakizu gauza horiekin ezin daitekeela jolastu eta asko kostatu zaidan arren ez dizut ezer esan denbora luze honetan. Kontua da oso larri dagoela. Atzo ospitalera eraman zuten eta egun gutxi batzuk geratzen zaizkiola esan zioten. Lau hilabete pasatu dira berak berria dakienetik eta egun batzuk baino ez dituenez hemen, bere baimenik gabe ari natzaizu hau guztia kontatzen. Amari esan diot hamabietan zure etxe aurretik pasatzeko eta ospitalerantz joango gara. Sentitzen dut benetan hau guztia, badakit zuretzako gogorra izango dela baina jakizu hemen izango nauz…

Ez nion gehiago entzun. Telefonoa esku artean nuen jada. Hizketan jarraitu zuela entzun nezakeen, baina ez nuen inorekin berba egiteko gogo txikienik ere. Nire lagunik onenak horrelako zerbait egitea ez nuen sekula barkatuko. Sekula santan.

Hamabiak iritsi ziren eta, Mertxeren, Iratiren amaren kotxea ikusi nuen nire logelako leihotik. Bost-hamar minutu egon ziren itxaroten, baina bai batak bai besteak bazekiten ez nintzela jaitsiko. Horrela izan zen. Nire beharra zuen norbait bertan behera utzi nuen, ospitalean, hiltzeko zorian. Zenbat aldiz damutu naizen honetaz jakingo bazenu…

* * *

Hurrengo astean ez nuen zure berririk izan. Ez nuen ia ezer jan. Ezer beharbada. Negarrez ematen nituen izartu eta loak hartu bitarteko ordu guztiak. Mila galdera dantzan zeuden nire logelako lau hormen artean. Erantzunak, bat bera ere ez. Zergatik ez zenidan dena kontatu hasiera batetik? Benetan uste zenuen ez zintudala gehiago ikusi nahi izango? Orain egiten ari nintzen bezala, agian? Une horretan ohartu nintzen tontakeria hutsetan nenbilela. Jantzi eta ospitalera zihoan hurrengo autobusa hartu nuen. Hogei minututan bertan nengoen.

Nola edo hala gero eta aurpegi ezagunagoak aurkitzea lortu nuen bigarren solairura igo nintzenean eta jakin nuen zu zeuden gela ez zela oso urrun egon behar. Zure lagunak ikusi nituen, zure gurasoak gero eta zure anaia azkenik. Denek pentsamendu berbera buruan, zu, eta denen begietan atentzio puntu berdina, ni neu. Nire aurpegian ikus zitezkeen negarrez emandako orduak, lo egin gabeko gauak, ardura eta beldurra. Esertzeko leku bat aurkitu nahian nenbilela, hurrengo bisitarako txanda heldu zela esan zuen berrogei urte inguru izango zituen erizain lodi eta ile-kizkur batek. Etzen hitzen beharrik egon. Denek begiratu zidaten eta haien begiradak ulertu nituen.

Gelara sartu nintzen. Kaleko eguzki izpiak sartzen ziren arren, gela iluna zela pentsatu nuen. Zure irudia ikusi nuen ohean etzanda. Inoiz baino txarrago zeunden eta hala ere zure parekorik ez zegoela pentsatu nuen. Zu zinen onenetan onena. Ohe ondoan zegoen zurezko aulki txiki baten eseri nintzen betiko bankuan gelditu bagina bezala. Zu orduan heldu zinen, ni berandu. Masailean muxua eman nizun, egun zoriontsu haietan moduan. Eskutik heldu zenidan.
- *Banekien etorriko zinela.*

Begirada mahai txiki batean finkatu zenuen eta gaineko lore zimelduak hartzeko esan zenidan ia entzunezina zen tonu batean. Hartu eta txartelean idatzita zegoena irakurri nuen zuk buruz zenekiela ezpainekin jarraitzen zenidala:
"*Olaia, lore more, gorri eta zuri hauek gure betiko txokoan bildu nituen berria eman zidaten egunean.*
Ni zu zaintzeko hemen ez nagoen bitartean zaindu zaitez zure kabuz.
Maite zaitut.
Iñigo."

Beste hitzik ez. Begiak itxi zenituen egun horretan, betiko.

Ordutik aurrera oroitu naiz zutaz, bai. Barre algara amaigabeetan, jasotako besarkada bakoitzean, emandako muxu orotan eta esan ezin diren gauza txiki guztietan. Denetan dut zure irudia oroimenean. Eskutik heldu eta nire gerria zurera gerturatzen zenuen garaietan. Nire belarrientzat hitz goxoak baino ez zenituenean. Beldurra nuenean zure besoek inguratzen nindutenean, indarrez edo gogoz, nork jakin. Apirileko gau sutsuetan. Den denetan, zu.

Bizitzak zu gabe ere zentzu apurren bat har dezan eta garai batean egin nituen gauzak ezabatzeko aukera bat aurkitu nahian idazten ditut hauek guztiak. Damutu arren, txarto jokatu dudala badakit eta ez zaude zu esateko Iratik jada barkatu didala, edo pozarren dagoela ni berriz besarkatzeko, edo zuk ere ulertzen duzula aste oso batean zu bisitatzera joan ez izana. Horiek guztiak gezur txikiak izan arren, nahikoak izango lirateke barre bat ateratzeko. Ez da horrela, ordea. pilula more, gorri eta zurien aurrean idazten ditut azken hitz hauek orain. Agur eta eskerrik asko merezi ez dudan denbora labur hau nire kontuak irakurtzen ematearren.

Eneko Fuentes
DBH 4. maila
"Karatea, Rallyak, irakurtzea, idaztea eta urpekaritza".

EGUNKARI MAITEA

Egunkari maitea:

Otsailak 1, zapatua

Bederatzi hilabete dira ikasketak amaitu nituenetik. Amak beti esaten zidan biologia ikasketak lan aukera handiak izango zituela. Beharbada lehenengo aldia da amak arrazoirik ez duela. Bederatzi hilabete dira jada lizentziatura amaitu nuenetik eta ordutik ez dut lanik aurkitu. Kurrikulumak bidali baino ez dut egiten egun osoan. Ematen duenez ez dago lekurik lau hizkuntza dakien biologian lizentziatu batentzat lan-merkatuan. Azken aldian atzerriko web-orrietan hasi naiz kurrikulumak bidaltzen. Lan egin nahi dut! Hori inoiz ez nuela esango uste nuen, baina gobernuak ematen duen dirulaguntzarekin bizitzeko ezinezkoa dela konturatzen zarenean eta jantoki sozialetara jatera joan behar duzunean, iritziz aldatzen duzu. Espero dut lan bat laster aurkitzea.

Egunkari maitea:

Otsailak 3, astelehena

Gaur email bat jaso dut. Ireki dudanean lan eskaintza bat zela ikusi dut. Pozarenpozez irakurtzen hasi naiz. Alemaniar enpresa batetik zetorren, ikerlari bat behar dute, biologian lizentziatua, eta ingelesez hitz egiten dakiena. Niretzako diseinatua dirudi, baina … atzerrira joateak beldur ematen dit. Ia ez dakit Alemanez hitz egiten eta jada hegazkin txartela diru gastu izugarria da. Bihar hamaiketan izango dut berarekin elkarrizketa, Skypen bidez. Espero dut dena ondo irtetea!

Egunkari maitea:

Otsailak 4, martitzena

Gaur, dakizunez gizon alemaniarrarekin izan dut elkarrizketa. Nahiko ondo irten da dena. Alemaniarrak Jürgen Müller zuen izena eta ingelesez egin dugu berba. Zweigotelie izeneko ikerketa enpresaren zuzendaria da eta ikertzaile berrien bila dabil Biorremediazioari buruzko proiektu bat aurrera eramateko. Oso gizon atsegina iruditu zait. Berak behar zuen perfilean ederki egokitzen naizela esan dit. Lana onartzea erabaki dut, hegaldia hamazortzian hartuko dut, Dusseldorffera. Müller jaunak soldata aurrerapena ematea onartu du, hegazkina ordaintzeko. Oraintxe bertan hasiko naiz gauzak batzen eta maletak prestatzen.

Egunkari maitea:

Otsailak 12, eguaztena

Aste bat baino gehiago da idazten ez dizudala, oso lanpetuta nabil bidairako gauza guztiak prestatzen. Eraman ezingo ditudan gauzak saltzea erabaki dut. Horrela, lehenengo hilabeteetan pisu bat alokatzeko adina diru izango dut, beste gauza hobe bat aurkitzen dudan bitartean. Jadanik, autoa, bizikleta eta zenbait altzairu saldu ditut. Espero dut astea bukatzen denerako beste gauza guztiak salduta izatea!

Egunkari maitea:

Otsailak 17, astelehena

Azkenik, badaukat dena hegaldirako prestaturik! Gauza guztiak maletetan antolatu ditut eta eramango ez ditudan gauzak alokatu dudan trasteleku batean ditut. Bihar eguerdian irtengo da nire hegaldia. Taxi bat kontratatu dut goizeko bederatzi eta erdietan nire etxe aurrean jasotzeko. Uste dut dena prestatuta dudala, baina zerbait ahazten dudan susmoa dut. Espero dut susmoa bakarrik izatea!

Atzo, lagunei berria eman eta denbora baterako, behintzat, agurtu nituen. Oso goibel zeuden gehienak, baina aukera paregabea dela esan zidaten. Dena ondo badoa, bihar Alemaniatik idatziko dizut.

P.D: Biharko logela bat alokatu dut enpresaren alboan, interneten bidez. Seguraski bertan igaroko ditut hurrengo aste biak, etxea alokatzeko etxe-lagun bat aurkitzen dudan arte.

Egunkari maitea:

Otsailak 18, martitzena

Hemen nago, azkenik. Orain dela aste bi, ezin izango nuen sinetsi hemen egongo nintzela; lan kontratu batekin eta etxetik hain urrun. Askotan pentsatzen dut, aireak mugitutako hostoak bezalakoak garela; orain hemen gaudela badakigu, baina, nork daki non egon gaitezkeen bihar? Beno, atsotitzak alde batera utzita, orain nire logela berriko ohe gainean etzanda egoteko izan ditudan arazo guztiak azalduko dizkizut:

Lehenik eta behin, taxian aireporturako bidean gindoazela, gurpil bat zulatu

zitzaigun; ondorioz, ordu erdi galdu dut, beste taxi bat bila etorri zaidan bitartean (behintzat, taxia dohainik irten zait, noski). Gero “chech in”-a arineketan egin eta segurtasun kontrola igarotzera nindoala, eskuko-poltsan neraman kolonia botila eta hortzak garbitzeko pasta konfiskatu dizkidate. Guztia, berrogei minutu baino gehiago galdu ondoren. Justu-justuan heldu naiz hegazkinera sartzeko. Zikira hona, Alemaniara heltzea lortu dut.

Arratsaldeko seietan deitu nau Müller jaunak. Bihar Zweigstelleko harrera bulegoan goizeko bederatzietan egoteko eskatu dit. Momentuz, dena espero bezala.

Egunkari maitea:

Otsailak 19, eguaztena

Gaurko eguna oso nekagarria da. Aspaldi zen ez nuela hain egun produktiborik izaten. Euskal Herrian nengoenean, eguna kurrikulumak bidaltzen, lotan, etzanda edo lagunekin ematen nuen; ondoren guztiz ez-ohituta nengoen lan giroari eta gutxiago zortzi orduz gelditu gabe egoteari, noski! Gaur, lehenik, Pittgeno jaunak, proiektu buruak proiektuaren ezaugarriak azaldu dizkigu. Nire taldean, denok gara berriak; sei guztira: dinamarkar bat, hiru alemaniar eta ni. Momentuz ingelesez hitz egiten dugu gure artean. Neska dinamarkarra oso atsegina iruditu zait. Hile horia da , nire altuerakoa, begi urdinekoa eta Helen du izena. Helen eta biok egoera berdinean gaudenez, berehala hasi gara hizketan (ingelesez, noski!). Bazkal orduan kafe bat hartzera gonbidatu dut eta bere gauzak kontatu dizkit: Berak ere biologia ikasi zuen eta bioteknologian espezializatu. Gero eta atseginagoa iruditzen zait…
Lanari dagokionez, gustuko dut. Nire taldekoak oso gizon-emakume dibertigarri eta atseginak iruditzen zaizkit. Gainera nik egin beharreko lana ez zait bat ere aspergarria iruditzen (momentuz, behintzat). Espero dut laster aurkitzea alokatzeko etxe bat, nire gauza guztiak ezingo baitira logela ziztrin honetan luzaro egon!

P.D: Helen gustuko dut. Beharbada bihar nirekin afaltzera gonbidatzeko proposamena egingo diot.

Egunkari maitea:

Otsailak 20, eguena

Ausarta naiz! Helen nirekin afaltzera gonbidatu dut! Hasieran oso lotsatuta geratu da, baina minutu batzuek geroago baietz esan dit. Bazkalorduan esan diot. Bihar gelditu gara afaltzeko. Seguru nago ni ere atsegin natzaiola! Alemania, nik uste baino leku hobea da bizitzeko. Nire lana gustuko dut, oso hiri politak daude bisitatzeko…

Gainera maite dudan emakumea ezagutu dut. Zer gehiago nahi?

Xabier Ojanguren Asua
DBH 4. maila

"Ez gara triste egon behar norbait joan delako,
pertsona hori maite izan baduzu, beti hor egongo delako.
Ez zaitez pasatakoan bizi, ezta datorrenean egon.
Bizi bizitza! Bizi orainaldia, eta gozatu.
Ez baitakigu bihar zer etorriko zaigun."

AMONA

Gaur goizean, esnatu eta amak amonatxo hil dela esan dit.

Amona, ene amona kuttuna, ene amonatxo maitea.

Hasieran ez diot ulertu, edo nire garunak ez ditu uhin haiek interpretatu nahi izan, ezin zen egia izan; baina bai, zoritxarrez bai.

Hasieran ez dut negarrik egin, begiak zabal-zabalik, egongelara joan naiz. Sofan eseri eta begiak itxi ditut. Ama nire ondoan zegoen. Mesedez errepikatzeko eskatu diot. Tinta beltzezko tantak nire edalontziko ur gardena jo duenean, malko bat irten zait begitik: amaigabetasunean galduta nituen begietatik, tinta beltza uretan disolbatzen zen heinean, nire bihotza gogortzen zen heinean; katilu osoa beltzez geratu arte.

Begitik irrist egindako banakakoa erortzen zen heinean milioika argazkik, tiro zaparrada bat bailitzan, gogorapenen sarraski bat egin dute nire begietan talka egitean.

Abesten zegoen, nor? Abesten, sehaska kantu bat. Dantzan nago musikaren eta doinuaren eskuetan, begiak itxita, goxo-goxo entzuten. Norbaiten gorputza sentitzen dut lepoan, norbaiten besoak nire inguruan, amonaren ondoan nago, bere besartean, babestuta, beldur, arazo eta arrisku guztietatik salbu; seguru.

Puzgarrian saltoka nago, dena astiro ikusten dut, zoriontsu naiz, munduaren jabe, saltoka. Aurrera begiratu, eta amona ikusten dut, niri begira dago bere barre maitagarriarekin aurpegian. Irten eta korrika beregana noa. Muxu ematen diot.

Beste tanta batek aurpegia zeharkatu dit. Kanpoan euria ari du. Nire barnean ere. Musika! Jai-musika! Herriko jaiak dira. Amonari eskutik helduta noa, ama amonarekin hizketan. Halako batean, gizon batek airean hegan zituen hainbat puxika ikusi ditut. Han goian, kolore guztietakoak dira. Forma desberdinekoak. Bat nahi dut. Beti nahi izan dut bat. Dinosauroaren formakoa nahi dut, beraz amari eskatu diot, baina betiko moduan, ezezkoa eman dit. Baina amona saltzailearengana joan, eta nire super-heroia oraindik superragoa bilakatuz, bat erosi dit! Ze ona den amona!

Tik. Beste negar batek lurra jo du.

Ohean bero nago. Goxo nago, gustura, lasai eta ondo. Kanpoan euria ari du, lainoak danbor-joka dabiltza, eta baita argazkigintzan. Beldurgarria da. Baina ni eroso nago, gustura eta goxo. Norbait nabaritzen dut lepoan; amona da. Baserrian beldurra pasatzen nuen gauetan, eta amets gaiztoren batek burua jaten zidanean, beti hor zegoen amona niri laguntzeko, lasaitzen laguntzeko. Bere ohean sartzen uzten zidan. Nola maite dudan amona!-pentsatzen nuen.

Tik!

Oporretan gaude, uda sasoia da. Oporretan, Benidorm-en, amona eta lau lehengusuok.Ni baino nagusiagoak direnez, egun guztian daude niri adarra jotzen! Nazkatuta naukate! Baina amona beti hor dago, nire alde! Eta beti egonezin handienetatik ateratzen nau, bai hondartzan, bai igerilekuan, eta baita etxean ere. Hori bai nire superheroia!!!

Tik!

Aulki kulunkarian norbait dago. Kulunkatzen dago. Eta josten, zerbait josten. Bai, praka batzuk josten. Ei! nire prakak dira! Nik apurturiko prakak!! Egia, jaja! Alanbrezko hesi bat saltatzera joan nintzen gurasoei kasu egin gabe, eta burdinazko hari uger horietan katranpilatu zitzaizkidan prakak. Krak! Egin zuten. Gurasoak konturatuz gero, belarrietatik horman eskegiko ninduten, koadro bat banintz bezala. Baina amonak, amona kuttunak, ama eta aita ez konturatzeko, praka josi zidan. Ze pertsona ona ene amona.

Tik!

Elurtxorekin paseatzen nago, menditik. Non nago? Galduta nago, noraezean, mendiko behelaino zuriak bidea ezkutatzen dit eta ez dit bueltako pasabidea erakutsi nahi. Gero eta beldurtuago nago eta hotzak azala hozkatzen dit. Baina bat-batean, ahots bat entzun dut basoaren barnealdetik nire izena aldarrikatzen. Amonaren ahotsa zen. Aaahh... eskerrak, jada eneak egin zuela sinetsita nengoen. Eskerrak hor zaudela, amona; nola maite zaitudan!

Tik!

Triste, oso triste nago. Neskalagunak utzi nauelako nago triste. Amonak zer gertatzen zaidan galdetu dit. Baserrian gaude. Hasieran ez diot kontatu nahi izan, baina azkenean etsi egin dut. Kontatu egin diot. Bere kopeta zimurtua oraindik gehiago zimurtuz, pentsatzen geratu da une txiki batez. Jarraian esku bat hartu dit bere bi

eskuekin. Bere eskuak nahiz eta beti hotz egon, atseginak ziren ukitzean. Berari gertatutako istorio bat kontatzera abiatu da. Aholku batekin bukatu du. Isildu egin gara. Apur bat pentsatu dut eta... jada ez nengoen haserre! Amonaren kontseiluak munduko onenak dira! *Maite zaitut amonatxo* -esan diot nik.

Tik!

Janari piloa dago mahai gainean...mmmm...bai, pasa den urteko gabon zaharrak dira, urte zaharkitu baten jaioberritzea, bizitzaren liburuko orria pasatzea. Taldeetan jolasteko diren mahaiko jolas dibertigarri horietako bat bukatu berri dugu: guk irabazi dugu! Amonak eta nik! Talde bikaina egiten dugu! Eta orain bere gaztaroko abentura zirraragarri batzuk kontatzen hasi zaigu; gure amona, hainbeste istorio, abentura, sekretu eta bizipen gordetzen dituen kutxa sakratua. Zenbat barre egin dugun... Orduan, berak esan dit, noizbait idatzi egin beharko nituela bere abentura guztiak. Eta nik zin egin diot noizbait berak diktatu ahala nik ordenagailuz idatziko nituela. Noizbait bera hil aurretik, bere bizitzaren istorioa transkribatuko nuela. Zin egin nion.

Tik! Barkatu amona... Ezin izan dut nire hitza bete; hutsik geratu da.

Hainbeste sentitzen dut, berarekin hainbeste gauza egin ez izana... Zenbat maite dudan ez esan izana... Bere janariak zeinen goxoak ziren ez esan izana... Eta orain, hilda dago, ez dago gure artean. Gure jakituriatik haratago joan da, unibertsoan barrena abiatu da, gehiago ez bueltatzeko.

Tik! Amak eskua helduta dit. Bere aurpegi politean behera ere ur tanta bat irristatzen da, niri begiratzen didan bitartean. Besarkada bat eman diogu elkarri.
- *Indartsuak izan behar gara* - xuxurlatzen zidan amak belarrira, muxu bat ematen zidan bitartean- *zeren nire amak, zure amonak, zerbait irakatsi badit hori da: indartsuak izan behar garela bizitzak jartzen dizkigun arazo eta zuloen aurrean, eta ez dela hauen oinetara belaunikatu behar, baizik eta aurpegia jarri eta pentsakera positiboarekin harrizko harresia, lastozko bihurtu eta behera bota behar dela. Ez egin negarrik.*

Euria ari du. Egun nazkagarria da. Bai.

Arratsaldean, Nabarnizera joan gara. Baserri zaharrera. Amona jaio eta hazi zen tokira. Badira urte bat eta erdi ez dela bertan inor bizi, amona izebaren etxera joan baitzen bizitzera. Jada ezin baitzuen esfortzu handirik egin. Eta gainera beti gustatu izan zaio norbaitekin egotea. Bakardadea ez zen bere fuertea. Baina bihotz indartsua zuen amonak, sumendirik gogorreneko suetan forjatutako nahi eta gogo apurtezinak zituen. Infernurako zulo batetik erorita ere, beti bere bizitzeko gogoa, esperantza eta indarra mantentzen zituen. Emakume horrek bizi izan zituenak; gerra, gosea, zazpi neba-arreba txiki, ez zuen aita ezagutu, lehen gizonari, ezkondu eta hiru urte garrenean bihotzeko batek eman zion... Denetarik pasatu da bere bizitzan, baina orain, inork ez ditu gogoratuko istorio horiek eta ahanzturan eroriko da, denboraren gose amorratuak xurgatuz, betiko, jendearen buruetatik joanez. Agur amonatxo.

Atzo joan zen amona, atzo utzi gintuen. Gau osoa pentsatzen eman dut. Ia ez dut negarrik egin. Amak, amonaren gelan, niri zuzendua dagoen zerbait aurkitu dutela esan dit. Gutun bat da. Honela dio:

"*Iloba maitea:*

Hau irakurtzen bazaude, ni hilda nagoela esan nahi du. Nire ordua bukatu da, nire pilen bateria agortu da, nire azkena usaintzen dut dagoeneko.

Gutun hau idazten dizut badakidalako nire galerak inori baino gehiago zuri erasango dizula. Jakin ezazu, inoiz izan dudan ilobarik onena zarela, munduan gehien maite dudan pertsona. Zugatik edozer egingo nuke, badakidalako zuk ere berdina egingo zenukeela nigatik.

Baina ez nazazu faltan bota, ez du merezi ni bezalako azal zaharkitu bategatik triste egoteak, gutxiago negar egiteak, ni beti hor egongo naizelako; zure ondoan, zure barruan, bihotzean. Ez egin negarrik arren, orain zuk irribarre bat irudikatzea aurpegian gustatuko litzaidake. Horretarako, nire munduko indar positibo guztiak bidaltzen dizkizut ene iloba maitea.

Orain zure aitonarekin egongo naiz, dantzan, zoriontsu, zu etorri arte zain. Baina ez izan prisarik, bizi bizitza, nik bizi nuen moduan. Ez lotsatu besteek pentsatuko dutenagatik, zu zeu izan eta zeure bidea jarraitu, bizitzak jarriko dizkizun mila harresi apurtuz. Ez pentsa arazoak direnik, baizik eta beste gauza berri bat ikasteko froga bat, erronka bat. Zeren nik beti esan ohi dudan moduan: zumea bezalakoa izan behar da: gogorra eta sendoa, baina sentikorra eta malgua aldi berean. Animo zure bizitzarekin: garaitu! Bidezidorretatik haratago begiratu! Begiak etorkizunean baina orainaldian aldi berean izan! Eta batez ere ez izan inoiz hiltzeari beldurrik!! Beldur hori garaitzen duzunean geldiezina izango zara!

Besterik gabe, muxu handi bat zuri, eta nire partez, zure amari eta lehengusu guztiei, ez ahaztu inoiz: asko maite zaitut...eta...

Agur betiko "

Eskerrik asko amona, ez zaitut inoiz ahaztuko.

Momentu horretan esku bat sentitu dut sorbaldan. Nire irudipenak! Baina kuriosoena orriaren atzean jartzen zuen mezua iruditu zait: "*Elurra joan da*". Zerbait esan nahiko zidan?

Badira egun batzuk egun beltzetik, eta egia esan, pixka bat hobeto sentitzen naiz; baina gaur bere hileta eguna da.

Ez nuen joan nahi, baina senak aginduta joan egin naiz. Euria ari du. Denak beltzez jantzita daude, aterki beltzekin, eta zerua negarrez ari da, eta ez da bakarra. Elizara sartu gara lehenengo. Begiak lausotzen zitzaizkidan heinean, berriz ere bihotza gogortzen hasi zait. Hilerrira joan gara gero. Egurrezko kutxa bat zihoan nire aurretik. Lau gizonen artean zeramaten. Barruan pertsona garrantzitsu bat zegoen. Kutxa barruan. Pentsatzeak negarrak isurarazten zizkien nire begiei. Ez nuen pentsatu nahi baina ezin eragotzi. Gogorra da hainbeste maite den izaki bat galtzea; oso gogorra.

Harrizko mahai baten gainean jarri dute. Eta tapa ireki diote hilkutxari. Nahi zuena, ikustera joan zekion. Azken aldiz ikustera. Gorpua, bakarrik mugitu zait. Kutxa aurrean geratu da. Momentu horretan, bihotza eta denbora gelditu egin dira. Hor zegoen,

amona, amonatxo maitea. Eskuak bularrean eta begiak itxita, deskantsatzen; betiko deskantsatzen. Malko bat erori da bere aurpegian. Pozik dagoela ematen du, baina, negarrez aldi berean. “Elurra joan da”... Ai! Gogoratzen dut!! Badakit zer esan nahi zuen horrekin!! Elur hil zen eguna!

Gaurkoa bezalako egun triste eta gris bat zen. Baserrian geunden. Ur gazizko tantek nire aurpegia behin eta berriro zeharkatzen zuten. Mukiak jariatzen zituen nire sudurrak. Txakurra hilda ikusi, eta ezin ezer egin. Orduan, amona agertu, eskuak hartu eta mantsotzeko eskatu zidan, muxu emanez masailean. Eta nire negarrak isiltzen zihoazen heinean ondorengoa esan zidan:
- *Ez esazu negarrik egin nire maitea, denok hilko gara noizbait, ezin dugu saihestu. Denon helburua da. Elur, ba, joan da. Berari ez litzaioke gustatuko zu holan ikustea.*
- *Zergatik hiltzen gara?!*-esan nion erdi negarrez.
- *Ba pertsonok, eta baita animaliak ere, egun batean, jada nahiko bizi izan direnean, nekatuta daudenean bizitzeaz... PUN! Joan egiten dira. Baina horregatik ez zara zertan tristetu, poztu egin beharko zinateke, izaki hori beste toki hobeago batera joan delako. Eta ez ezazu pentsatu utzi egin zaituenik, ezta gutxiago ere: maite duzun pertsona, beti hor geratzen baita, zure bihotzean, zure alboan, zeure gogoan.*

Hiltzea ez da horren txarra, gainera, zumea bezalakoa izan behar da pertsona: gogorra eta sendoa, baina sentikorra eta malgua aldi berean. Eta orain lasaitu, elurra joan da. Baina beti maiteko zaitu.

Eskerrik asko amona, orain bai, orain agur esan diezazuket: *Agur amona, agur betiko. Maite zaitut.*

Malen Akordagoitia Madariaga
BATX. 1. maila
"Solasean eta dantzan aritzea gustatzen zait"

TXOKOLATEZKO TARTA

Ez dakit jada zenbat egun edo hilabete edo beharbada urte daramatzadan hotel honetan, hain nago gustura! Egunero egunero sukaldari, jostun zein garbitzaile bezala aritzea zer den ere ahaztu zait, egia esan gogo handirik ez dut azken laurogei urteotan egin dudan lan guztia egiteko; goizean goiz esnatu, esne-saltzailearengana joan, ondoren okindegian geratu, berriz ere etxera buelta, etxekoak esnatu, denentzat gosaria prestatu, bost seme alabak eskolara eraman, berriro ere etxera, arropa garbitu, urradurak josi, oheak egin, hautsa kendu, bazkaria prestatu, umeak etxera ekarri, jaten eman, harrikoa egin, erosketak egitera joan, afaria prestatzen hasi, beste behin ere harrikoa egin, umeak oheratu eta azkenean, egunarekin batera amaitzen nintzen ni, hori zen nire egunerokoa. Askotan, norbera izateko astirik ere ez nuela uste nuen, eta tamalez, hala zen.

Denak zeuden nire esku baina aldi berean neu nintzen haien eskuetan nengoena, haien menpe. Denetarako behar ninduten, denetarako, ez ziren gai ezer ni barik egiteko. Askotan errudun sentitzen nintzen, beharbada nik hezi nituen gaizki beti norbait izango zutelakoan behar zutenerako, baina hala ere, nola ez diezu zure senitarteko maiteenei edozertan lagunduko? Azken finean, ohartzen zara inoiz gertatu zaizun onena direla eta dauden lekuan daudela edozergatik bada ere, hemen izango zaituztela.

Egunean zehar ez nuen aspertzeko denborarik, eta eguna oso nekatuta bukatzen nuen arren, irribarre polit batekin oheratzen nintzen beti, orduko mundu grisari kolorea eta bizitasuna emanez. Azken batean, eurengatik izango ez balitz akabo etxeko grazia, eta hori benetan eskertzekoa zen.

Izan ere, badira gaur 50 urte inguru neure Bixentek utzi zigunetik. Egun hartan ez nuen ezertarako gogorik izan, baina neu nintzen, bat, neu bakarrik, familia aurrera eramateko ahalmena zuen bakarra eta momentu horretan lurra jo eta lurrean jausita nengoen arren, altxatu eta aurrera egin nuen, bide luze eta zailena ere pauso batez hasi

behar nuela burutuz. Egun gogorrak izan ziren oso, egunak baino urteak, baina umeek, denetarako behar ninduten haiek, ni barik ezer egiteko gai ez zirenek, horiek izan ziren inoren laguntzarik barik nire aurpegian irribarrea margotu eta eguneroko egunak, egunik nekagarrienak izanda ere bizitasunez hornitzeaz gain, bizitzeko gogoak oparitzen zizkidatenak!

"Egunon Bizkaia! Gaurkoan ere euria eta lainoak izango ditugu protagonista nagusi. Hala ere, ez arduratu uda hurbil dugu eta egun argitsuak izango ditugu zain datorren asteetarako! Ondo izan!" Hori da irratiak dioena, gaurkoan ere egun fresko eta euritsua, kartetan jokatu eta zertxobait dantzatzeko eguna dugu beraz. Aspaldi da jada seme alabak ikusten ez ditudala, ezta ilobak ere, azken batean, Agirretarron album honekin konformatu beharko naiz. Argazki pilo honek gogora dakarzkidan oroitzapen eta pertsonak dira eguna gogotsu hasten laguntzen didatenak.

Gaur egun, hotel, edo dena delako honetan bizi dudan bizi ona, inoizkorik eta lasaiena da; ez dut zertan ezer garbitu, ez prestatu, ez konpondu, ezta inorengatik arduratu beharrik ere. Hotel honetan dena da alderantziz, ni umea izango banintz bezala tratatzen naute, ez dut ezertaz arduratu behar, lasai asko esnatu, lagun zahar zein berriekin batera gosaldu, kartetan jokatu, bazkaldu, ordubete inguruko siestatxoa egin, merienda jan, salsa dantzatu arratsaldero legez, ondoren, afaldu, telebista ikusi eta poz pozik noa ni egunero ohera. Gauero izaten ditut hainbat amets, gauero amesten ditut nire alboan; denok sukaldeko mahaian jarrita barre algaraka, horiek bai bizipenak egunak gogotsu bukatu eta pozago hastea eragiten dutenak.

Egia esateko, ez naiz gogoratzen bizileku berri honetan sartu ninduten lehen egunaz, ezta zergatiaz ere. Ez naiz gaurkoaz gogoratzen, baina aspaldiko kontuez bai ostera; akordatzen naiz bai lehen semea jaio zen egunaz baita bigarrenaren jaiotzaz ere, eta nola ez ba, nire Bixente maitea ezagutu nuen hartaz. Amak kontatzen zizkidan kontuak ditut gogoan, amumaren kantu zaharren ondoan, inoiz ahaztuko ez diren oroitzapenen barruan.

Dena dela, nahi dudan moduan bizi naiz ni, mutil lagun eta guzti. Azkenaldian, egunero datorkit mutil gazte eta dotore bat bisitan, ohetik altxatzen lagundu eta nahi dudan lekura eramaten nau, zuriz jantzita eta sinpatiko. Eguna alaitzen diot nik, barreka gabiltza beti leku batetik bestera, gauza politak soberan esaten dizkit niri eta hain nago pozik eta maitemindurik, ezer falta ez zaidala igartzen dudala nik! Hain da xalameroa,

Bixente ikusi eta entzuten dudan oro, arropa zuriz eta lora sorta handi batekin eskuetan, neure aurrean makurturik.

Baina askotan esan dit, bera Bixente barik Eusebio dela, ez dakit nik ba sinetsi ala ez, ez dut Eusebiorik sekula ezagutu eta.

Hala ere, asko maite dugu elkar eta nahiz eta nire lagunek esan oso gazte ikusten dutela, ez da hala, inbidia baino ez didate eta nik barre egiten diet, nire edertasun eta alaitasunak nor ez du konkistatuko ba? Ai, nire Bixente kuttuna! Hain gara ederrak salsako orduetan ere, biok elkarrekin dantzatzen ikusteak sutan jartzen ditugula inguruan ditugun guztiak. Baina, neskak, zer egingo dugu ba, horrelakoa da bizitza! Batzuentzat ezin hobea eta atsegina, besteentzat ezin nazkagarriagoa den heinean.

Eta zorionez edo zorigaitzez, bizi atsegin hori bizi dut nik gaurkoan. Nahiz eta hainbat momentutan egiten dudanaz ohartu ez, badakit zertan ari naizen, eta medikuak baten baino gehiagotan nire memoriaren eta izaeraren gainean diagnostikatutako izen luzedun gaixotasun horregatik momentu honetan etxean egon beharrean nagoen lekuan egon, harro nago neure buruaz, egiten dudan guztiaz eta bizitzak eskaini didan opari hau neure erara gozatzeaz.

Askotan, izan behar ez dudan pertsonekin zakar bihurtzen naiz, ez diet merezi duten beste eskaintzen eta ez naiz egiten dudan akatsez ohartzen. Momentuan konturatzen ez naizen arren, albokoen aurpegien ispilu balira bezala jokatzen dute nire begiek eta orduan bai, orduan ikusten dut egiten ari naizenarekin, noizik behienean, garrantzitsu diren batzuengan egiten ari naizen mina, eta hala ere, maite nautela ikusteak irakasten dit haiek maitatzen eta uste baino gehiago merezi dutela ikasten.

Eusebiok jakinarazi didan legez, gaur arratsaldean datoz seme-alaba, iloba eta biloba guztiak bisitan, antza denez, nire urtebetetzea da gaur eta aurton ere nire txokolatezko tarta gogokoena ekarriko dute eguna ospatzeko eta, bide batez, hainbat oroitzapen on gogorarazteko.

Tamalez, arratsaldeon datozen hauek ia ezagutu ere ez ditut egingo, baina tira aurreko urteetan erakutsi diedan moduan badakite asko maite ditudala. Hala ere, txokolatezko tarta ondo baino hobeto ezagutuko dut, beraz, goza dezagun momentua!

Koldo Gezuraga Seijido
BATX. 1. maila
"Gugan sinistea da lehen baldintza,
bizitzari orduak eman nahian gabiltza,
eman beharrean orduei bizitza"

SU ETA NI

Sutondoaren ondoan
nago goxo eta epel
baina sentitzen naiz ergel
zu zaitut eta gogoan.
Babestu nahi dut beroan
baina kanpoan hotza da,
eta elurra mara-mara
lurrera suizidatzera,
nire aurpegitik behera
doazen malkoen erara

Txinpart iheskorrak lekuko
orri zuria atera
Ta banoa idaztera
baina ezer ez zait otuko
ez baitut inoiz ahaztuko
batera geunden aldia
eta zure irudia.
Nire aurreko sua da
zu zinenaren islada:
beroa bezain argia

Sua egurra dabil jaten,
kea ertz denekin lotzen,
baina ni ez nau berotzen
eta hori ez dut jasaten
ez didalako ematen
nigana heltzen denean
zirrara hori barrenean,
hobeto nengoelako
negu hotz hontatik kanpo
zure berotasunean

Dudan ito naiz gainera
ta buruari galdetu
nahiz ta ia-ia lehertu
betiko kontu berbera,
ihardetsi ezin den galdera:
zergatik “parkatu, akabo”?
niri eginaz ordago.
Sutondoko suaren garren
indarrak berotu arren
nire bihotza hotz dago

Beti izan zara nire
inspirazio eta musa
baina barrena dut hutsa
irudimena ez dut kide,
ezta orri hau ihesbide,
tximurtu eta berehala
esanez “suak hil dezala”
bota gar handi horren barrura
ta apurka desagertu da
gure artekoa bezala

Gaurko egunez behinola
lainoen begiradapean
muxu eman zenidanean
oso ondo ez dakit nola
izoztutako arbola
denak bihurtu ziren su
beraz nago itxaropentsu,
itzali duzun gar hori
lehen zegoena gori-gori
berriz piztu dezakezu

Egun hotzak dira baina
oso ederrak omen dira
familiaren disdira
eta janari usaina.
Baina niri ezerk zuk haina
ez dit beteko barrena,
baitzara su gartsuena
nahiz eta ni ez zuretzako
zu zara Gabonetako
nire opari handiena

Beste paper bat hartuaz
berriz egin saiakera
baina ez zait ezer atera
luma orrian iltzatuaz,
alai nago gozatuaz
irudien kontrastea.
Dator nostalgiaz betea
su honen bufanda ikustean
burura, oharkabean
zure zigarroko kea.

Orriak hor darrai zuri
nahiz ta denbora igaro
nire antzera hutsik dago,
ez dakit zer esan zuri,
horrek jartzen nau urduri.
Barrenekoa idaztea,
zer zaren adieraztea
ezin dut azaldu hitzetan,
onena paper honetan
su handi bat marraztea

Bihotz hautsi hau ezin da
hain erraz bota sutara,
gurea ketu da jada,
esanak errauts hits dira.
Orain, gerora begira
ahaztu behar ditut odak,
marrazki zein metaforak.
Pasatako une denak,
ditudan oroitzapenak
erreko ditu denborak.

Koldo Gezuraga Seijido
BATX. 1. maila
"Bizitzak lepoa ematen badizu,ukituiozu ipurdia"

HERIOMENA

Zikinkeriaz betetako paretek, sudurzuloetataik murgiltzen den giro hezeak, gela honetan (gela deitzea merezi ez duen arren) sortzen diren itzalek zein etsipenaren lagun diren garrasi etengabeek egunetik egunera nire bihotza sagar bat bailitzan usteltzen dute. Erotzat hartu nindutelako sartu nintzen barrotez beteriko guduzelai honetan, eta egia esan, ez nuen ulertzen nola erabaki zuten arazo kognitiboak nituela, nire aburuz, inguruko pertsona zuhur eta sanoena bainaiz; hemen sartu nautenak dira benetan zoroak, euren buruak zentzuduntzat eduki arren, ni bezala "ero" etiketa daraman jendeaz bizi eta elikatzen baitira.

Infernu hau ezagutu aurretik goizero legez paseotxo bat emateko ohitura neukan, horren ostean, kafetegira joan eta bertan kafe hutsa hartzen nuen egun horretako egunkaria irakurri bitartean, bizipoza adiskide nuelarik. Ondoren nire iloben bila joaten nintzen ikastolara, monotoniazko goiz horri bukaera emateko. Oso ordenatua nintzen nire neurrigabetasunean. Urteak aurrera joan ahala heldutasuna bereganatzen nijoan, ordenatuago bilakatzen, mania txikiak neureganatuz gauzei perfekzioa bilatzen, nire adimena konplexu bilakatu zen, simetriaren eta ordenaren zale. Gauza guztiek orden bat eduki behar zuten, forma, kolore zein tamainak irizpidetzat hartuz ordenatzen nituen gauzak. Baina orden kromatikoa zen nire gogokoena, nire inguruan zegoen edozer tonuaren arabera antolatzea, argienetik ilunenera eta alderantziz. Nirea herri txikia izaki jendeak ez zuen asko itxaron zurrumurruak hedatzen hasteko, denek desorekatutzat hartzen ninduten, erotzat, baina ni ez nintzen eroa, ez horixe, tentuz jokatu bainuen nire hilketa guztietan, ero bat ez da ni bezain arduratsua dena prestatzeko unean, ero batek ez ditu biktimak nik haina mimatzen. Aldamenekoek uler ziezadaten nahi nuen soilik, nire mania txikiak errespeta zitzaten, beraz, horretaz jabetzeko gai ez zirenei bizitza hobe baterako bidea ahalbidetu nien.

Errutinazko goiz horietako batean burutu nuen nire lehen erailketa, Ingridek (emakumezkoak ziren biktimen artean estimu gehien nion) zazpi urte zeramatzan nire esanetara lan egiten eta lehen momentutik nire orden kromatikoa errespetatzen zuen andreak. Baina egun hartan ez zuen ulertu nahi izan gorria laranja baino kolore ilunagoa zela eta nire arropak ezin hobeto ordenatuta egon behar zirela. Akats txikitxo hori biziaz ordaindu zuen emakumeak, ezin nuen horrelako hutsegite bat bere horretan gera zedin onartu. Barkatu al zioten, bada, Evari zuhaitz debekatutik sagar hura jan zuenean? Edo Pandoraz errukitu al ziren honek kutxa ireki eta mundutik zoritxarra zabaldu zuenean? Kasualitatez biak emakumeak, eta ez, ez zieten parkatu, hain zuzen horregatik hil nuen Ingrid, emakumea zelako, hasteko, eta nire ordenarekiko jarrera bereganatu ez zuelako, bestetik.

Maitasun osoz hil nuen andrea, lo zegoen bitartean. Seiak inguruan irten zen nire etxetik aipatutako akats bortitz hori burutu ostean, irribarre batez irten zela oroitzen dut dohakabea, egin zuenaz jabetu gabe nonbait, etxera heldu eta bere semeei deitzeko

esperantzan seguruenik, ez zekien ordea hura izango zela haien ahotsak entzungo zituen azken aldia. Banekien zein zen bere bizilekua eta lanean hasi zenean, segurtasun kontuak zirela medio, bere etxeko giltzen kopia bat egin nuen. Giltzak banituen eta kokapena buruan baita, soilik maisutasun handienaren isla izaten den nire plan perfektu bat behar nuen. Ez nuen askorik iraun une handietarako irekitzen dudan Kriantza ardo botila txikiaren laguntzaz, irudimenaren mekanismoak martxan jarri eta asasinatze gogoangarri bezain eredugarri bat burutzeko.Liluratuta nengoen nola bururatu zitzaidan hain burubide perfektua horren denbora laburrean, Kriantza botila amaitu orduko nire planaren ertz guztiak ondo lotuta nituen dagoeneko.

Sarritan harritu egiten nau nire adimenak. Beti eduki izan dut garunarekin obsesio handia eta neuronek duten funtzionatzeko era goraipatzekoa dela deritzot. Nerbio sistemako organo handiena da zentzu guztietan, hain leku txikian hainbeste estimulu nola sar daitezkeen ulergaitza baita. Belaki itxurako gauza nimiño batek pentsamendu, memoria, emozio zein hizkera kontrolatzearen ideia benetan kilikagarria egiten zait eta “ero” deitzeko joera dutenak ez dira konturatzen barrunbeetan dugun altxorraz. Betiere, erabilera egokia ematen jakin behar zaio eta seguru aski pasio horretatik datorkit niri dudan adimen azkar eta intelektuala, ez naiz, bada, hain eroa izango garuna behar den bezala erabiltzen dakien bakarra izaki.

Ingrid ezin hobeto tratatu izan dut beti, merezi zuena baino gehiago ordaintzen nion, nahi zuen guztietan etxeraino laguntzen nuen, bere herrialdera bidaiatzen uzten nion horretarako asmoak zituen bakoitzean... Gainera nire iloben arropa zaharrak oparitzen nizkion bere semeek jantzi zitzaten, nahiz eta inoiz ez dudan ulertu “zaharrak” zergatik ziren, nik ezin berriago ikusten nituen denak eta. Dena dela, erregina baten pare bizi zen nik jartzen nizkion erraztasunei dagokienez, bihotz oneko pertsonak eroak al dira?.

Gogoan dut bere etxera bidean nindoala neukan patxada, egiten nuen gauza oro lasaitasunez hartzen banuen ere egun hartan ohi baino trankilago nindoan, nik eskatzen nuena betetzen ez zutenak lasta hutsa zirenez, nire bizitzan eragozpen bat saihestuko nuela banekielako. Nire albotik pasatzen ziren pertsona guztiak goitik behera begiratzen nituen eta begirada bakoitzean benetan zoroak eurek direla dioen nire teoria berresten nuen. Nolanahi jantzitako gazte porrozaleak, paseatzen zuen txakurraren berdintsua zen gizon txapeladuna, bizitza bere azala bezain beltza edukiko zuen senegaldar disko saltzailea.... Nire pentsamenduetan murgilduta nengoela konturatu nintzen desberdin izatearen beldur dela jendea, bere harremanen nukleoak behartzen dion estetika, janzkera zein pentsaera eduki behar duela berari barre egin ez diezaioten, desorekatua dela pentsatu ez dezaten, desberdina izateak eta arazo psikologikoak edukitzeak zerikusirik ez eduki arren.

Azkenik, bere etxera heldu eta arin egin nuen guztia. Lehendabizi, jatorra izan nintzen eta nire desioen zergatia azaldu nion; Ingridek, ordea, ez zuen konprenitzen azaldutakoa, urduri zirudien, etsipenaren mugan, ohetik jaiki berri, izerdi tantaz blai zuelarik kopeta. Hala ere, ez zegoen beste irtenbiderik, zoria erabili nuen eta aizto batez baliatuz Ingriden gorputza desordenatu nuen, berak ordu batzuk arinago nire arropak desordenatu zituen bezala. Besoetatik hasi nintzen, nire alkandora marradunaren mahukak ez zituen eta ondo tolestu, horrela jarraitu nuen, beti ere orden bat eramanez, ezkerreko besoa, eskuineko hanka, eskuineko besoa,ezkerreko hanka... apurka-apurka, erritmo egokian baina prisarik gabe. Ezker, eskuin, ezker, eskuin... xehetasun

ezdeusenak ere kontuan hartuz, zehaztasun osoz ebakitzen nion tendoien artean zeukan tartetxo bakoitza. Oso gutxi sufritu zuen, horretarako, lasaigarri ugari hartzera behartu nuen nik neuk arduratsua naizenez, nahita ekarritakoak, eta sufrimendu gutxirekin hil izanak, gainera, lanak erreztu zizkidan. Bere atal guztiak simetria osoz ebakita nituelarik, atsedenaldi txiki bat hartu nuen nire lana miresteko, harakin onenaren gisara ebakitako silueta perfektu hori oraindik oroimenean iltzatuta daukat.

Amaitzeko, gorputzeko atalak banan-banan, orden egokian,hartu eta ilobekin noiz edo noiz eginiko puzzle bat bailitzan zati guztiak elkartzen hasi nintzen.Orduak igaro nituen parte guztiak josten, baina ondorioa ezin hobea izan zen. Arinago desordenatua ordenaturik zegoenean bertan utzi nuen Ingrid, zegoen bezala, lotan, plan perfektua zen, dudarik gabe, horrela inor ez zen konturatuko gertatu zenaz, ordena baitzen nagusi. Dena beti bezala zegoen.

Etxera heltzean beste Kriantza botilatxo bat atera eta gorputza ebakitzean neuretzako gorde nuen atal bakarra nire gelako apalean jarri nuen garaikur bezala: Ingriden garuna. Horrela, nire gelan nengoela bertara begiratzea baino ez nuen konplexutasunaren sinbolo horri gorazarre egiteko eta ni neu harritzen nauen egindako ekintza odoltsu hura egiteko eduki nuen maisutasuna gogoan izateko.

Gizarte honetan ulertzen ez nauten sentsazioa daukat, beraz, ordutik, beste hainbat heriotzaren erantzule izan naiz, hemen giltzapetu ninduten arte, zikinkeriaz betetako lau pareta hauen artean. Hemen ez dut nire burua leku onean ikusten, ez naiz bizirik sentitzen, ezta garbi ere, “ordena” hitza deskribatuko lukeen azken lekua baita satorzulo hau. Ez dut inon irtenbiderik bilatzen, argia ikusteko modu bakarra noizean behin hartzen dudan medikazioa izaten da, lasaitasunarekin egiten dut dantza droga horien eraginpean eta jendea hiltzen nuen momentura bueltatzen naiz, nire helburuen tontorrean egoteak sorrarazten zidan plazer hori sentituz. Hala ere, seguru nago arinago edo beranduago hemendik irteteko moduren bat aurkituko dudala, azken finean, ni ez naiz eroa, intelektual bat baizik.

Oier Orue Basterretxea
BATX. 1. maila
"Euskaldunok euskara euskarri"

ETORKIZUNEKO BASAJAUN

Udako oporretako azken egunak ziren haiek. Urtero bezala oporrak bukatu ostean ikasturte berri bat hasten zen. Hori bai, arestiko ikasturtean fin eta langile ibiliz gero, osterantzean errepikatu egin behar eta hori inori ere ez zaio gustatzen; niri ez behintzat.

Lehen esan dudan moduan, udako oporretako azken egunak ziren. Ondo aprobetxatu behar ziren.

Belar sikuak eginda genituen. Fardoak egiten genituen. Hiru edo lau egunetako lana zen. Gehiago ere bai, belarrak euria hartuz gero. Lan gogorra izaten zen fardoak egitea. Gure ama-aiten eta arbasoen tankeran belar soltea ekartzea baino hobea bai, uda guztia belarretan pasatzen baitzuten astoa eta gurdia harturik.

Goizetan etxeko lanak egiten laguntzen nuen etxean eta arratsaldean egiteko zereginik ez baneukan, Elantxobeko edo Mundakako portura joaten nintzen lagunekin. Gernikako autobus eta tren geralekuan elkartzen ginen: Miguel eta Jorge Ajangizko bikiak, Jeronimo Kanpantxukoa eta Jon eta Ander Ibarrangelukoak ziren nire lagunak. Bidean udan zehar egindako abenturak kontatzen genizkion elkarri.

Portura heltzean, motxilak bazter batean utzi eta portutik salto egiten genuen uretara. Orduantxe hasten ziren gure barreak, norbait uretara lepoz erortzen zenean eta eskaileretatik lepoa gorrituta igotzen zenean.

Bizikletan ere aritzen ginen. Gure etapa erregina Oiz mendia igotzea zen. Gailurrera igotzea kostatzen zitzaigun, baina merezi zuen, bertako ikuspegi ikusgarriak doakoak baitziren. Ogitartekoa jan eta argazki batzuk atera ondoren, menditik ziztu bizian jaisten ginen. Muturreko abiadura hartzen genuen. Anderrek, Jeronimok eta nik behintzat bai, Jorge eta Miguel anaiak balazta eman gabe joateko beldur ziren eta.

Grazia ematen ziguten balaztetako pastillak sits janda edukitzen zituztelako. Laburbilduta, oso kirolzaleak ginen. Astelehenean Ajangizen geratu ginen Eneko nire anaia eta ni, lagunekin pilotan jokatzeko. Jo eta ke aritu ginen, geratu gabe. Ez dakit nola ez genuen frontoia hautsi Anderren pilota gogorrarekin. Eta are gehiago, nola ez genituen geure eskuak apurtu, takorik egin gabe.

Noizean behin paseoan zebiltzanak pasatzen ziren frontoitik eta gu ikusten geratzen ziren. Animatu ere egiten zuten. Gogor animatu ere. Geu ere harrotu egiten ginen, ikusle apurrei ikuskizun on bat ematea gustatzen zitzaigun eta.

Gauerantz jada, nekatuak ginen eta tabernara joan ginen freskagarri bana hartzera. Tabernaren kanpoko terrazan eseri ginen eta patxadatsu hizketan hasi ginen:
- *Zer, izerdi nahikoa bota dugu ezta?* - esan zuen Jonek.

Jeronimok isekaz begiratu zidan eta bota zuen:
- *Oierrek behintzat bai.*

Nik ere iseka begirada bota nion eta barreari eutsiz esan nuen:
- *Gustura bota dut bai, aspaldiko partez, jipoi ederra eman dizut eta.*

Denak barre algaraka hasi ginen, Jeronimo bera ere bai, barre behartu batekin. Miguelek bere freskagarriari trago luze bat eman ondoren aipatu zuen:
- *Bihar zerbait egiteko esperantzarik ba al duzue?*

Denok eguna libre geneukala esan genuen eta planak egiten hasi ginen. Lagunen artean desadostasuna nabarmendu zen, batzuk Oizera joan nahi zuten eta besteak Elantxobera. Nik ez nuen ezer esan, isilik geratu nintzen, pentsakor. Banekien elkarren artean haserretuko zirela eta elkarrizketak eztanda egin aurretik aipatu nuen:
- *Biak batera egin ditzakegu. Goizean Oizera joan gaitezke eta motxilan bainujantzia eramanda, Elantxobera joan gaitezke. Hori bai, goizetik irtetekotan.*

Isilune benetan isila sortu zen denon artean. Jorge izan zen hitz egiten lehena:
- *Niri ideia bikaina iruditzen zait.*

Denak sailean bota zuten nire ideiaren oniritzia.

Ama betiko moduan, bederatzietan etorri zen Enekoren eta nire bila. Etxera heldu ondoren dutxa fresko bat hartu nuen eta biharamunerako gauzak jarri nituen. Afari arin bat jan ondoren ohera joan nintzen.

Nekaturik altxatu nintzen hereneguneko esfortzuarengatik. Gosari indartsua hartu nuen, ondorengo bidaian energiarik gabe ez geratzeko.

Oraingoan ere Ajangiz hautatu genuen geraleku. Goizeko bederatzietan geratu ginen. Ni zortzi eta erdietan irten nintzen etxetik geralekura denboraz heltzeko.

Betiko moduan, eta ez nintzen batere harritu, neu izan nintzen lehena Ajangizera heltzen eta berriz diot, ez nintzen batere harritu; lagunak ez ziren ordurako etorri, lotan geratu ziren.

Denok batu ginenean, pedalak emateari ekin genion, zeru oskarbi baten azpian, Oiz mendia zain geneukala. Bidean, umore onez joan ginen, euskal kantuak abesten. Munitibarren atsedena hartzea erabaki genuen. Herriko tabernan geratu ginen, edateko zerbait eta pintxo bana hartu genituen indarberritzeko. Indarberrituta, Gerrikaitzeko aldapari ekin genion. Bost kilometro egin behar genituen Oizera hartzen den bidegurutzera heltzeko. Bide erdian gindoazela, sirena hotzak ziren, ez oso hurbil. Gero eta nabarmenagoak ziren. Halako batean ertzaintzako kotxeak ziztu bizian pasatu ziren gure albotik. Lau kotxe pasatu ziren. Ia-ia Ander bizikletatik bota zuten. Hartu zuen izuarekin laster batean baztertu zen bidertzera.
- *Jon, Zure bila ibiliko dira* - esan nion
- *Ixo!* -egin zuen Jonek garrasi, begirada urrunean tinko zuelarik.- *Zerbait gertatu da eta nik esango nuke hor goian jazo dela. Begiratu keari.*

Jonek arrazoia zuen, Oizko bidegurutzera heldu ginenean, han ikusi genuen panorama ez zen ohikoa. Basogintzako langileak, egur-apeak eta beraien makineria uzten zuten landan Kamioi bat sutan zegoen. Antza denez, lehertu egin zen. Narra-gailua ere ubelduraz josita zegoen eta ordenan multzo bat eginda egoten ziren egur-apeak lurrean botata zeuden.

Ertzainek, bidea moztu zuten eta ezin izan genuen mendiranzko bidea hartu. Haietako batengana hurbildu nintzen jakin nahiaz.
- *Zer gertatu da jauna?*
- *Oraingoz ez dakigu. Paseoan zebilen gizon batek eman digu honen berri. Hemengo txikizioa minutu gutxiren buruan egin du egin duenak, oso bizkorra izan da* -esan zidan ertzainak.
- *Bat baino gehiago izango ziren.*
- *Bistakoa da. Zorionez ez da biktimarik izan. Bertako langileak oporretan dira.*

Argazki batzuk atera nizkion krudelkeria hari. Ezer egitekorik ez geneukala ikusirik buelta hartu eta Elantxoberako bideari ekin genion. Laida eta Laga hondartzen ondotik pasatu ginen. Itsasoa bare zegoen eta marea behean, guri gustatzen zitzaigun moduan, horrela portuan jauzi handiagoak egiten genituelako.

Eguerdian heldu ginen. Goiz guztia bizikletako pedalei ematen pasatu genuen eta jada gose ginen. Motxilan geneukan ogitartekoa jan genuen eta janda komenigarria ez denez uretara sartzea, eguzkia hartuz siesta ederra bota genuen. Nik ahaztu gabe eguzkitarako krema eman nuen.

Jeronimo siestatik azala gorri-gorri zeukala esnatu zen. Guk egin genituen barreak, eguzkitarako krema botatzea ahaztu zitzaion eta.

Arrastia, urpekaritza egiten pasatu genuen. Olagarrotan genbiltzala esaten genion jendeari, baina ez genituen inoiz ere harrapatzen oso bizkorrak baitziren eta gu gainera, esku hutsean ibiltzen ginen. Olagarroen ordez, urpeko zaborra batzen genuen eta inoiz uretako barraskiloak eta lanpernak ere batu izan genituen.

Jauzi batzuk ere egin genituen, txiri-buelta eta guzti. Airean geundenean, edozein akrobazia egiten genuen, edo behintzat ahalegindu, gehienetan gaizki irteten zitzaizkigulako.

Etxera autobusez joatea erabaki genuen. Bizikletak ozta-ozta sartu ziren maletegian. Arteaga pasatu ondoren, jendea murmurrean hasi zen eta bidertzeko leku batera eskuarekin seinalatzen zuten. Hatzen norabideari segitu nion. Ezin liteke, esan nion neure buruari. Aho bete hortzekin geratu nintzen, arnasa hartzeko eta hitz egiteko indarrik gabe. Beraz, neuk ere hatzarekin markatu nuen tokia, nire lagunek ere ikusterakoan. Goizean ikusitako panorama berbera ikusi genuen: kamioi bat sutan, narra-gailua ubeldurez josia eta egur apeak edonondik botata.

Gernikara heldu arteko bitartean, gertatutakoaren hipotesiak egiten igaro genuen. Behin Gernikara helduta norberaren bizikletak hartu eta bakoitzak etxerako bideari jarraitu genion, bakoitzak bere bidetik. Etxera heldu nintzenean egin nuen lehenengo gauza gertatutakoa amari, aitari eta Enekori kontatzea izan zen. Harrituta geratu ziren. Oizko bidegurutzean egindako argazkia ere erakutsi nien. Argazkiko irudiak errealitatean ikusitakoa baino gertaera latzagoa islatzen zuen.

Afaritan geunden. Amak jateko benetan gozoa prestatu zuen. Telebistako berriak ikusten geunden. Berri titulartzat atera zuten basogintzako materialei egindako erasoa. Antza denez, Euskal Herriko beste hainbat tokitan ere gertatu ziren horrelako erasoak astean zehar eta oraindik ez zuten erruduna aurkitu.

Gauean ezin izan nuen lorik egin. Ez nintzen logura. Biharamunean Oizko bidegurutzera joatera erabaki nuen

Bizikleta lagun izanda abiatu nintzen mendira. Erasoaren lekura heldu nintzenean, bizikleta bidertzean utzi nuen. Jada ez zegoen ertzainik eta bidea libre zegoen. Inor ere ez zebilen eta udako haize epela eta behe lainoa zegoen. Bazterrak arakatzen hasi nintzen aztarna baten bila. Konturatu nintzen landa inguru guztia oinatzez beteta zegoela. Baina ez edonolako oinatzak, gizaki batenak baino handiagoak ziren. Narra-gailua ukabilkadaz ubelduta zegoen, hauek ere tamainaz handiak.

Bat batean, orro handi bat entzun zen munstro batena bezalakoa. Beldurtu egin nintzen, orro hura ez baitzen animalia batena. Laino batetik sekulako gizon zaharra atera zen. Ile luzea zeukan, beso handi eta indartsuak, sudur handia eta begirada benetan basatia. Niregana hurbildu zen. Pentsatu nuen bertan akabatu behar ninduela. Adore faltsu batekin esan nion:
–*Nor zara zu?*

Isilik geratu zen eta basapizti batek esango zuen bezala “ Basajaun” oihukatu zuen.

Indarrik gabe geratu nintzen hori entzundakoan. Euskal mitologiako pertsonaia bat errealitate.

Oso haserre zirudien. Kanpotik ematen zuen baino adimentsuagoa eta ulerkorragoa zen barnetik. Kontatu zidan bera izan zela Euskal Herrian basogintzako materialei erasoa jo ziena. Nahita egin zuela esan zidan, gizakia Euskal Herriko paisaia naturala apurtzen ari zelako.

Dena ulertu nuen orduan. Basajaun basoetako zaindaria zen eta basogintzako langileak areriotzat hartzen zituen.

Soluziorik ote zegoen galdetu nion. Aipatu zidan berak gizakiak botatako basoak eta hildako animaliak biziberritzeko ahalmena zuela, baina gizakiak basoak gero eta gehiago ustiatzen dituela eta bere ahalmenak ez duela hainbesteko indarrik.

Ideia bat bururatu zitzaidan. Nire lagunak eraman nituen basajaunagana eta esan genion ea berak erabiltzen zuen ahalmena irakatsiko bazigun guri erabiltzen.

Basajaunen begi txikietatik negar malkoa irten zen eta pozarren baietz esan zigun. Geu izango ginen etorkizuneko basajaunak.

Koldo Muñiz Aldamizetxebarria
BATX. 1. maila
"Zaindu maite duzun hori".

IRAGANA, ORAINA...

Dena txarto doanean
Ez duzu inor abaro
Eta normala da klaro
Zaude aldarte txarrean
Bai, baina hori bat-batean
Aldatu daiteke edo
Nahiz ta zuk ere ez espero
Malkoen ordez irri leuna
Ta berarekin maitasuna
Zugana heldu ezkero.

Ez da lortzen berehala
Maitasuna aurkitzea
Zeren gure gizartea
Da horren superfiziala
Barnekoa ustez hutsala
Hor sortzen da distantzia
Ze jendeak du ahantzia
Nahiz ta beraiek ez uste
Zabaldu beharko genuke
Barneak duela garrantzia.

Behin maitasuna aurkitzean
Dena hain polit ta eder
Baina jokatu ezkero anker
Egon zaitezke trantzean
Noizean behin ta lantzean
Poza izan leike murritza
Geroa bilakatuz hitsa
Baina horri ematea buelta
Elkarlanean, kolpeka
Hori da elkarbizitza.

Ta buelta emandakoan
Egun oro paradisu
Lerdetan eta mukizu
Ze muxuak dira doan
Ta berarekin alboan
Arrosa dira asunak
Eta garbiak lizunak
Bera gabe agonian
Eta bere konpainian
Laburrak dira egunak.

Egunik egun hileak
Ta gero urteak datoz
Zenbat bizipen, zenbat poz
Batera pasatakoak
Nahiz batzuk izan lausoak
Txarto egotean, alafede!
Izan zuena hainbeste botere
Bere laguntza, altxorra
Ez da kitatuko zorra
Ezta bizi osoan ere.

Garai latzak pasa ziran
Baina hortxe dago dana
Baita gure iragana
Ere bizitzaren aintziran
Pilatuta, jira-biran
Ta orain denak zikoitza
Lehen sentiberan, bikoitza
Hor dauka pilatuta dena
Ze oraina gehituz lehena
Gara pertsona bakoitza.

Malkoak ere barrura
Izan zirenez isuri
Nahiz horrela ez eman guri
Eta ustez ez ardura
Bada pisua, aingura
Pasa zuenak izua
Aldarte txar, tristatua
Ona duenean aurkitzen
Ikasia du bizitzen
Momenturo momentua.

Bizitakoak bizita
Gaude gu gaur egunean
Poz ta alaitasun betean
Dena dugu hain polita
Eta begiak itxita
Hor destino perfektoa
Ni izanik zure albokoa
Maitasunean oinarrituta
Eta eskutik helduta
Marraz dezagun geroa

Andere Aginaga Urrengoetxea
BATX. 2. maila
"Bide zidorrik ez duen norabide honetan,
urrats bakoitzak borroka berri bat dakar"

BIZI BERRI BAT

Gero eta gutxiagok mantentzen dituzte euren lanpostuak, ekonomiaren oinarria guztiz hondatuta dago eta guk, gazteok, bizi guztia gogor ikasten egon garenok, orain ez gara gai merezi ditugun lanpostuak aurkitzeko. Asko eta asko kanpora joan dira bizi berri eta hobeago baten bila; beren bizi guztia maleta txiki batean giltzapetu eta hori besapean hartuz aurrera egitea erabaki dute, inoiz atzera begiratu gabe. Milaka agur, milaka malko isuri dira azkenaldian gure artean; milaka musu eman dira, berriz sentituko ez direnak. Hegazkinera igoteko gai izan direnek, mundu berri bat eta infinitu aukera dituzte zain.

Nire garaia heldu dela erabaki dut; ordua da bizitako guztia ahaztu eta ni ere maleta besapean, lau horma hauetatik kanpo ditudan abentura guztietan murgiltzeko. Azken momentuko xehetasunak konpontzen ari naizen bitartean, oroitzapen ugari ditut buruan biraka: txiki nintzela ezagututako lagunak nola jarraitzen duten nire zati izaten, udako bizipen zoroak, gure zorakeriak, gure izaera orain dena bihurtu dutenak… Ezin izango dut inoiz ahaztu lur hauek eta bere biztanleek eskaini didatena, nire postazun eta tristuren eszenatokia baita hau.

Agur esateko garaia iritsi da, agur herri maite, agur bihotzeko lagun; laster nauzu hemen, lasterarte.

Nire bidaia hasi da; lan gogorrarekin garaipenerako bidea aurkituko dut, oztopo bakoitzean aurrera egiten ikasiko dut, jausten naizenean zutik jartzeko gai izango naiz eta ordua denean, nire ametsa bete eta hainbeste desiratutako arrakasta lortuko dut. Bitartean bizitza xume bat izango dut, horrela bizitzako txikitasunak miresten ikasiko ditut eta haiek niretzat handikeria bihurtuko dira.

Lurra hartu dut neurrezina den hiri honetan, gora begiratu eta zerua apaintzen duten etxeak dituen hirian; hain desberdina nire jaioterriaz alderatuz… espero dut

denboraren poderioz nire bihotza ere orain nire bizitoki deneko biztanle bihurtzea, oraingoz horrekin pozik sentituko nintzateke.

Internet bidez alokatu nuen etxe hau, ezin da etxea denik ere esan; hain da txikia, hain dago ezkutatua, hain beldurgarria… heldu bezain laster milaka oztoporekin topo egitea ere… hori zortea… Baina ni ez naiz kikilduko, ez horixe, esperantza da nire kotxearen motorra; eta esperantza ez da inoiz galtzen. Behintzat, nik ez.

Lehen eguna ezezagun dudan hiri honetan, kalerik kale kiosko baten bila ari naiz, egunkari bat erosteko asmotan; bere orriak begiratu eta lan bat aurkitzeko asmotan. Beste zerbait aurkitu bitartean, aurrera egiteko adina eskaintzen didan lan bat; hemengo hizkuntza ikasi eta normaltasunaz mintzatzeko aukera emango didan lana aski dut.

Gaurko eguzki beroak nire azala laztantzen duen bitartean, jira-biraka nabil, noraezean; aurrera, gero atzera, ezkerretara, eskuinetara eta beti hasierako puntura. Azkenean aurkitu dut hainbeste desiratzen nuen kiosko hura, bertan lanean diharduen agure zaharrak ahots leunaz galdetu dit: “What are you loooking for young lady?” Eta nik ingelera ez dudanez inondik inora ulertzen, zeinuak egiten hasi naiz zoroa izango banintz. Agurea barrez lehertu beharrean dago, ez daki zer esan edo nola lagundu, gure komunikazioa guztiz nulua da; baina azkenean nire poltsikoko hiztegiaz gogoratu eta bertan “egunkaria=newspaper” aurkitu eta hala eskatu diot “Newspaper”, gero “lana=work” bilatu eta esan diot “Work, I need it”. Aguretxoak barre algaren artean bere alboan zuen papertxoa eskuaz seinalatu dit; bertan, argi asko irakur nezakeen norbaiten bila zebilela. Nola edo hala, hiztegiaren laguntzaz, nire ingelerarako gaitasunaz eta Google Traductor-aren laguntzaz ados jarri eta “taran” lanean nago jada.

Badira hainbat egun hiri ezezagun honetan atzerritar naizela, eta egia esan hain da zoragarria orain arte ezagutzeko aukera izan dudana; hain miresgarria, nire begiek dir-dir egiten dute bizitzak eman didan aukera zoragarri honen aurrean. Ume bat bainintz gabon eguneko goiz magiko horretan; begi distiratsuak, koloretako argiak nire poztasunaren ispilu, gezur horren lilura, bere zirrara nire gorputzeko odolean barrena saltoka, irrealitateko errealitate polita… hainbat sentimenduk kolpatzen naute batera. Zeruari diot otoitz bukaera urrun gertatzeko, amets hau inoiz ez bukatzeko.

Orain dela bi egun, kioskoan gogor lanean nenbilela, gizon bat hurbildu zitzaigun kotxeen makinariari buruzko aldizkari bat eskatuz; informazio bila zebilen, dirudienez mundu horretan lanean dabilen korbata eta trajezko enpresario horietako bat zen. Nik nire ezagutzaren laguntzaz, jakinduria gehien eskainiko ziona hautatzen lagundu nion; hark harriduraz entzun eta begiratu zidan, ez zuen ulertzen zein zen nik nekienaren iturria. Azkenean, berarekin kafea hartzera gonbidatu ninduen, lasai hitz egin eta nire istorioa berari ipuina balitz kontatzeko.

Kafearen ostean, itxaroteak merezi duela baieztatu nuen; izan ere, ni ingeniaria mekanikoan graduatua nintzen eta enpresarioa langile bila zebilen. Ni nintzen berak aurkitu zuen langile bat, beheko pisutik hasi eta goiko bulego erosoetan amaituko zuena. Kioskora bueltatzean agureari gertatukakoa azaldu eta bere bedeinkapenarekin etapa berri bat hasteko prest aurkitzen nintzen.

Gaur izan da nire abenturako bigarren etapako lehen eguna; ezinhobea. Bertan Sarah izeneko neskatila ile-gorri bat ezagutu dut. Hain dago zoratuta, bere ile

kizkurraren antzera, mundiala. Gaur gauean argien hiri hau apurtzera irtengo gara, bai horixe, edaria batetik, dantza bestetik, eta denaren gainetik: jai izugarria.

Jantzi gorria soinean jarri, belarritakoak hautatu, ilea batu, ezpainak gorritu eta takoi beltzak hartuz prest gaude.

Ez dio axola ordua, erlojuaren orratzak aurrera egiten du, baina gure indarra ez da gutxitzen eta etxe orratz batera igotzea pentsatu dugu. Paisaia mirestu nahi dugu, munduaren erreginak sentitu, denaren jabe sentitzen garela haizeari aitortu.

Mila bider eskailera musukatu ostean, hainbat jauzitan edari gabe geratu ostean, takoiak eskuan hartzean; heldu gara, goian gaude, atea ireki eta haizeak nire azala laztantzen duela sentitu dut. Libre naiz; zerua, paradisua, eskuarekin uki dezaket. Mundua nire hanketara makurtua dago, hiriaren jabe sentitzen naiz; gauaren argiaren maitale. Orain bihotzean dudan sentimendu hau betirako oroitzapen bihurtuko da. Mila esker ene lagun, adiskide berri, esker anitz Sarah; zurekin ikasi baitut munduko edozein izkinatan aurki dezakedala nire antzera zoroen munduan bizi den norbait, nire bizitzan pieza garrantzitsua izango den norbait.

Egunsentian buruak eztanda egin beharrean izartu gara etxe orratzeko teilatuan. Barre algara artean, gaueko gertaerak lausoturik gogoratuz, etxera atseden hartzera joatea erabaki dugu; egun berri bati hasiera irribarrez emateko.

Pisuko atea irekitzean gutun bat ikusi dut lurrean, buelta eman eta Bizkaiko zigilua ikusi dut. Kafea prestatu eta negar eta irribarre artean hura irakurtzeari ekin diot:

“ Hainbat aste dira gure etxea, zure herria atzean utzi zenuenetik; hainbat ordu ez zaitugunetik entzun, hainbat irribarre ez ditugunak sentitu.
Egunak aurrera doaz eta zure falta nabaritzen dugu, gure buruetan oroitzapen bihurtu zara, zure aurpegia begi dirdiratsu eta anpuluz beteekin gogoratzen dugu. Besoetan hartu nahi zaitugu, zure berri izan, aste hauetan gertatukoa kontatu, zure hutsunea nabari dugula belarri ahots gozoz xuxurlatu. Ez zaitugu segundo batez ere ahaztu, gure ekintza guztietan bihotzean zaitugu; zure presentzia antzeman dezakegu, une bakoitzean esango zenukeena irudika dezakegu. Horrela oraindik, zure zati sentitzen gara.
Egia da orain bizi berri bat eraiki duzula, baina bizitakoa atzean utzi arren, ez da inoiz ahaztu behar; gure eskaera zuk gure artean iraun duzun legez, gu zure bihotzean oroitzapen huts ez izatea da, ematen duzun pauso bakoitzean alboan gaituzula sentitzea da.
Zure bisita baten zain gaude; uda luze bat zain dugu eta zu uda horretan gure alboan izatea besterik ez diogu eskatzen jainkoari.
Ikusi arte, laster arte.

Lagunak eta familia”

Gutun hau irakurri eta segituan, jaioterrira bueltatzeko gogoak indartsu astindu nau; nire ondoan behar ditut, denak besarkatu. Hala ere, orain bizi berri bat dut, ezin dut hemen hainbeste lortzea kostatu zaidan guztia utzi eta bertara bueltatu. Gogoan ditut, ez ditut inoiz ahaztuko, baina orain ez da bueltatzeko garaia. Laster izango naute bueltan, baina oraindik ez; urte batzuen buruan bertan izango naiz, hemen eraiki dudan bizia

egonkor bilakatzen denean. Luma hartu eta erantzun diet, papera malkoz busti dudan arren, badakit nire erabakia zuzena dela.

"…Urteek aurrera egingo dute, gogorra dirudi baina ohartu baino lehen alboan nauzue, nire bizipenen berri ematen, zuen falta zenbat nabari dudan sentitzen. Ez da agurra, soilik gero arte bat; indartsu mantendu eta nitaz ez ahaztu, zuek baitzarete nire arrakastaren oinarria, zuen laguntza da gertatzen ari zaidan ororen zergatia.
Ez isuri malkorik, irribarre batekin gogoratzen baitzaituztet…"

Asier Galarza Garai
BATX. 2. maila
"Euskera da gure territorio libre bakarra"

ATEKO GOTORLEKUTIK

Nik lo behar nuen, baina ezin hartu. Bera etorri zain, nahi eta nahi ez esnatuko ninduten hotsen arrazoi eta eragilea. Egunez zen pertsona adeitsua, gauez, usain txarrak eta hizkera ulertezinak irensten zuten. Nik ezin nezakeen ezer egin ez esan, lo nengoela suposatzen baitzen, baina gau hartan ezin eutsi nion tentazioari, ate zirrikitutik egongelara ematen zuen gotorleku horretatik begiratzeko.

Ama beldurrez, urduri, aitaren etorreraren zain zegoen, etor ez zedin nahi izan arren. Baina, beldurra ama baino indartsuagoa zen, eta ezin beldurrari aurre egin. Hitzen beldur, erantzunen beldur, kolpeen beldur… bere beldur.

Beldur horrek ama urrezko kaiolan preso zeukan, eta irteten saiatzen zen aldiro, barroteen kontra joaz min hartzen zuen. Batean atea zela, bestean dutxako manpara… orduan txikiegia nintzen zer gertatzen zen konturatzeko, baina gerora, oroitzapenak arakatuz konturatu nintzen, ez zirela istripuak.

Galdetzen nionean: "ama, zer pasatu zaizu?" erantzuten zidan esanez "lasai laztana ez da ezer, berak maite gaitu guk maite dugun beste". Ez nekien zertaz ari zen, baina lehen malkoa erortzerako lepotik goxo heltzen nuen, muxu bat eman eta erortzearekin kontuz ibiltzeko esaten nion. Inozentzia hori, ezjakintasun hori zen amaren zorion, sufrimendua niganaino heltzen ez zela jakiteak pozten zuen.

Isiltasunean sufritzen zuen, eta jendaurrean beti azaltzen zuen gordeta zeukan irribarrerik ederrena, barrutik hutsik eta pot eginda egon arren, ez baitzuen nahi inork sufri zezan bere ondorioz, eta are gutxiago maite zituen pertsonek. Miresgarria zen, bere atsekabeak lepoan hartu eta aurrera egiteko zuen gizagaindiko gaitasuna, nik gerora deskubritu nuen arren.

Ulertzen ez nuena, zera zen: gauetan, aitaren zain zegoela, ama nonbait ezkutatu balitz bezala zela, ez zegoen han. Gorputz hotz, huts hark, hats geldoa zuen, begi hertz bustiarekin batera.

Egonezinak azazkalak jatera bultzatzen zuen, hanka mugitzera, begirada galtzera, negar egitera. Konturatu orduko, portaleko atearen hotsa. Adi jarri zen, arnasa sakon hartu eta malkoak lehortu ondoren, prest zegoen. Ni aldiz, gerta zitekeenaren zain, jakin-minak bultzatuta, ate ostetik begira.

Igogailuaren hotsa, gure solairuan gelditzen zela konturatu. Korridoreko argia ate azpitik sartzen zen, eta bi oinen itzala pasatzen zen azpitik. Giltza hotsa oraingoan, sarraila aurkitu ezin zutelarik, tanteo hutsez zulora joan nahian. Amak berriz arnasa hartu, eta atea ireki zuen.

Bost bat segundo, elkarri begira ezer esan gabe, bata bestearen beldurren jabe, baina ausart hala ere. Aurrean nor zeukaten zekitelako, baina ez zutelako ezagutzen. Biak ere begiak gorri, aurpegia zuri eta barrua beltz, era berdinean, baina era desberdinean, halako batean, begietan zerbait piztu zen arte.

Bat-batean, hortxe, lehen ukabilkada. Ez genuen espero, ez berak, ez nik. Eman eta aurpegia mugitu ere ez zuen egin, eta lehen malkoa erori zitzaion. Zaplada erantzuna, hotza, eta hotsa nire logelaren barreneraino sartu zen, nire barreneraino sartu zen aldi berean.

Itzalek sarrerako horman txotxongiloen borroka bat ziruditen, aginduta baleude bezala, sorginduta, elkarren gorputzak kolpeka apurtzeko. Indar handia zuten biek ere, ezin sinetsizkoa zen, nola eusten zien elkarren kolpeei. Ezin garrasi egin, ezin irainik bota, ni lo nengoelakoan. Baina ahapetik, lehendabizikoak ihes egin zion, inoiz entzun ez nuen hitza, bortitza, mingarria. Lehenagoko zaplada baino barrurago heldu zitzaidana, nire barrena bustiz eta bigunduz, nire masailak bustitzen ziren aldi berean.

Ezin nuen jasan hainbeste maite nuen pertsona horri horrelakorik esan ziezaioten, baina berdintsu maite nuen baten ahotik entzuterakoan, noren alde jarri? Biak nituen guraso, biak zaindari, biek maite ninduten. Ezin logelan sartu eta ezin kanpora atera geratu nintzen, guztiz blokeatuta, gogortuta, harrituta, beldurtuta.

Maitasunaren eragina ote zen hau? Zergatik jotzen zuten elkar? Zergatik negar egin? Zergatik sufritu behar? Nire jakintzatik urruti geratzen zitzaizkidan ulertezinezko akzio, erreakzio guzti horiek.

Hormaren kontra bultzatu zuen, eta hain gustuko genuen koadroa buruaz jo zuen, lurrera botaz eta mila zatitan hautsiz. Esku biez lepotik heldu zuen. Hura ez zen besarkada bat, ez zen masaje bat, bere begietan mina ikus zitekeen eta.

Askatzea lortu zuen, hankartean ostikada bat emanez, atzera joatea eragin ziona.

Alfonbrarekin laprast, eta egongelara erori zen ziplo. Goitik begira zeukan, mespretxuz, amorruz. Ezin zen jaiki, ez nuen ulertzen zergatia, baina nire antzera bera ere, harrizko bihurtu zen.

Saihetsetara zuzen ostikada, txilio txiki batek lagundua. Bortizkeria handitzen zihoan, amorruak bere gain hartu zuen, ezin zen gelditu. Ez nuen ezagutzen pertsona hura, ez zen behintzat ezagutzen nuela uste nuena.

Negar malkoek ondo ikustea galarazten zidaten, eta zotinek ito egiten ninduten, negar mutu horretan ezin bainuen soinurik atera. Gatazka honetan minik handiena nik jasaten nuen, ezer egin ezin izanak mintzen baininduen gehien.

Altxatzea lortu zuen, mina gainditu z, eta hurbilen zeukan tokian helduta, indarra hartu eta kontraerasoari ekin zion, bi aldiz pentsatu gabe, odola hotz eta burua bero zeukala. Gerrara joango balitz bezalako garrasia bota zuen, eta gainera egin zion jauzi, biak lurrean bukatuz. Elkar ito nahian zebiltzan, elkarren beldur hori atera nahian, amaitu nahian.

Eskuetatik joan zitzaien kontua. Eskuak joan zitzaizkien amorruaren kontura, eta amorruaren kontua jadanik ez zegoen euren esku. Ez ziren euren bulkaden jabe, hitzen jabe, ezeren jabe. Kontrola galdu zuten, eurek galdu ziren era berean, eta ni, galduta, euren era berean, zer gertatzen zen ez zekien 6 urteko mutiko bat nintzela.

Tximinia alboan erori zen, azken bultzadarekin batera. Gainera salto, gupida gabe, besoak belaunekin trabatzen zizkiolarik. Ukabilkada bat bestearen ostean, bata hurrengoa baino bortitzago, gogorrago, ukabilago. Nabaria zen lehenagoko guztiak egarririk ez ziola kendu, gehiago nahi zuen. Barruan zeukan amorru guzti hori, gordea zeramana, atera beharra zeukan nolabait.

Bertzuna eskuragarri. Hautsez zikin oraindik baina berdin zitzaion, gerora gehiago zikinduko zen ingurua. Lehen kolpean galdu zuen konortea, baina odol egarriak zoratzeraino kolpatzea eragin zion, alfonbra gorritu arte. Nire gotorlekutik, beste ezer egin ezin nuelarik, negar egiten nuen, zertan zebilen ez nuelako ulertzen.

Ez zen altxatzen, ez zien bere kolpeei erantzuten, geldi zegoen. Bost minutu luzeren ondoren, telefonoa hartu zuen. “Nire bikotekidea erail dut” esanez hasi zuen elkarrizketa. Logelara zetorren. Ohera jauzi egin nuen, ahal bezala malkoak lehortu eta negar zotinei eutsi, eta lo plantak egin nituen. “Ondo lo egin, laztana” esan eta irten zen berriro. Odol hotzez itxaron zuen Ertzaintza etorri arte. Biak eraman zituzten, bat eskuak lotuta eta bestea poltsa batean, ni amonarekin utzi nindutelarik.

Ordutik 10 urte pasa dira jadanik, eta hemen nago, kartzelako bisita gelan, nire aita erail zuen pertsonaren zain, nire amaren itxura zuena, ama egun hartatik berriz ikusi ez nuen arren. Lehen bezala, gordeta zeukan irribarrerik handiena ateratzen zuen, sufrimenduaren amaiera iragartzen duen iragarki handi bat balitz bezala. Agian barrutik hutsik jarraitzen zuen, edo agian ez, kristala gardena den arren, ez baitut ama ikusten.

Maddi Ametzaga Arriaga
BATX.

"Guk betiko antzera jarraitzen dugu polbora eta lore artean, logistika eta metafora artean, Karl Marx eta andere biluziaren artean."
Joseba Sarrionandia

"LOTURETAN ASKE"

Bion arteko loturaren
hurbiltasunak itsuarazi,
betazalak begietara itsatsi,
eta zure beso pozoinduen
gaitzak kateatu ninduen
sentimenduak odolduz
ulergaitz bihurtuz.
Berriz barre egin, berriz damutu.
Egunero tarte batek nahi zaitu ahaztu

Gogoa mantentzen ezintasunez
Honek ez dirau
barrena sentiarazten gau
gorputza tamalez
nigandik ari da ihes
zentzugabe eman dit alboa
zurekin doa.
Berriz negar egin, berriz damutu.
Egunero tarte batek nahi zaitu ahaztu.

Bihotza jipoitzeari heldu
begiak garbitu ditzan
larrua izartu dezan
gurea bihurtu baitzaigu
zelda eta bere kastigu
iritsi gara muturreraino
hobe bakarrik, zurekin baino.
Berriz negar egin, berriz damutu.

Egunero tarte batek nahi zaitu ahaztu

Berriro zure ahotsaren argitasuna
ikusiko banu ere,
gehiago ez, behin ere
nire buruarekiko maitasuna
nire barruko askatasuna
kendu zenizkidan leunki
izana suntsituz, zatirik zati.
Berriz negar egin, berriz damutu.
Egunero tarte batek nahi zaitu ahaztu.

Ez den denbora,
igaro ez denak
kate gabeko kondenak
ekarri ditu albora
txinparta, sua, polbora.
Lore eztanda eztia
erraietatik ateraz udaberria.
Berriz barre egin, berriz arnastu.
Egunero tarte batek jada zaitu ahaztu.

Gerlari oihuetatik
algaren iraultza
gozamen hasperen hutsa
atera zait gogotik
bozkarioraino zutik
diraut jo eta ke
ostera ere jare senti naiteke
Berriz ulu egin, berriz kementsu
Egunero tarte batek ikusten nau dirdiratsu.

Epikurotar autarka,
hedonismoaren yonkie
bilakatu naiz emeki.
Automata orroaka,
galdu dut orekaren mapa
nire oskol asean
ubelak agertzean.
Berriz gozozale, berriz
autosuntsitu
egunero tarte batek senak ditu
galdu.

Erre nituen izarak
gelditu nintzen biluzik
kristal artean ortozik
orain badatoz ikarak
nire gorputzeko atalak
zure usaina duenean
zurea bailitzan eran.
Berriz anu egin, berriz errenditu
Egunero tarte batek ostera zugan pentsatu.

...eta denbora nuen sendagai
inertzia etsai,
konplize bihurtu eta
urkatu naute lasai.

Nile Petralanda Undabarrena
BATX. 2. maila
"Oztopoak oztopo errekatxo guztiek bat egiten dute itsasoan"

ZER DA ABERATSA IZATEA?

Udaberria zen eta Aste Santuko oporrak disfrutatzen ari nintzen.

Aurreko udan Londresetik ibilia nintzen eta oraingoan nondik norakoa eztabaidatzen ari ginela, uda hankaz gora jarri zidan e-mail harrigarria jaso nuen.

Urrunetik zetorren. Gehiegizko distantzia iritsi nion lehenengo momentuan.

Neure pentsamenduak ziurtatzeko liburutegian neukan munduko bola hartu eta kalkuluak egiten hasi nintzen.

Ez dut inoiz ahaztuko egun hura! Poza eta emozioa bai, baina urduritasuna eta beldurra ere bai. Dardaran eta emozioari eutsi ezinik etxe aurrera irten eta goiz argitsu hura itxaropentsua izan zitekeela iruditu zitzaidan. Atzera ta aurrera hasi nintzen, arnasa hartzeko denbora pixka baten bila, jakin-minez, bertan irakurri nezakeenaren zain. Harrigarria!

Holaxe zion e-mailak:
Becky Rhodes naiz eta 16 urte ditut.
San Franciscotik 25 milatara dagoen El Granada herrian bizi naiz aitarekin eta amaordearekin.
Musika entzutea, dantzan egitea, hondartzara joatea eta beste herrialde batzuk ezagutzea gustatzen zait.
Uztailean, nire aitak Hawaiko Kauai irlan izango den itsasontzien lasterketan hartuko du parte. Ni bertara joango naiz oporretan. Gustatuko litzaizuke nirekin etortzea?
Jack eta Terry izeneko bi txakur ere baditut.
Irrikitan nago Euskal Herria ezagutzeko eta zuri Kalifornia eta Hawai erakusteko.
Laister arte. Becky Rhodes.

Sarritan egin nuen amets Ameriketara, eta batez ere Hawaira joatearekin eta orain ustekabean, etxera zetorkidan gonbidapena.

Ameriketara joan aurretik, Becky eta biok skaipetik ezagutu ginen eta bizpahiru aldiz hitz egin genuen ikasketei, lagunei, ohiturei, gustuko janariei… buruz.

Konturatu gabe, ikasturte amaierarekin batera, maleta hartu eta bertara joateko eguna iritsi zitzaidan.

Bidaia luzea eta nekagarria izan zen, baina Becky polita aireportuan niri itxaroten ikusi nuenean, indar berrituta aurkitu nintzen.

Thomas izeneko 60 urte inguruko gizon beltzarana aurkeztu zidan. Nor ote da Thomas? – galdetu nion neure buruari.

Thomasek, nire maletak hartu eta aireportuko aparkalekurantz eraman gintuen. Ameriketako pelikuletatik ezaguna egiten zitzaidan luxuzko kotxe galant eta handi bateko atzeko ateak ireki zizkigun. Eserlekuetan eseri eta etxerantz abiatu ginen. Inguruan etxe dotoreak ikusten nituen: kale leun eta luzeetan zehar, bidearen alde batera eta bestera, lorategi ederrez apainduriko etxe galantak.

Thomasek haietako baten aurrean aparkatu zuen kotxea. *Iritsi gara!* – esan zidan Beckyk.

Aurrez-aurre geneukan Ozeano Barera eramaten gintuen hondartza zoragarria.

Etxeko ateetan, Beckyk, Sophie izenez aurkeztu zidan emakume beltzarana irrifarrez geneukan itxaroten. Bi musu eman eta, Thomasi maletak logelara eramateko agindu zion. Zelako etxea! Zelako logela! Zelako piszina! Jauregi bat ematen zuen!

Beckyk azaldu zidanez, Thomas eta Sophie, berarekin bizi ziren eta, Sophiek etxeko lanak egiten zituen bitartean, Thomasek bera kotxez ibiltzeko ardura eta etxearen konponketen eta lorategiaren ardura zeukan.

Becky printzesak bezala bizi zen! Luxuan, aberastasunean, kapritxoan, gurarian… zer nahi eta huraxe! Bera, eta ni ere bai, berarekin pasatu nuen hilabetean.

Goizetan, Thomasekin turismoa egiten genuen (Golden Gate zubia edo Golden Gateko parkea, Nob Hilleko “Grace Cathedral”-a, 1906ko lurrikararen ostean eraikitako Jauregi itxurako “City Hall” udaletxea, Chinatown, Alamo Squareko “Painted Ladies” eraikinak, Santa Cruzeko jolas parkea…) eta arratsaldeetan, piszinara, Beckyren lagunen etxeetako jaialdietara, dantza egitera… hara eta hona gelditu barik.

Beste batzuetan, Thomasek barkuan eramaten gintuen. Adibidez San Franciscoko badia ezagutzeko 3 egunetako bidaia zoragarria egin genuen. Itsasoa beti zegoen bare-bare eta iluntzetan, badia inguruko paisaia hura postaletan ikusitakoen antzekoa izaten zen: itsasontziak uretan, gazteen algarak portuan, eraikinetako argien islapenak ur distiratsuetan… ikuspegi paregabeak. Zoriontasuna sentitzeko momentu bikainak.

Alkatrazeko irlan dagoen izen bereko kartzela famatura edo Treasure eta Yerba Buena irletara ere itsasontziz joan ginen.

Lehenengo bi asteak San Francisco inguruan pasatu ondoren, beste biak Hawaiko Kauaiko irlan pasatzekoak genituen. Hantxe ezagutu nuen Beckyren familia. Amaordea udako oporretan zegoen eta aita, gurekin batera iritsi zen, itsasontzien lasterketa baten parte hartu ondoren.

Kauai zoragarria! Bertako ur-jauziak, oihanak, hondartzak, itsaslabarrak, lorategi botanikoak, Waimea arroila… sekulakoak ziren! Eta sekulakoak ziren bertako hotelak eta igerilekuak ere! Baina, zenbat eta gusturago denbora azkarrago zihoanez… berehala pasatu zitzaigun Ameriketan elkarrekin pasatzeko hilabetea. Ondoren, Beckyri Euskal Herria erakustea tokatzen zitzaidan.

Elkarrekin egin genuen bueltako bidaia. Loiura iritsi ginenean, maletak bakoitzak bereak eskuz jaso behar izan genituen, baina *"WELCOME BECKY – ONGI ETORRI AINHOA"* jartzen zuen pankarta ederra eskuan zutelarik aurkitu genituen osaba-izekoak, lehengusu-lehengusinak, lagunak, gurasoak, ahizpa… Besarkadak, musuak, negarrak, barreak eta algarak… Becky harrituta gelditu zen.

Kotxeetan sartu eta denok abiatu ginen gure etxerantz, Beckyri ongi etorria emateko gurasoek prestatuta zeukaten barbakoa inguruan arratsaldea pasatzeko asmoz. Ameriketako abenturak kontatzen, jan-edanean eta musika-kantuan, goizaldea iritsi zitzaigun.

Horrela jarraitu genuen ondorengo asteetan ere. Familian eta koadrilan disfrutatu genituen, Lizarrako kanpineko egonaldia edo Donostia, Iruñea, Iparraldea, San Juan de Gaztelugatxe, Guggenheim, Santimamiñe, etabar bisitatzeko irteerak.

Becky poz-pozik zegoen eta hasierako egunetan etxera heltzerakoan, bere gelan sartuta egotea gustatzen bazitzaion ere, egunak aurrera joan ahala, etxera heldu eta lehenengoa izaten zen, terrazako edo egongelako mahai inguruko eserlekuetan eseri eta tertulietarako apuntatzen zena.

- *Zelako oroitzapenak!*
- *Inoiz ez zeukan logurarik! Inoiz ez zeukan prisarik!*

Baina "denbora joan eta denbora etorri, gauza guztiak bueltan etortzen direnez", Beckyri ere konturatu barik, etxera itzultzeko garaia iritsi zitzaion.

Itzuli aurreko iluntzea ahaztezina izatea nahi nuen. Koadrilako guztiok afaltzera joan eta ondoren, "Ken Zazpi" taldearen kontzertua entzutera eraman genuen. "Argiak", "Irudi biluztuak", "Gau urdinak", "Trenaren zain"… bezalako abestiak korruan jarrita abestu genituen. Bihotzez eta sentimenduz, luzaroan ikusiko ez genuen Beckyren oroimenez. Erdi ezkutuan kalimotxoren bat ere konpartitu genuen.

Beckyk, Ameriketara joateko egunean goizeko 08:00etarako aireportuan egon behar zuen arren, gaupasa egin nahi zuen.

- *"Zergatik joan behar dugu lo egitera?"*
- *"Ni hobeto izaten naiz batere lorik egin gabe"* – esaten zidan.

Udako gau ederra geneukan, epel-epela eta zeruan ilargi bete-betea. Ahaztezina!

Goizaldeko ordu biak aldera amaitu zen kontzertua eta lehenengo agurrekin hasi ginen. Beckyk negarrari eman zion. Inoiz inork ez omen zion egin halako agurrik !

Erromerian jarraitu genuen, jo ta ke dantzan, baina 4:00rak aldera hura ere amaitu zitzaigun eta etxerako bidea hartu beharrean geunden. Inondik inora ezin nuen eraman!
- *"Nire azken gaua da, zergatik joan behar dugu etxera?"* – errepikatzen zidan.
- *"Ondo etorriko zaizu pixka bat deskantsatzea"* - erantzuten nion.

Baina Beckyk berriz ere negarrari eman zion. Ez zuen inorenik entzuten. Ez zuen Ameriketara joan nahi!

Kostata baina halako batean, iritsi ginen etxera. Egongelan eseri eta elkarrekin pasatutako uda bikainari errepasoa ematen hasi ginen. Nik, animoak eman nahian, Ameriketan, gu baino askoz aberatsagoak zirela eta han gauzak errazago zituela... etabar, aipatu nizkion, baina bere erantzunak hunkituta utzi ninduen: *"Ainhoa, kanpotik itxura aberatsa daukat baina zuk ez dakizu nire bizitza ze pobrea den eta nire bihotza ze triste eta bakarrik dagoen"*.
- *"Zuk bai daukazula familia aberatsa!"*
- *"Zuk bai dituzula benetako lagunak!"*
- *"Hori da aberastasuna!"*
- *"Maitasunean aberatsa izatea"*
- *"Bihotzez aberatsa izatea!"* – oihukatu zidan.

Ordu haietan, Beckyren tristurari aurre egiterik ez zegoenez, eskutik oratu, eskailerak igo eta ohera sartzen lagundu nion.

Goizeko 06:00etan altxatuko zela esan zidan. Gau hartan ez nuen begirik itxi. Neu ere 6:00etan altxatu nintzen eta bere komuneko argia piztuta ikusi nuenean lasai sartu nintzen dutxara; 06:00ak, 06:15ak, 06:30ak… komuneko argiak piztuta jarraitzen zuen baina han ez zegoen inolako mugimendurik. Prestatzen ari ote zen ikustera joan nintzen. Becky ohean lotan "seko" zegoen:
- *Becky, Becky… 06:30ak dira!* - deiadar egin nion.
- *Banoa, banoa, oraintxe noa!*. - erantzun zidan.

Gelatik atera, sukaldera jaitsi eta biontzat "colacao"-a prestatzen hasi nintzen. Hamar minutu beranduago Beckyren gelan oraindik ez zegoen inolako mugimendurik. Berriz hurbildu nintzaion. Logelako eta komuneko argiak itzalita, maletako arropak lurretik botata eta Becky ohe barru-barruan ezkutatuta, negar batean aurkitu nuen.

Argi guztiak piztu, maindireak atzerantz bota eta hunkituta, berandutu egingo zitzaiola gogoratu nion:
- *"Oraintxe noa!"* – esan zidan berriz ere.

Berriz sukaldera jaitsi, amak aurreko egunean egindako limoizko bizkotxo gozoa eta hainbeste atsegin zituen bainilazko natillak mahai gainean jarri, begietan nituen malkoak sikatu eta berriz sartu nintzen Beckyren gelara.
- *"Ez mesedez!", "Ez mesedez!"*
- *"Betirako gelditu nahi dut hemen!"* – oihukatu zidan

Orduan nire ama sartu zen gelara. Argi guztiak piztu, muxu bat eman eta gozo-gozo besoetan hartu eta dutxara lagundu zion. Ordurako denok geunden negar batean!

Dutxatik irten, logelako gauzak batzen lagundu, maletak zerratu eta, igande goiz hartan, gure tristurarekin bat egiten zuten bide eta herrixka hutsak zeharkatuz iritsi ginen aireportura. Hegazkineko ateetaraino lagundu nion.

Berbarik egin gabe, muxurik eman gabe, adiorik barik. Elkarri begiratu gabe.

Gu, kotxean sartu eta etxera itzuli ginen. Triste, penaz, barru hutsik… eta galdutako gaua errekuperatu nahian, ohera sartu ginen.

Arratsaldeko 17:00etan taxi zuri bat azaldu zen etxeko ateetan. Nor ote zen pentsatzen ari ginela, ateak ireki eta Becky atera zen barrutik.

Bihotza taupadaka hasi zitzaidan! Becky askoz lasaiago zegoen eta barkamena eskatu ondoren lasai hitz egitera zetorrela adierazi zigun. Hegazkinera sartzen zihoala, aitarekin whatsappetik komunikatu eta egonaldia egun bat luzatzeko baimena eskatu zion. Egun bat bakarrik!

Horrela ezagutu genuen Beckyren itxura alaiak, zabalak, gangarrak … ezkutatzen zuen benetako bizitza.

Ama, istripuz hil zitzaion Beckyk 2 urte zituenean. Ama, familia aberats batetako alaba bakarra zen eta aitona-amonak ere, ezbeharra jasan ezinik, laster hil ziren. Berak heredatu zituen familiaren ondasun guztiak baina ez zekien familiaren maitasuna zer zen. Aitagaz bizi zen. Aitagaz eta aitaren laugarren emaztearekin .

Aita bihotz handiko pertsona zen, izugarri maite zuen baina inoiz ez zegoen berarekin. Inoiz ez zegoen etxean. Beckyri zaintzaileekin eta aitaren emazte ezezagunekin bizitzea tokatu zitzaion. Haientzako Becky oztopo bat zen eta bere bizitza normala zela pentsatzen zuen, Euskal Herriko familiak zelan bizi eta maite ginen ezagutu arte. Euskal Herrira etorri arte ez zekien familian egotea, bazkaltzea, hitz egitea, pelikula bat ikustea zer zen…:
- *Nik neukan bezalako familia aberatsean bizi nahi zuen!*
- *Aberatsa maitasunean, elkartasunean, harremanetan, leialtasunean…*

Hurrengo ikasturtean, Beckyk Kalifornian, high schooleko ikasketak bukatu behar zituen baina, nire gurasoek egindako gonbidapenari kasu eginez, batxilerra Euskal Herrian egitea pentsatzen ari zen. Aurretik, bi baldintza bete behar zituen; aitarekin hitz egin eta berarekin etorri Euskal Herria ezagutzera eta High schooleko azken ikasturtean zehar euskara edo gaztelera patxadaz ikasi. Hitza eman zigun.

Beckyrentzako, Kaliforniarako buelta oso gogorra izan zen eta inoiz etxean egoten ez zen aita ere laster konturatu zen horretaz. Horretaz, eta alaba betirako galtzeko arriskuaz ere bai. “Dena” zeukan alaba, betirako ihes egitea pentsatzen ari zen.

Aitak, orduantxe zabaldu zituen begiak! Orduantxe hasi zen konturatzen, Becky, bakardadeaz, aitaren eta amaren faltaz, familiaren maitasunaren faltaz… ari zela eta ia betirako galdu arte, ez zela gai izan arazoa ikusteko. Barkamena eskatu zion berarekin

hain denbora gutxi egoteagatik, txikitatik beste batzuekin uzteagatik eta galdutako denbora errekuperatzeko beste aukera bat eskatu zion.

Hurrengo hilabeteetan Becky askoz pozago zegoen eta ikasturte batez Euskal Herrira etortzeko asmoarekin jarraitzen zuenez, Gabonetako oporretan aita eta biak gu bisitatzera eta elkarrekin bizitzeko apartamentuak ikustera etorri ziren.

Zoragarria izan zen Becky, aitarekin hain pozik eta hain harro ikustea!
"Orain ni ere zu bezain aberatsa naiz!" - esan zidan belarrira.

Pablo Calleja Felipe
BATX. 2. maila

"Ser joven y no ser revolucionario es una contradicción hasta biológica"
Salvador Allende

6. SOLAIRURAINO

Eta beste egun bat bizirik... zenbat igaro dira jada, 7 hilabete? 8 agian; baina hura ez da denbora kontua, ez da itxaroteaz batera ahazteko modukoa. Bapateko gauza izan zen, ia 64 urte ondoren guztia bukatu da; ez da ahazteko modukoa inundik inora. Bilobek ez naute alaitzen, aurtengo gabonak hutsak izan dira guztiz, eta hementxe diraut, zertarako... zertarako ez dakit, ezertarko ere ez seguruenik. Pena ematen dudala uste dut.

Egun guztiak berdinak ziren. Astelehena, martitzena, larunbata... berdin zion. Ez zegoen egutegirik, gauak eta egunak bakarrik eta, egia esan, antzekoak egiten zitzaizkidan, biak ilunak ziren-eta. Kalean bakarrik jesartzeari utzi nion, elkarrizketen falta somatzen nuen-eta. Etxeko leihotik begiratzen nuen egunero. Autoak pasatzen ikustea ez zen entretenigarria baina, behintzat, ez nituen zenbatzen, burua ondo neukan oraindik. Albiste guztiak desgrazia hutsak ziren, beraz, telebista itzalita egoten zen. Noizbait geratu izan nintzen hari begira, bera egoten zenean egiten nuen antzera, butakan eserita, pantaila beltzari begira milaka oroitzapen bueltaka airean zebiltzatela. Goizak urdinak ziren, arratsaldeak berdeak eta gauak gorriak. Egunak zuriak ziren, kolore gabekoak zirela konturatu nintzen, eta horrela 7 hilabetez.

Semeak asko arduratzen ziren. Ia egunero etortzen ziren. Ni alaitzen saiatzen ziren, baina ez zuten lortu. Nola kozinatu, dutxatu edota garbitu ahaztu zitzaidanetik, ia egunero zeuden etxean; zertarako, ez dakit. Biloba ere astean behin bisitan etortzen zen. Lehen izugarri ondo pasatzen nuen hari txantxetan amorrazten baina Isabel galdu genuenetik telebistari begira geratzen ginen, itzalita bazegoen ere, eta ia ez genuen hitzik egiten. Berak gauzak galdetzen zizkidan baina ez nuen hitz egiteko gogorik izaten. Ez neukan hitz egiteko gogorik. Gainera familiakoei buruan sartu zitzaien asteburuetan guztiok batera jan behar genuela. Bakarrik egotea zen gustuko nuen gauza bakarra, baina ez zuten ulertzen. Inork ez ninduen alaituko. Aurtengo gabonetan bezala. Guztiak batu ginen, eta otordu guztietan niri galdezka ibili ziren, islik nengoela ikusita,

elkarrizketan parte har nezan, baina horrela egotea da gustuko nuen bakarra. Aurten toki gehiago izan dugu mahaian, eta ez dakit besteak, baina nik asko nabaritu dut.

Apropos, Gabonetako arbolak hortxe jarraitzen zuen, iskina batean. Aspaldi batu genuela baina oraindik ez zuen inork ganbarara igo. Egunak eder argitu zuen. Eguzkia, lainorik ez, arbola... arbola, arbola, zergatik ez? Semeei beldurra ematen zien baina dagoeneko berdin zidan, denak. Etxeko zapatiletan irten nintzen eskailerara eta tatarrez kutxa igogailuan sartu nuen, indartsu nengoen oraindik. 5. solairuan gelditu ginen, kutxa eta biok, baina beste bat falta zitzaigun oraindik ganbarara iristeko.

Beldur gehien ematen zidana jausiz gero entzun beharko nituenak ziren, gainerakoak niri bost, jausi ezkero eta buruan kolpe bat hartunda berehala hiltzen banintzen, hobe. Nekez makurtu nintzen eskua barandilan itsatsita nuelarik. Lepoak min ematen zidan. Kutxari gogor heldu eta zutitu egin nintzen. 11 bat zatitan txikitu zitzaidan lepoa, nabaritu nituen *krak* guztiengatik, baina zutik nengoen kaxa eskuan nuelarik. Zapatilak ondo sartu nituen, hatz lodiarekin punta ikutu arte eta bista oinetatik kendu gabe, hanka lehenengo eskaileran jarri nuen. Aspaldi binan-binan igotzen nituen. 6. eskailerara arnasestuka heldu nintzen. Beste hiru gehiago igon eta eskailburuan sakon hartu nuen arnasa. Esfortsu handia eginez gainerako 9ak segituan igo nituen. Aspaldian ez nuela kirolik egiten. 13. a nirea zela uste dut. Giltzak boltsikotik atera nituen, eta erroiz beteriko luze batekin atea ireki nuen. Beldurrezko filmeetako hots mitikoa atera zuen. Aspaldi ez nintzela horra igotzen baina gogoratzen dudan gutxiak bere tokian jarraitzen zuen, gauza guztiak elkarren gainean. Preistoriako garbigailu bat, koltxoia, ardau botilak... guztia hankaz gora. Kutxa alde batera utzi nuen eta ate atzetik atera nuen aulki batean eseri nintzen. Leher eginda nengoen, eztulka. Alkandoratik txokor paketea atera, Reig 5, onenak, eta piztu egin nuen. Erretzeak eztula kentzen dit, ironikoa... Irudi bitxia zen nirea: ganbaran nengoen, erdi-erdian, txokorra ezpainartean nuelarik aulki txiki batean eserita, mila trasteren artean. Etxean erretzea debekatuta izango banu bezala. Bueno debekatuta ez baina gehienetan semeen errietak ez entzutearren ez nuen erretzen. Pare bat zupada emanda itzali egin nuen eta sabaileihoa irekita utzi nuen eratutako ke burbuila desegiteko xedez.

Egun horretarako abentura nahikoa. Txokorra berriz ere paketean gorde, paketea alkandoran sartu, atea giltz erroilduaz itxi eta txiri-txiri eskua pasadorean eta bista oinei begira nuela jeitsi egin nintzen. Etxeko ate aurrean gelditu nintzen, semeren bat etxera etorri ote zen pentsatzen, giltza eskuan nuelarik. Aitzakia bat bururatzen zitzaidan bitartean atea poliki ireki nuen, baina dagoeneko ez zegoen inor. Goizegi zen oraindik. Eta betiko legez, balkoira irten nintzen, autoak nola pasatzen ziren ikustera. Bidea ia hutsik zegoen. Gazte sentitzen nintzen. Aspaldian izandako "abenturarik eroena" izan zen, eta... bai, gustura nengoen.

Goiz jeiki nintzen. Autoak ikusteak aspertu egiten ninduen eta denbora neukanez 6.solairura igotzea erabaki nuen. Txiri-txiri eskailera guztiak igo, 13. atea ireki eta aulkian eseri nintzen. Gustura egon nintzen lehenengo egunean, bertan erretzen. Gainera oraitzapenak ez ziren 6. solairuraino igotzen eta lekua lasaia egiten zitzaidan. Baina aulki bat besterik ez zegoen. Garbigailuarekin eta izara zahar batekin mahai bat inprobisatu nuen. Kristalezko botetako bati tapa kendu errautzontzi gisa erabiltzeko eta listo, nire txokoa eginda zegoen. Berehala erre nuen eta aspertzen hasia nintzen. Egunkaria... 16 eskailerak jeitsi nituen, azkenengo biak hankada batez, 2.solairuraino igogailua, eta etxera sartu nintzen egunkari baten bila. Mahai gainekoa hartu nuen,

noizkoa zen ez dakit; eta berriz ere gora. Atzeratutako albiste horiek irakurtzen eman nuen goiz osoa, eta konturatu gabe ordu biak heldu ziren. "Arrapaladan" jeitsi nintzen etxera, gose nintzen.

Arratsaldean biloba etorri zitzaidan bisitan, domeka guztietan legez. Ez nion ezer esan nire ezkutaleku berriari buruz. "Nirea" zen-eta. Telebista aurrean igaro genuen arratsaldea, Julenek egiten zizkidan galdera behartuei erantzuten. Mahai azpiko XL semanaleko aldizkariak behin eta berriz "ganbarara igo eta irakur nazazu" esaten zidan bitartean. Eta semeei jakina ez niela ezer ere ez esan, Juleni tira, baina semeei inundik inora. Egoitza batera bidaltzeko kapazak dira. Duela pare bat hilabete bolibiar bat kontratatu genuen baina ez zuen gehiegi iraun. Etxera joateko esaten nion, bertan ez zegoela ezer ere ez egiteko, ez nion janaria egiten uzten, ezta garbitzen ere... oraindik kapaza nintzen hori guztia eta gehiago egiteko, gogoa falta zitzaidan besterik ez. Gainera gauzaeza sentiarazten ninduen. Berehala joan zen edo, hobeto esanda, joanaraztea eragin nion.

Lehengo harira bueltatuz, goiz eta arratsalde igaro nuen aste betez ezkutuan nire txokora joaten inork jakin gabe. Orduak igaroten nituen egunkari eta aldizkarien artean, edo besterik gabe, nire pentsamenduetan igerian, erretzen, ezer ez egiten... Eskuak tinta eta kearen arteko usainaren nahaste bitxi bat eduki arte. Isabel beti 2. soliruan gelditzen zen, ez nion goraino igotzen uzten, nire tokia zen soilik. Bertako trasteek ez zizkidaten inolako oroitzapenik ekartzen, negar egiteko tokia 2.solairuan zegoen, horregatik egoten nintzen goiz eta arratsalde osoa hor goian. Ihes egiten nuen. Era koldarrean? Agian. "Ganbara" edo "6. solairua" deitzen nion eraikitako horma sendo horren atzean ezkutatzen nintzen, oroitzapen haiekin izan nitzakeen elkarrizketen salbu, begi niniak egunkari eta aldizkarietan tinko, burua lerro eta hitzen artean galtzeko murgiltzen nuen bitartean. Horrelakoa zen toki hura. Berezia egiten zitzaidan oso. Lekua pixka bat egokitu nuen: kaxak, ardau botilak... txukun jarri nituen; garbigailuaren ordez, mahai txiki bat jarri nuen, baita alfonbra zahar bat ere. Kaxoidun armairutxo bat ere jarri nuen mahai alboan, egunero ureztatzen nituen pare bat landarerekin. Argi gutxi sartzen zen, baina berde jarraitzeko nahikoa. Ofizina bat zirudien. Familiaren argazki bat eta boladun asmakizun bitxi hori besterik ez zitzaidan falta. Baina toki hartan ez zegoen familiarentzako tokirik. Nire "psikotxokoa" zen, nire ideia eta pentsamenduetan mourgiltzeko tokia. Baina aulki hori... zerbait falta zen. Butaka eroso bat jarriko nukeen, txausina jantzita eta cognac kopa bat eskuan astintzen egoteko moduko bat. Asko hobetu nuen eta, eskailerak erraztasun handiz igotzen banituen ere, gabonetako zuhaitza igotzea zaila egin bazitzaidan, butaka bat faszikuluka ere ez nuen igoko. Julen...

Igandea heldu zen, eta igandero bezala bostetan Julenek tinbrea jo zuen. Galdera behartuen errepertorioarekin hasi baino lehenago nire abenturak kontatu nizkion, norberekeria bazen ere aitorpen horren atzean ezkutatzen zen sentimendua. Azken asteetan zertan ibili nintzen azaldu nion eta hasieran harritu arren, pare bat egun pasa ondoren, nire txokoan butaka bat zegoen. Julenek lokaletik ekarri zidan zigarroekin egindako zuloz eta apurtutako butaka izugarri ondo gelditzen zen. Kristoren loaldiak egiten nituen bertan jan ondoren. Hura zen nire etxea orain.

Orduak izugarri azkar pasatzen ziren 6.solairuan. Ez zegoen askorik egiteko baina malko eta oroitzapen hotzetatik salbu, denbora ez zen arazoa bertan. 2.solairuan aldiz, "logelan", bizia geldoago, aspergarriagoa, askoz ilunagoa zen. Lanpara txiki batekin nahikoa nuen irakurtzeko, eta haren azpian denbora azkar igarotzen zen.

Gogoratzen dut behin, 13.ean sartzeko nintzela, egunkaria besapean eta txokor ezpain artean nuela erretzeko prest, auzotar bat bere ganabratik irten zela eta hura aurpegaia jarri zuena! Guztiz harrituta geratu zen bainu-bata, etxeko zapatilak eta almohada eta guzti ikusi ninduenean. Horrez geroztik eraman beharreko gauzak boltsa batean eramaten nituen eta barruan aldatzen nintzen.
Ohea eta sukaldea besterik ez zitzaizkidan falta bertatik ez irtetzeko. Toki hark guztiz aldatu ninduen, alaitu eiten nintzen bertan, 18 eskailera igon behar banituen ere. Berezia zen oso. Benetan gustuko nuela eta, Julen izan ezik, inork ez zekien ezer. Beno, 3-Ako bizilagunak zerbaiten susmoa zuen, arraro begiratzen ninduen-eta. Baina gauza on guztiak bezala, hura ere amaitu zen.

Lasai nengoen, letra eta ke artean, bat-batean norbait sumatu nuenean atearen bestaldean. Geldi geratu nintzen, izututa harrituta... nahi duzuen bezala deitu, baina ez nintzen mugitu, ezin izan nuen. Julen zela pentsatu nuen, baikor, eta txokorra ezpain artean, egunkaria mahai gainean eta egoera guztiz surrealista hartan, seme txikia sartu zen zenbait tupper eta Isabelen jantzi batzuk eskuan zituelarik. Jarri zuen aurpegia definitzea zaila egiten zait... ganbara batean butaka baten eserita, txokorra ezpainartean egunkarai irakurtzen ari den agure bat aurkitzerakoan jar daitekeen bezalako aurpegi bat. Inusente eta aldi berean harritu aurpegia. Eta ni jakina, geldi-geldi, irribarre ahalketsu batekin. Agur.

Egunez egoitza batera joaten hasi nintzen. Behartuta. Kasualidadez, ganbaran infraganti harrapatzeak ez zuen zerikusirik izan... Tailer antzekoak egiten genituen egunean zehar, edo eginarazten ziguten, eta iluntze aldera etxera joaten nintzen. Txandakatuz, beti norbait egoten zen nirekin afarian. Estatu polizial bat bilakatu zen nire etxea, 2. solairua. Egun batez, 7ak aldera, makila hartu eta jakea jantzita nuela, nire bila noiz etorriko ziren esperoan, egoitzako laguntzaile bat hurbildu zitzaidan eta berriz ere gainetik guztia kentzeko eta lasai esertzeko esan zidan; gaua bertan igaroko nuela jakinarazi zidan. Egun horretan, hurrengoan eta hilabete osoan. Semeek urteko kontratua egin zuten egoitzarekin. Bertako beste egoilari burumakur eta ahaztu bat bihurtu ninduten. Esklabu.

Aspaldi ahantzitako egun berde, urdin eta gorri haiek , berriro ere agertu dira, eta telebistako programazioa goitik behera jakitea, eguneroko gauza bihurtu da. Jake mate.

Julenek domekero jarraitzen du etortzen bisitan, 5tak puntuan hementxe egoten da, baina orain ez gara telebista aurrean galdera behartu horiei erantzuten geratzen, ez. Etxera joaten gara, 5.solairurarte igogailuz eta 16 eskailerak igonda, ganbarara eramaten nau arratsaldea pasatzera. Behintzat asteak ondo bukatzen dira. Domekak gustuko ditut.

Luis Alegre
HHI-EPA

URDAIBAI

1984an, Uneskok Mundakako estuarioa Biosferako Erreserba izendatu zuen, eta handik aurrera Urdaibaiko Biosferako Erreserba du izena. Geroago, 1989an, Eusko Jaurlaritzak Urdaibaiko Biosferako babesa eta antolamenduaren legea onartu zuen. Horrela, bere arrazoizko eta ustiapen orekatuaren garapena hasi zen. Horretarako, hasieran kudeaketaren organoa, Patronatoa, eta geroago, lankidetzaren organoa, Kooperazioaren Kontseilua, sortu ziren.

1994an Erabilpen eta Kudeaketaren Gidari Plana (PRUG) delakoa onartu zen, baita Bateratzeko eta Garapenerako Jardueretarako Plana (PADAS) delakoa ere bai. Hiru urte geroago, 1997an Interpretazio, Ikerketa eta Ingurune Heziketarako Mantenuaren Plana aurrera atera zuen Patronatuak.

Urdaibaiko Biosferako Erreserba Eusko Jaurlaritzako Ingurugiroaren sailaren menpekoa da, Ingurugiroa eta Lurralde-Antolamenduaren saila arduraduna izanik; bai pertsonalaren kudeaketaren zein Erreserbako aurrekontuen gastuei buruz instituzio horrek du ardura.

Urdaibaiko estuarioa alde naturala da; Oka ibaia itsaroratzen den lekuan dago, Busturialdeko eskualdean. Bere azalerak 220 kilometro karratu hartzen ditu eta ekologi aberastasun handia dauka. Horren ondorioz, Biosferako Erreserba bezala kalifikatu zuten. Hala ere, Mundakako edo Gernikako estuario modura ere ezaguna da.

Bere hedadura eta kontserbazio gradua kontuan hartuta, Euskal Herriko hezegunerik garrantzitsuena da. Atseden eta neguterako hegazti migratzaileentzat inguru aproposa da. Horregatik eta beste interes anitzagatik, gizarte, ekonomia, zientzia, aisialdi eta abarrengatik, 1986ko uztailaren 6an onartu zen legeak lurraldeko erabilpena eta babesa arautzen ditu. Beste alde batetik, lege honek neurriak begietsi zituen lurraldeko hazkunde iraunkorrerako .

Hegaztiei buruzko ikuspuntutik, Erreserba honek Babes Bereziko Lurralde hegaztientzat merezi zuen izatea. Horrela geratu zen Natura Sarea 2000 barruan osatuz. Bestalde, Ramsar hitzarmeneko Hezegune garrantzitsu nazioarteko zerrenda barruan dago 1992tik ministro kontseiluaren erabakiagatik.

Gidari plana, kudeaketarako eta lurraldeko plangintzarako tresnarik garrantzitsuena da. Babestu eta berreskuratu egiten ditu Urdaibaiko Biosferako Erreserbako lurralde babestuetan dauden ekosistemak, beriziki urak, bai gainazalekoak, bai lurrazpian daudenak. Baita bertako landaretzen kopurua ere. Beste alde batetik, nekazaritzarako lurzorua bultzatu eta sustatzea ere helburu garrantzitsuak dira.

133 artikulu ditu, eta orokorrean, aldi baterako, xedapen gehigarri eta finalekin. Halaber, antolamendu eta erabilpen kudeaketarako arau orokorrak, balore naturalak berreskutzeko, jokabide eta babesak eta abar ikus daitezke. Aipatutako planak bost eranskin dauzka eta hainbat titulu ere bai.

Arauak, legeak, artikuluak, planak, estrategiak, babesa, natura, hitzak, paperak, jauregi bat, aurrekontuak… baina, nahiz eta aditua ez izan, nik gero eta karramarro gutxiago ikusten ditut Sukarrietako, Busturiako eta Kanalako paduretan. Txikitan, Sukarrietako Egoitzan nengoenean, karramarroak, izkirak, nabajak, arrainak, txirlak, lapak… kopuru handietan ikusten nituen. Orain, gauza bera ikustea, mirari aparta iruditzen zait.

Aspaldian Muruetako untziolak bazeuden. Agian denbora hartan egin zituzten ontziak, gaurkoak baino txikiagoak ziren ala? Garai hartan, ez zuten itsasadarreko hondorik dragatu behar? Beharbada itsasadarreko hondoak ez dira hondatzen dragatzeagatik, eta hondoarekin, han daukaten babeslekua eta bizi diren izakiak? Dragatutakoa hareatzetan isuri eta non amaitzen da? Hau ez da kaltegarria ekosistementzat?

Kutsadura beste elementu bat da kontuan hartu behar duguna. Zentzu honetan, hogeita hamar urte pasatu ondoren esan daiteke eskualdeko saneamendu-sareak amaitu gabe jarraitzen duela. Antza denez, dirua faltagatik. Noiz bukatuko den egitasmoa, inork ez daki. Bitartean, Okako itsasadarra, Urdaibaiko bihotza, estolda bihurtuta dago.

Hala ere, duela bizpahiru hurte, Sukarrietako Egoitzean Bizkaiko bigarren Guggenheim Museoa jarri nahi zuen norbaitek. Nola, dirurik ez badago? Musu-truk? Guggemheim Museoak egoitza batzuk dauzka, New Yorken, Venecian, Berlinen eta Bilbon. Adieraztezina da, baina gogargietsi bati bururatu zitzaion Bizkaian bigarren museoa ipintzea, hain zuzen lekurik zoragarrienean, dirurik ez eduki arren, hustubide baten alboan. Gai honetan onartu behar dugu arroko isurkiak ez direla hilgarriak, batez ere gehienak biologikoak baitira eta ondorioak ez dira larriegiak, itsasoko itsasaldeei esker. Dena den, hogeita hamar urte bada tarte handia. Hainbeste urte eta gero, hau.

Kutsadurarekin jarraituz, ikus dezakegu Inamaren kasua. Jarraitu baino lehen, lanpostuak garrantzitsuak izanik, ezin dugu ahaztu non dauden orain lanpostu horiek: galduta. Denbora luzean Inamak pozoia airera isurtzen zuen eta guztiok irensten genuen. Hala ere, agintariek ez jakinarena egiten zuten. Gainera, diru-laguntzak eman zizkioten. Jabeek nahi izan zutenean lantegia itxi zuten eta guk orain Inamaren zorra “jan” behar dugu.

Gauza antzekoa esan daiteke Fruizeko Biomasako Zentroa, eta Muxikako Insdustrialdeari buruz. Sen onak esaten digu hauen motako egitasmoak okerrak direla bai Erreserban, bai Erreserbako inguruetan.

Lurralde honetan lehen sektorea bultzatu behar dela uste dut. Zergatik erosi behar dugu, Murcia edo Marruecosko kuiak, edo lekak, Frantziako porruak, edo Polonia edo Argentinako haragia, Bizkaiko landa guztiak emankorrak badira? Industria ez dakigu noiz, baina badakigu nola amaitzen den, jabeek nahi dutenean. Bitartean, egunero jan behar dugu. Bestela, lehen sektorearen babesa, zertan datza?

Baso aldean, nire ustez ikuspegia ez da hobea. Alderantziz. Ikus dezagun. Gidari Planaren egistasmoen artean, nabarmena da Erreserbako ekosistemak berreskuratzea, haien artean, bereziki, urak eta bertako landaretza. Wikipedian irakur dezakegu Erreserbako azalerarik gehiena pinudi eta eukaliptoekin landatuta dagoela. Hauek, basoko ustiapenari dagokion prozesuaren menpe daude eta, honen ondorioz, izaki espezie batzuk ezin dute finkatu. Pinu eta eukaliptoek daukaten garrantzia oso txikia da ikuspuntu ekologikotik.

Gainera, esplotazioaren prozesuak lurren higadurarako lagungarriak dira. Higaduraren aurka egiten den gauza bakarra zera da, Laidako dunetan lau kainabera ipintzea. Baina zoritxarrez, itsasaldiek urtero hondartzaren fisonomia aldatzen dute.

Ildo beretik José Sainz Ibarrondo jauna eta Maria José González andrea EHUko Geografia Sailaren irakasleek, besteak beste, hauxe esan dute: “Hasieran, arlo honetako egitasmoek itxaropen handia sorrarazi zuen, baina prozesua ez doa zentzu honetan”, eta honako hau proposatu dute: babes handiko bertako basoetako espezie gehikuntza eta basoetako ibaiertzak berreskuratu. Gainera, baso iharduera emankorrerako kontrola egitea beharrezkoa da. Bai mantenuaren aldetik, bai kokaleku eta lurraldeko hedaduraren aldetik ere.

Laburpen moduan zifrek gauza bera esaten digute. Erreserbako azalerako ehuneko laurogeia pinudiek eta eukaliptoek bete dute. Biak ez dira bertako zuhaitzak, noski. Baso mistoa ehuneko hogeita bia.

Non geratu dira hasierako asmoak? Non dago berreskurapena? Non daude urkiak, haritzak, gaztainondoak...? Zein da garrantzitsuena, basoetatik etekinak ateratzen dituztenak, ala natura eta interes orokorrak?

Begitarte ilun hau leuntzeko eta egia osoa esateko, gauza positiboei buruz hitz egitea beharrezkoa da. Jakina. Erreseban, bertako hegaztiek, baina batez ere migratzaileek, babestokia eta elikagaia aurkitzen dute. Inguruaren ezaugarriak aproposak direlako.

Zentzu honetan, naturalistek, Arteagako Bird Centerrak eta zientzialariek han egiten duten lana itzela iruditzen zait. Haiei esker, etxe alboan hegazti mota guztietakoak ikus ditzakegu, bai autoktonoak bai migratzaileak. Dena den, azkenean daukaguna geneukana da, naturak eman ziguna.

URDAIBAIKO ATEAN DENBORAREN TUNELAK

Bukatzeko, ezin dut pasatu Autzaganeko Tunelak aipatu barik. Rams faraoiak ezin izango zuen halako lana egin.

Higaduraren aurkako borroka hauxe da. Mendi erdia desagertu da. Apur bat jarraitzen badute hondeatzaileek, mendi osoa kendu ahal zuten eta modu honetan, tunelak ez zituzten egin behar. Gero, ahoa bete zaie, higadurari buruz hitz egin digutenean. Gizakiok kaltegarriagoak gara natura baino.

Baina bitxiena: tunel hauek inora ez doaz. Nire ustez, ez dute ezertarako balio. Beno, gauza baterako bai, guztion dirura suntsitzeko. Aldundiko adituek esan dutenaren arabera, amaituta egon daitezenean Gernikatik Zornotzarako bidaia hamairu minutu gutxiagotan egingo da. Gezurra. Orain, Zugastietatik Zornotzarako bidaiak sei minutu irauten du, lanekin barne. Nola aurreztu ahal dute hamahiru minutu, sei minutuetako bidaia batean?

Hitz egiten digute segurtasunari buruz. Antzinako ibilbidean segurtasuna bermatu ahal izango zen, bihurgune pare bat kendu, bidea handiagotu eta bidezoru egokia jartzen. Beste aldetik, portuko gainontzeko eta Okako bihurguneak, gaur egun dauden bezala geratuko dira. Orduan? Halako lana hain gutxirako ulertezina da.

Segurtasunagatik kezkatzen badira, pentsa dezakete oinezkoengan ere bai. Autobusak errepideko alde bietan geralekua eduki arren, Zornotzatik Kurtzeroraino, nahiz eta hirigune txikiak egon, ez dago ez zebrabiderik ez semafororik. Eta handik Gernikaraino, gauza bera. Gernikar bat joan daiteke Gernikatik ia Busturiraino ibiltzen edo txirringaz arriskurik gabe. Baina ezin du antzeko ibilbidea egin beste alderantz, Muxikarako, ezta Muxikarrak Gernikarantz ere. Segurtasuna, turismoa (nekazal gunekoa edo arrunta), garapen jasangarria delakoa bultzatzeko modu polita.

Ezin zuten egitasmo arrazoizko eta merkeagorik egin, soberako dirua beste proiektu batzuetarako eskainiz? Pasealeku edo bidegorri baterako, adibidez. Lehen itsasontziak egiten zituztenak, gero forestalistak izan ziren, orain eraikitzaileak, eta haien aurrean gainerakook ez daukagu ezertarako aukerearik.

Eta lan handiei buruz hitz egiterakoan, zer gertatzen da? Foruen Sehaskak ez dauka mailarik, Bilbo, Erandio, Getxo (Areeta, Algorta eta Maidaganen) edo Durangok bezala ala? Hiri hauetan trenbideak lurperatu egin dituzte, zati batean behintzat edo hirietako zeharkatze guneetan..

Duela ehun eta hogeita bost urte, iritsi zen trena Gernikara eta trenarekin aurrerapena. Gaur egun egoerak modu berean jarraitzen du. Hiriak burdinezko orbain hau jasan behar du, bi aldetan zatituta. Ez dago erremediorik anakronismo honetarako?

Eta trenei buruz hitz egiterakoan, zergatik aipatutako trena ez da erabiltzen merkantzia tren gisa? Horrela, hain zigortuta dagoen errepide honetatik ken litezke kamioak.

BABESLEAK:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburordea

BFA
DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Kutura Saila